# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2015-09-11
EGUBAKOITZA
651. ZENBAKIA
15. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS

TOKIKOM


## Gureak: 25 urte eta tailer berria

Arrasateko lantokia inauguratu dute | 10



Ekitaldiaren une bat. | IMANOL BELOKI

Ludoteka eta gazteleku eskaintza oparoa Debagoieneko herrietan | 2



Bergarako San Martingo ferian ortuko uzta kalera zapatuan | 14



Andoni Azkargorta: "Eibarrek talde orekatuagoa dauka aurten" | 26

# Oñatiko Udala prest agertu da siriarrak hartzeko

Debagoieneko beste hainbat partikular ere gertu daude | 3



Juan Jose Murgiondo eta Rosario Belastegi, Bergarako Aierdi Gainekoa baserrian, *Argi* txakurra ondoan dutela.

## "ARTZAINTZA GUSTATU EGIN BEHAR ZAIZU, BESTELA ZAILA DA AURRERA EGITEA"

Gipuzkoako Artzain Egunean omendu dituzte Juan Jose Murgiondo eta Rosario Belastegi, urteetan egindako lanagatik | 4

ENEKO AZKARATE

## SINADURAK


Izatera iritsi | 6 — IÑAKI GOITIA
6 | Lan egiteagatik ordaindu?! — MAIDER ARREGI
Euskaldun globala | 12 — ITSASO ERRETOLATZA
15 | Klik! — JAIONE CARPINTERO
Aurten 45 | 18 — MAITE IRIZAR
20 | Ile urdina daukat, eta zer? — PALOMA MARTINEZ
Zubiak eta lankidetza | 40 — MIKEL IRIZAR





ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Eduardo Zubiaurre enpresaburua
- Aita Menni ospitalea barrutik ezagutzen

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05




# IXADEBALDE

Aretxabaletako XI. merkealdi azoka

**Irailak 12,** zapatua. **10:00etatik 20:00etara**
**Herriko Plazan.**

- Puzgarriak egun osoan zehar egongo dira.
- Arratsaldean jolasak izango dira umeentzako.
- Hiru otar eta U.D.A-ko bi bazkide-txartel zozketatuko dira.

ANTOLATZAILEA: aretxarte
LAGUNTZAILEAK: Aretxabaletako Udala

Akorde
Martin oinetakoak
Amaia ume denda
Brasileña akeita etxea
Kilima
Asensio
Haurrak
Gertu
Belar Meta
M5
Titare
U.D.A
Zubia Oinetakoak
Atai
Begira
Tinta Beltza



DEBAGOIENA 2 | IRITZIA 6 | HERRIAK 9 | KIROLA 26 | KULTURA 30 | GAZTEAK 33 | ZURE IRAGARKIAK 34 | ZORION AGURRAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 40



Udaletako teknikariak hedabideen aurrean. | GOIATZ ARANA

# Ludotekak eta gaztelekuak abian dira herri gehienetan

## Beste hezkuntza aukera batzuk eskura ipini eta ezberdintasun sozialak arintzea dute helburu

**ENEKO AZKARATE** | ARRASATE

Ludoteka eta gazteleku edo gazte txoko eskaintzaren berri eman dute eskualdeko gazteria teknikariek. Arrasaten, Bergaran, Oñatin, Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Elgetan daude, *Gaztematika* dinamikaren barruan, eta helburu berekin egiten dute lan: beste hezkuntza aukera batzuk eskura ipintzeko eta ezberdintasun sozialek euren bizitzetan duten eragina arintzeko. Eta ezaugarri bat dute: irisgarritasuna. Arreta berezia jartzen dute haurren eta nerabeen arteko euskararen erabileran eta zerbitzu euskaldunak izatean, eta aisialdi hezitzailea lantzen dute.

**Gaztelekuak eta gazte txekoak**

Ludotekak astelehenetik barikura daude zabakik, arratsaldeetan. Urtean zehar edozein momentutan egin daiteke proba, eta, gustatuz gero, izena eman; prezioa sinbolikoa da: urteko 30 eta 65 euroren artean, herriaren arabera. 0-3 urtetik 12 urtera bitartekoei zuzenduta dago.

Gaztelekuak asteburuetan egoten dira zabalik, kasu gehienetan, eta astean zehar ere irekita dauden tokietan, eskola orduetatik kanpo. Gabonetan, Aste Santuan eta udan, gainera, zerbitzu berezia eskaintzen dute, gaztetxoek eskolan oporrak dituztela kontuan izanik. Gaztelekuen kasuan, ez dago izena eman beharrik.

Erabiltzaile kopuruari dagokionez, Arrasaten 400 inguru dira; Aretxabaletako eta Eskoriatzako kasuan, 50 eta 80 bitartean; Bergaran kopurua igotzea espero dute, Agorrosindik erdigunera joan direla kontuan izanik.



AMAIA TXINTXURRETA

# Lehen eskola eguna

Haurren Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleek eskolak hasi dituzte, baita Lanbide Heziketan ere. 370.000 lagunek EAEn, iaz baino %0,24 gehiagok. Arizmendiko Gazteluondo gunean ateratakoa da argazkia.

## Udalerri aktiboen jardunaldiak egingo dituzte Eskoriatzan, Mugikortasun Asteari amaiera emateko

Debagoieneko eta Debabarreneko Udalerri Aktiboen II. Jardunaldiak egingo dituzte Eskoriatzan, Zaldibarren, irailaren 24an, goizez. Jarduera fisikoa eta bizimodu osasuntsuak bultzatzea helburu dituen gaiak eztabaidatuko dituzte. Izen-ematea irailaren 18a baino lehen egin behar da, 943 20 10 74 telefonora deituta edo helbide honetara idatzita: *esk-eibar1@euskadi.eus.*

# Bakea eta batasuna aldarri Elkororen aldeko omenaldian

## Ferrer, Alvarez edota Gallastegi bertan zirela, bakea lortzeko batasuna behar dela esan zuen omenduak

**E.A.** | BERGARA

Ehunka lagun batu ziren Jose Luis Elkororen erabateko askatasuna ospatzeko egindako ekitaldian barikuan Bergaran. Mariano Ferrer, Juanjo Alvarez, Pablo Gorostiaga, Victoriano Gallastegi, Jose Antonio Altuna *Txatillo*... hainbat hizlari. Batasunerako aldarria guztien berbaldietan. Elkorok berak ere horixe nabarmendu zuen oholtzatik: "Bakea lortzeko batasuna behar da".

Musika, kantua eta dantza ere izan zituen ekitaldiak, eta, Peio Ospital gidari, *Zazpi euskal herriek bat egin dezagun* abestuz amaitu zen.

Zapatuan, bestalde, herri afaria egin zuten Udal Pilotalekuan, presoen senideen eta azken egunetan aske geratu diren Elkorori berari eta Iñaki Arietaleanizbeaskoa *Bixkai* preso ohi bergararraren ondoan egoteko.



Juanjo Alvarez, gainerako gonbidatu eta hizlariei zuzentzen. | IMANOL SORIANO



# Hondakinen %60 gaika batzen ditu Debagoienak; Gipuzkoak, berriz, %43

## 2011tik 2015era bikoiztu egin da gaika jasotzen den hiri hondakin kopurua bailaran, GHKren arabera

LEIRE KORTABARRIA | DEBAGOIENA

Debagoiena da Gipuzkoan gaika gehien biltzen duen mankomunitatea; Gipuzkoako batez bestekoa alde handiarekin gainditzen du. Hain zuzen, Debagoienak hondakinen %59,2 biltzen ditu gaika, eta Gipuzkoako batez bestekoa %43,4 da. Horrez gain, 2011tik 2015era bikoiztu egin da gaika jasotzen den hiri hondakin kantitatea Debagoienean. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak jasotako datuak dira horiek. GHKren datuek erakusten dutenez, 2014an, Debagoienean hondakinen %40 zen errefusa; 2008an, %70 –gaika biltzen zena hondakinen %30 baino gutxixeago zen–. 2010ean, %69/%31 zen proportzioa; 2012an, %64,3/%35,7; eta 2013an, %58,8/%41,2.

Ez hori bakarrik; zeinu guztietako agintari politikoak ados jarri dituen beste helburu bat, gero eta hondakin gutxiago sortzea, beteaz doala erakusten dute datuek. Izan ere, 2008an, 305 kilo errefus eta 127,8 kilo bestelako hondakin –gaika bilduta– sortzen zituen Debagoieneko biztanle bakoitzak; denetara, 432,8 kilo hondakin biztanleko. 2014an, hurrenez hurren, 143,9 eta 209 kilo ziren biztanle bakoitzeko; denetara, 352,9 kilo hondakin biztanleko.

DATUA

**353**

KILO HONDAKIN

**Iaz, biztanleko 352,9 kilo hondakin sortu ziren Debagoienean, eta horietatik 209 gaika batu ziren; 143,9 errefusa zen.**

### 2011 ezkero, sistema berriak

2011 ezkero, aldatzen joan dira Debagoieneko bilketa sistemak eta moduak; herri batzuetan erabat aldatu dira eta beste batzuetan, aldiz, sistema mistoak ipini dituzte, atez ateko bilketa eta edukiontziak, biak erabilita.

2011ko martxoan ezarri zen atez ateko bilketa Antzuolan, eta 2013ko irailean Oñatin. Frakzio guztiak zintzilikario bidez batzen dituzte. 2014ko otsailean, gaikako bilketa selektiboa zintzilikario bidez ezarri zuten Bergaran; organikoa eta errefusa biltzen dira atez ateko sistema bidez, eta beste frakzioak edukiontzi bidez.

Urte berean, uztailean, Aretxabaletan hasi ziren atez atekoarekin; ordura arte, bosgarren edukiontzia izan zuten organikoa biltzeko. Eskoriatzan ere 2014az geroztik dute atez ateko bilketa, proba pilotua egin eta gero. Arrasaten, 2015eko martxoa ezkero, bilketa selektiboa egiten dute, bost edukiontzi bidez. Elgetan ere edukiontzi sistema dute 2014ko abendua ezkero; txipa dute errefus eta organikoarendako edukiontziek.

### Jauzi handiena 2014an

Hain zuzen, 2013tik 2014ra izan da jauzi kuantitatibo handiena Debagoieneko emaitzetan: 2013an, 219,5 kilo errefus eta 154 kilo bestelako hondakin, gaika, batzen ziren biztanle bakoitzeko. 2014an, lehenengo aldiz, gaika bildutako hondakin kantitatea errefus kantitatea baino handiagoa izan zen.

Frakzioz frakzio, honako kantitate hauek batu ziren 2013an, kilo biztanleko: Organikoa: 13,7; errefusa: 219,5; papera eta kartoia: 42,6; ontzi arinak: 17,2; beira: 33,6; garbiguneetan eta beste: 46,9. Urte osoan, biztanle bakoitzak 373,5 kilo hondakin eta 219,5 kilo errefus sortu zituen.

Eta hauek dira 2014ko datuak: organikoa: 51,9 kilo biztanleko; errefusa: 143,9; papera eta kartoia: 44,8; ontzi arinak: 25,3; beira: 36,4; garbiguneetan eta beste: 50,6. Urte osoan, debagoiendar bakoitzak 352,9 kilo hondakin sortu zituen.




*Booking* webgunea. | GOIENA

# Internet bidezko erreserbek gora egin dute ostatuetan

## 'Booking' eta halako plataformek onurak eta kalteak ekar ditzakete, ibarreko ostalarien iritziz

JOSU BILBAO | ARRASATE

Uda ona izan da Debagoieneko ostatuetan. Gipuzkoan, orokorrean, hotel eta landetxeen okupazioa hazi egin da 2014ko udako hilabeteekin alderatuta, eta bertan ere gorakada hori nabaritu dute ostalariek.

Turista horien kopuru garrantzitsu batek Internet bidezko plataformen edo zerbitzuen bidez egiten dituzte erreserbak. Booking, Ruralzoom eta halako webguneek hotelei eta landetxeei mundu osoan zabaltzeko aukera ematen diete, eta Debagoieneko ostalariek azaldu dute zerbitzu horiek erabiltzen dituzten bezeroak gero eta gehiago direla.

Antzuolako Ibarre nekazari turismoan, Elgetako Maialde landetxean eta Arrasateko Santa Ana hotelean, uztaila eta abuztua oso hilabete onak izan direla azpimarratu dute. Gainera, hiru ostatuetan, Interneteko plataforma horien bidez erreserbak egin dituzten turisten gorakada nabarmena egon dela baieztatu dute. Plataforma horietatik Booking webgunea da erabiliena.

### Iruzkinen arriskua

Plataforma horiek ostalarientzat izan dezaketen arriskua da bezeroek euren iritziak plazara ditzaketela. Iruzkin positiboak eta negatiboak, hain zuzen ere.

"Komentario txarrak ipin daitezke, noski. Jende askok webgune horren bitartez ezagutu gaitu, eta guri ondo egin digu. Portzentaje bat Interneteko zerbitzu horrendako izaten da, baina udan topera egon gara", azaldu du Ibarre nekazari turismoko Pilar Berastegik.

Maialde landetxeko Jesus Kalboetxeagak ere alde onak eta txarrak azpimarratu ditu: "Kritika onek asko laguntzen dute, eta, beste aldetik, txarrak baldin badira, hobetzeko balio dute. Etortzen direnek kritikak irakurri dituztela esaten digute. Hala ere, iruzkin anonimoekin ezin duzu ezer egin. Gainera, batzuetan, gezurrak ere agertzen dira, eta ezin dezakezu ezer egin".

Santa Ana Hoteleko Iñaki Pildainek ere argi du: "Azkenean, plataforma horiek balorazio bat egiten dute, bezeroei zer garbitasun, prezio edota hotelak dituen zehaztasun guztiak azaltzeko. Iruzkinek egon, egon behar dute".

# Siriako errefuxiatuak hartzeko prest agertu dira Oñatiko Udala eta debagoiendar ugari

## Diputazioak jaso dituen 40 partikularren eskaintzetatik Debagoienekoak ere badaude

J.B. | ARRASATE

Diputazioko Lankidetza Zuzendaritzak jakinarazi du Gipuzkoan 40 partikularrek eskaini dutela aterpea eta, oraingoz, 140 plaza eskaintzeko moduan direla. Aretxabaletatik eta Bergaratik eskaintzak egon dira eta, gainera, Arrasaten Aita Menni fundazioak erakundeen esku lagako du hamar bat pertsonarentzako txalet bat. Errefuxiatuei babes emateko eskaintza osoa Eusko Jaurlaritzak kudeatuko du orain, eta, horregatik, 140 plaza horiek guztiak Jaurlaritzaren esku utziko ditu Gipuzkoako Diputazioak. Izan ere, Europako Batzordeak 17.680 errefuxiatu hartzeko eskatu dio Espainiari, eta Euskadin 1.000 errefuxiatu inguru hartuko dituztela aurreikusi du Eusko Jaurlaritzak. Horietatik %52 Bizkaira joango dira, %33 Gipuzkoara eta %15 Arabara.

Herritarrek erakutsi duten ardura eta prestutasuna nabarmendu du Gipuzkoako Diputazioak: "Herritarrek laguntzeko grina dutela ikusten ari gara, eta udalek eta erakundeok ezin dugu kalerik egin. Gure esku dauden baliabide eta bitarteko guztiak erabili behar ditugu, laguntza eraginkorra eta berehalakoa izan dadin, eta hori guztia beste erakunde batzuekin eta GKEekin koordinatuta egin beharko dugu", azpimarratu du Denis Itxasok, Kultura eta Lankidetzako diputatuak.

### Oñati, laguntzeko prest

Errefuxiatuek dituzten beharrei erantzuteko baliabide ekonomikoak jartzeko eta harrera protokoloa aktibatzeko konpromisoa hartu du Oñatiko Udalak. Siriako eta beste herrialde batzuetako gatazka politiko eta militarretatik ihes egiten duten errefuxiatuak Oñatin hartzeko prestutasuna adierazi du, eta "baita konpromiso bera duten beste udal batzuekin lan egitekoa ere".

Udala harremanetan jarri da Udalaz gaindiko instituzioekin, irabazi asmo gabeko erakundeekin eta herritarrekin, "tragedia honen aurrean egoerak eskatzen duen erantzuna emateko" asmoarekin.

# Bizitza osoa artzaintzari, esneari eta ogiari eskainia

## Juan Jose Murgiondo: "Etorkizun beltza ikusten diot artzaintzari"

MAIALEN TORRES | BERGARA

Joan den domekan Gipuzkoako Artzain Eguneko protagonista izan ziren Juan Jose Murgiondo *Aierdi* eta Rosario Belastegi senar-emazteak. Izan ere, Legazpiko ospakizunean omenaldia jaso zuten urte askoan artzaintzan egindako lanagatik.

Eguna pozik gogoratzen dute biek, "gustura" ibili baitziren, besteak beste, herri bazkarian eta Gipuzkoako artzain-txakurren lehiaketa ikusten, baina aitortu dute jendaurreko omenaldian lotsa izpi bat izan zutela. "Oholtza gainean igo eta protagonista izatea ez da gehien gustatzen zaiguna", azaldu dute. Omenaldia bera, ordea, asko eskertu dute, "bizitza osoko lanaren aitortza" delako eurentzat, eta aspaldiko lagunekin elkartzeko aukera ere izan dutelako horren aitzakian.


Juan Jose Murgiondo eta Rosario Belastegi, Aierdi baserrian. | ENEKO AZKARATE

**Artzaintzan hastapenak**

Gaztetan izan zuten lehen harremana biek artzaintzarekin, baina ez zuten hasieratik behin betiko ogibidetzat hartu. Izan ere, emazteak bultzatuta lantegian lanean ibili zen Murgiondo, baina, pare bat urtez Fagorren lan egin ondoren, lantegia utzi eta berriz artzaintzari ekitea erabaki zuen. "Soldatak, proportzioa kontuan hartuta, askoz ere baxuagoak ziren, eta emaztea eta bi ume nituen orduan, baita horiekiko ardura ere. Segurtasuna eman nahi nien", azaldu du. Horrela ekin zion gaur arte bizitza eskaini dion ofizioari.

Artzaintza gustuko lana zuen Aierdik, baina ondo gogoratzen du ofizioaren gogortasuna: "Jaiegunik ez hartzea hobe zen, bestela gauean lan egin beharra zegoen-eta. Lan asko egin behar da, eta gustatu egin behar zaizu, bestela oso zaila da-eta aurrera egitea".

**Egunean egunekoa**

Artzaintzatik ateratzen zuten esnea egunean bertan saltzen zutela esan du Belastegik: "Hauek ardiak jetzi ahala, nik, esnea hartu, eta etxez etxe saltzeari ekiten nion". Egunero ehun litro baino gehiago saltzen zituzten orduan, eta asteburuetan beste artzain batzuei erosi behar izaten zieten esnea, bezero guztien eskaera asetzeko.

"Erraz saltzen genuen esnea, litroa 25 pezetatan, merkea zen! Gainera, eskaera ere handiagoa zen", azaldu du Belastegik; eta gogoratzen du behi-esne ekoizleek greba egin zuteneko urtea: "Besterik ezean, jende guztiak ardi-es-

UDAKO ARGAZKIEN XI. GOIENA LEHIAKETA

**Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak eta irabazi sari bikainak!**

Argazki guztiak fotoblog honetan: *blogak.goiena.eus/argazkiak*

Baita hemen ere: udakoargazkiak udakoargazkiak


NEREA MENDIOLA. 2014ko Sari Nagusiaren irabazlea.


XABIER URTEAGA. 2014ko bigarren sariaren irabazlea.


ITXASO KALBANO. 2014ko hirugarren sariaren irabazlea.

Har ezazu parte!

**Oinarriak***

**Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake. Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:**
**- Egilearen izen-abizenak eta herria.**
**- Harremanetarako telefonoa.**
**- Argazkia noiz eta non ateratakoa den.**
**- Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.**

- **Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 10etik irailaren 20ra arte (biak barne).**
- **Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean, ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).**
- **Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.**
- **Irakurle/ikusleei aukera emango diegu argazki onenari botoa emateko blogean. Botoa ematen parte hartzen duten guztien artean beste sari bat zozketatuko da.**

- Bidali argazkiak eta datu GUZTIAK e-postaz: *argazkiak@goiena.eus* helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otalora Lizentziaduna 31, Arrrasate
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 9an jakingo dugu, Goiena paperean.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienako artxiboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

**HAR EZAZU PARTE SARE SOZIALETAN!**

- Twitter eta Facebook bidez ere parte har daiteke lehiaketan, honela: **Twitter bidez**, @udakoargazkiak helbideari aipamena eginda argazkia bidalita, eta argazkiaren deskribapena eginda. **Facebook bidez**, facebook.com/UdakoArgazkiak orriaren horman argazkia partekatuta, eta argazkiaren deskribapena eginda.
- Twitterrez eta Facebookez aurkezten diren argazkiak lehiaketako blogean agertuko dira, baina daukaten kalitatearen arabera argitaratuko dira Goiena paperean. Hau da, ez badaukate paperean argitaratzeko moduko kalitaterik, ez dira argitaratuko euskarri horretan, baina sari nagusirako kontuan hartuko dira.

* Oinarri guztiak: *ttiki.com/70956*

**Sariak**

**1. saria: Nikon D3200 reflex argazki-kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa. Aretxabaletako Begira argazki-dendaren eskutik.**
24 megapixel / Full HD bideo-grabazioa / 3 hazbeteko pantaila / Auto-fokatze sistema, 11 puntukoa / ISO 100-12.800 sentsibilitatea / Integratutako edizio funtzio ugari.






**2. saria:** Orioko Aisia hotelean, zirkuitu termala eta bazkaria edo afaria, Arrasate Bidaiak-en eskutik.
**3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.
**Herritarren saria:** Amazon Kindle liburu irakurgailua Arrasateko Eroski hipermerkatuaren eskutik.
**Boto emaileentzat saria:** Munduko kafe ezberdinen otarra, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ANTOLATZAILEA: goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK: Begira argazkilaritza; ARRASATE BIDAIAK; GURE AMETSA JATETXEA; Arrasateko hipermerkatua EROSKI zurekin; karibu munduko zaporeak karibumundukozaporeak.com

nea edaten zuen, eta gure salmentek asko egin zuten gora, baita lanak ere!".

Ordutik hona, baina, ohiturak asko aldatu direla uste du Aierdik. "Orain, denek supermerkatuetan saltzen duten kaxako esnea edaten dute, baita baserrikoek ere. Gure bilobek ere ez dakite baserriko esnea edaten, aparra eta esne-gaina kendu egiten dizkiote eta gure garaian hura jateko irrikaz egoten ginen!", dio.

Esnea bakarrik ez, gazta eta ogia ere saldu izan dute urte askoan. Ogia egiten hasteak bizimodua zaildu eta erraztu zien aldi berean. Izan ere, egunero eta jairik hartu gabe, 02:00etan hasten zuten eguna, goizean goizetik ogia egiten hasi, eta labekadaz labekada erantzuten zioten eskaera itzelari. Era berean, ordea, dirua "errazago" egiten zutela aitortu du Aierdik: "Irina kamioikadatan ekartzen genuen, hilean 12.000 kilo edo gehiago". Izan ere, bailarako herri askotan saltzen zuten ogia, Bergaratik hasi eta Aramaioraino.

Gaur egun, ordea, eskaerak behera egin du, eta senar-emazteak ere aspaldi erretiratu ziren. Horregatik, egubakoitzetan eta zapatuetan egiten dute ogia, semeen laguntzarekin. Horrez gain, artaldea 33 ardira murriztu dute.

**Erreleboa Aierdin**

"Badiugu hiru seme, baina hirurek lantegian egiten dute lan", dio Belastegik. "Laguntzen digute ogiarekin, baina ez dute artzaintzan lan egiteko asmorik etorkizunean", dio. Semeek denborarik ez, eta laguntzaile batek egiten ditu baserriko lan asko, duela 31 urtetik hona. "Hark egiten du gazta, ganaduari jaten ematen dio... edozein lan egiten du; oso mutil fina da", esan du Murgiondok.

**Artzaintzaren etorkizuna**

Aierdin gertatzen dena ez da, ordea, kasu isolatua. Azkenaldian, artzaintzak nabarmen egin du behera, eta, horregatik, senar-emazteek begi onez ikusten dute Artzain Eskolak eskaintzen duen laguntza. Dena den, ez dute uste nahikoa denik ofizioak jarrai dezan bermatzeko, arazoa ez baita ofizioa ikastea. "Guk lan eginez ikasi genuen artzaintzan, inolako eskolarik jaso gabe; beraz, gogoa duen edonork ere berdin egin lezake", diote.

"Oso zaila da gaur egun artzaintzatik bakarrik bizi izatea. oso enpresa handia izan beharko litzateke errentagarria izateko, eta aurrez baliabiderik ez dutenek, hau da, familiako baserririk, ganadurik, materialik eta lursailik ez dutenek, oso zaila dute zerotik hastea, nahiz eta diru laguntzak jaso", dio Aierdik.

Izan ere, uste du diru laguntzek bultzada ekonomikoa eman diezaiokete la artzainari, baina hori ez dela nahikoa egunerokotasunean eta modu jarraituan aurrera egiteko. "Etorkizuna gero eta beltzagoa ikusten diot artzaintzari, gaur egun ezin da-eta bertatik jornalik atera".



Meza nagusiaren irteera. | AMAIA TXINTXURRETA

# Munillak errefuxiatuak gogoan, Arantzazuko Amaren egunean

AMAIA TXINTXURRETA | OÑATI

Eguaztenean jende ugari bildu zen Arantzazuko Amaren eguna ospatzeko, eta bertan izan ziren hainbat ordezkari politiko.

Meza nagusiaren aurretik elkartu ziren Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburu Arantza Tapia, Segurtasun sailburu Estefania Beltran de Heredia, Legebiltzarreko presidente Bakartxo Tejeria, Batzar Nagusietako presidente Eider Mendoza, Gipuzkoako Diputatu Nagusi Markel Olano, hainbat diputatu, Oñatiko alkate Mikel Biain eta Oñatiko zinegotziak.

Aurreskuaren ostean, meza entzutera sartu ziren guztiak, EH Bilduren Oñatiko udal ordezkariak izan ezik.

Donostiako gotzain Jose Inazio Munillak esan zuen meza, eta Siriako eta Irakeko errefuxiatuak izan zituen gogoan. Hauxe esan zuen, besteak beste: "Bidea galduta eta nahastuta gaude, artzainik gabeko ardiak bezala". Eta gehitu zuen elizbarrutiko Caritas aztertzen ari dela zer egin kalteak jasaten ari direnei laguntzeko.

Urtero bezala, presoen aldeko aldarria egin zuten hainbat lagunek. Aurten, ordea, Ertzaintzak zeuden tokitik mugitzeko eskatu zien, eta Biainek "lotsagarritzat eta lotsagabetzat" jo du Ertzaintzaren jarrera.

# UNED-Bergarak prest dauka aurtengo ikasturteko eskaintza akademikoa

## Ikasketa ofizialez gain, hainbat diziplinatako ikastaro autonomoak ere eskainiko dituzte

J.B. | BERGARA

Ikasturte berrian 25 titulazio baino gehiago eskainiko dituzte UNED-Bergaran, eta eguaztenean egin zuten aurkezpen informatiboa Donostiako Koldo Mitxelena Kulturgunean.

Aurten, ohiko gradu, master eta doktoretzez gain, graduondokoetan ere eskaintza zabala dauka zentroak.

Unibertsitate mailako tituluetara sartzeko ikasketarik ez dutenek ere badute tartea eskaintza horretan, UNEDek unibertsitate sarrera ikastaroa eskaintzen baitu. Gainera, adina arazo bihur ez dadin, 25 urtetik gorakoak eta 45 urtetik gorakoak bereizten dituzte.

**Hizkuntzak eta ikastaroak**

Zentroak berezko metodologia eskainiko die euskara, ingelesa, alemana eta frantsesa ikasi nahi duten ikasleei. Aukera ona da, besteak beste, lanean edo ikasketetan murgilduta dabiltzanentzat, ikastaro horiek Urrutiko Unibertsitate Zentroaren bitartez eskaintzen baitituzte.

Horretaz gain, diziplina askotako ikastaroak antolatzen ditu autonomoki UNED-Bergara Ikastetxeak: adibidez, Psikomotrizitate Eskola, Liburutegi Laguntzaile Eskola, Osteopatian Trebakuntza, Idazle Eskola, Gizarte-Laguntzarako Ikastaroak KutxaZabal Debaren eskutik, Kutxaren eskutik Kutxa Ikasgelak, Uda Ikastaroak, Mintzapraktika Ingelesez ikastaroa, Haurrak eta Musika Ikastaroa.

**Informazioa eta izen-ematea**

Xehetasun guztiak *Uned.es/ca-bergara* helbidean aurki daitezke, edo posta elektronikoz (*info@bergara.uned.es*) zein telefonoz (943 76 90 33) eskatu.



## ZABALIK

**IÑAKI GOITIA**
goiena.eus/komunitatea/



# Izatera iritsi

Amildegiaren ertzean dagoen gizakiak bi sentimendu kontrajarri jasaten ditu: eroriko den beldur pairaezina, batetik; amildegira jauzi egiteko tentazio ikaragarria, bestetik. Askatasunarekiko bertigoa deritzona. Hau da existentzialismoaren antzeztokia eta Soren Aabye Kierkegaard bere protagonista nagusia. Ez bakarra, baina. Zu eta ni, neurri berean gara dilema honen protagonista, Jean Paul Sartre, halaber, zeinarentzat gizakia aske izatera kondenatuta dagoen. Ezereza da mundura jalgitzean, bere existentzia esentziaren aurretikoa baita. Gizakiaren esentzia bere existentzian datza, eta hasierako ezereza, egunerokotasuneko hautuen bidez bihurtzen du bere esentzia. Hautu bakoitzarekin bere izatea xedatzen du eta ezinezko zaio hautaketaren ukazioa; ez hautatzea jada hautu bat da.

> **Herstura existentzial hau bizitzera gonbidatu beharra dago**

Aukeratu behar honek, ordea, herstura pairaezina dakarkio gizakiari, hautu bakoitzak garrantzi ontologiko bat azaleratzen baitu, norbanakoaren izatea eraikitzearena eta munduaren pisua jasatearena, bere osotasunean. Babesgabe ikusten du bere burua, zaurgarri hautuen amildegiaren ertzean. Eta puntu honetan gizakiak determinismoak sortzen ditu, bere erantzukizuna saihestuz eta berezko zaion askatasuna ukatuz. Balirudike aitzakia duela ihesbide eta aukeratu beharraren herstura saiheste aldera besteengan jartzen du erantzukizuna, bere burua zurituz.

Hautuen porrotei begietara so egin beharra dago, batzuen batzuk bazterrean, burutu gabe geratuko direla baietsiz. Are gehiago, heriotzak berak –ukatu arren gizakion halabeharrezko dimentsioa denak– mugatu egiten du denboran izatearen aukera.

Mugatuak gara, beraz, sinkronikoki zein diakronikoki. Herstura existentzial hau bizitzera gonbidatu beharra dago, alabaina, ezerezaren aurrean jarri eta are gizakiago egiten gaituenez. Aitzakiarik gabe.

## USTEAK USTE

**MAIDER ARREGI** | marregi@goiena.eus

# Lan egiteagatik ordaindu?!

Askoren egoera da langabezian urteak egotearena; lan ebentualekin aritzea eta hipoteka ezin ordaindu egotea; familia mantentzeko hilabete bukaerara ez iristea… Gizon batek, semearen egoera latza jasan ezin zuela-eta, prentsan iragarki bat jarri du. Semea baldintza onekin kontratatzen duen enpresariari 5.000 euro emango dizkiola dio iragarkiak. Bere bizitzako aurrezkiak sakrifikatzeko prest dagoela. Noraino iritsi behar dugu? Lana edukitzeagatik ordaindu beharra? Ez dut uste hori denik bide zuzena; gizartearen egoera sozio-ekonomikoan aldaketak behar direla ados nago, baina horrela ez; hori ez da-eta lan bila dabiltzanen aldekoa.

## MARRAZKIZ

**UNAI BUSTURIA** | goiena.eus/komunitatea/




## HANDIK ETA HEMENDIK

# Zaharrak

**Garbiñe Ubeda**
http://goo.gl/czBCmc

Uda batez, zahar-etxeetako panorama ezagutzea egokitu zitzaidan, zentrorik onenetakoa omen den batera sarri joan beharra.

Ez zen toki atsegina, dekorazio berrituak eta egoiliarrek hilero ordaindu beharreko dirutzak halakorik iradoki bazezaketen ere.

Izatez, hotel itxurako presondegia iruditu zitzaidan, herri barnetik urrunegi kokatua eta irisgarritasun zailekoa, non zaharrei munduarekiko harreman naturala ukatzen baitzitzaien.

Non kanpoko bisitarik ez zeukatenak gurpil aulkian jarri, egongelara eraman, pilula dosia irentsarazi eta telebista ozenegi baten aurrean uzten baitzituzten, jende ospetsua larrutzeko programa gogaikarrienari begira.

Non denek bekaizti erreparatzen baitzioten elkarri, zaindaria haietakoren bati xeraz mintzatu bazitzaion.

Non, denak hain ongi zainduak izaki, pasibotasunean zain egotea beste aukerarik ez baitzegoen: jantzen nork lagunduko, otordua noiz iritsiko, bisitan nor etorriko…

Evan Briggs dokumentalgileak zaharrak eta haurtxoak batzen dituen zaindegia hartu du gaitzat, Mikel Garcia Idiakezen bloga tarteko dela jakin dudanez.

Jendea adinka bereiztearen ajeak jarri nahi ditu agerian, eta elkarrekin iraganik nahiz etorkizunik partekatu ezin dutenen harreman simple eta egiatia.

*Present Perfect,* hunkigarria.

# Denbora joan badoa

**Marijo Deogracias**
http://goo.gl/RKaUWa

Karmele Jaiori entzun nion, *Orain hilak ditugu* bere azkeneko liburuaren harira, inguruan jendea hiltzen hasten denean norbera ere ohartzen dela heldua dela, zahartzen hasi garela, alegia.

Tira ez zuen horrela adierazi, hitzez hitz, baina gure ziklo bitalaren beste fase batean sartzea legez irudikatu nuen.

Eta, bat-batean, ideia horri bueltaka, ohartu naiz gizonezkoak direla hiltzen lehenengoak.

Gutxienez, ingurukoen kasuan:

Itziarren aita, Monikaren aita, Felixen aita, Silbiaren aita, Enekoren aita, Rakelen aita.

Nire adin ingurukoen aitak, den-denak.

Bizitza legea da heriotza.

Azkenean hiltzeko jaio baikara.

Baina, joe!

Errealitate horrekin tupust egitea ez da inon planetan aurreikusten.

Are gehiago, esango nuke, ihes egiten diogula ideia horri.

Argi gera dadila, hala ere, ez dudala beste aita baten heriotzarik desira.

Anekdota bat baino ez da hau, burura etorri zaidan gogoetatxoa.

Baina, arren, aprobetxa dezagun daukagun denbora, joan badoa-eta!

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
**Argazkilaria** Imanol Soriano
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.com

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 00
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 18.850 ale
**Difusioa:** 18.507 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

## Eskerrik asko, Arrate

**Miren Gurutze Arana**
Bergara

Eibartik etorri bazinen ere, berehala bihurtu zinen *Bergarakua,* bertako pediatra izateaz gain, beste esparru askotan inplikatu zinen-eta: euskara munduan, Orfeoian, Udalean…

Nik neure semearen pediatra zinelako ezagutu zintudan, orain dela hogeita bi urte. Eta ez zinen, ez, edonolako pediatra, ez! Amaberriak ginenontzat, gertutasun handiz tratatzen gintuzun profesionala zinen; beti laguntzeko eta aholkuak emateko prest, mimo eta profesionaltasun handiz jokatzen zenuen. Berehala ohartu ginen zure lana gustuko zenuela. Hori profesionaltasuna eta pazientzia zurea! Konfiantza osoa genuen zuregan.

Urte batzuk pasa ondoren, Orfeoian sartu zinen eta elkarren ondoan abestea tokatu zitzaigun, eta han, nolako pertsona zinen ezagutzeko aukera eman zenidan. Lagun ona izateaz gain, langile sutsua zinen, beti antolakuntzarako prest; baikorra benetan! Beti ingurukoak animatzen –"Baietz! Guk nota hori eman dezakegula, oso altua izan arren!"… eta horrelakoak–. Orfeoiko lehendakari zinela ere makina bat lan egin zenuen.

Hutsune handia utzi duzu, Arrate, bai Orfeoian, bai anbulatorioan, baita herrian ere; horregatik, eskerrak eman nahi dizkizugu, bihotz-bihotzez, zu ezagutzeko eta maitatzeko eman diguzun aukeragatik.

Zurekin pasatako egunek poztuko dituzte gure oroitzapenak.

Muxu handi bat zuretzat, Arrate.

## Irailaren 27an haizea egingo du

**Julen Mendizabal Elezkano**
(Osnyko kartzela, Frantzia)
Arrasate

Aurtengo Gudari Egunean, Katalunian haizea egingo du, askatasun haizea. 40 urte beteko dira espainiar faxismoak FRAP erakundeko hiru kide ETAko bi kiderekin batera fusilatu zituenetik. 40 urte, Juan Paredes Manot *Txiki,* ETAko militantea, Katalunian bertan, Collserolako mendilerroko hilerriaren alboan guardia zibilek fusilatu zutela.

Extremadurar jatorrizko zarauztarrak, 21 urterekin, *Eusko gudariak* abestuz, zutik euskaraz egin zien bere hiltzaileei, damurik agertu eta barkamenik eskatu gabe, heriotzaren aurrean harro, lasai eta duin, bere senideei idatzi bezala, askatasun haize bihurtuz.

Lau hamarkada geroago, katalan guztiak ez, baina asko hautestontzietara deituak dira. Hauteskunde hauek ez dira aukeratzeko izango, hauteskunde hauetan erabakitzera doaz; ea pitzatu diegun sistema politiko, ekonomiko eta sozial espainiarrarekin hondoratu edo prozesu era(lda)tzaileari ekin, ea *Txiki* erail zuten faxismo berberaren menpe jarraitu ala duela hiru mende indarkeriaz galdu zuten burujabetza berreskuratu, ea hizkuntza, kultura eta nortasuna suntsitu nahi dietenen azpian segi edo egunero ebasten dieten askatasuna erdietsi… desobedientzia, aldebakartasuna eta erabakitzeko eskubidearen ariketa baketsu eta demokratikoa, alegia.

Irailaren 27an, haize erauntsi bat bezala, Collserolako mendilerrotik irrintzi ozena hedatuko da. Bai, 40 urte luze ondoren *Txiki* da berriro, eta independentistok, izan feminista, ezkertiar, ekologista, euskaltzale, demokrata, internazionalista edota abertzale, irrintziari irrintzika erantzungo diogu; espetxeetatik, sasitik eta baita kaleetatik ere. Irrintziak euskal mendi eta Kantauri itsasotik, bai edo bai herri aske batean zoriontsu bizitzeko borrokatzen garenok, Kataluniako herriari, gure kuraia eta samurtasun osoa eskaintzeko.

*La victòria és nostra! Visca els Països Catalans Lliures!*

## Utopia hutsa

**Jon Otero Uribarren**
Arrasate

Honako honek ideia batzuk jaurtitzea beste helbururik ez du, ikusita zein zailtasun duen burutzeak telebista edo *kaxa tonto*-aren aurkako iraultza bat.

Telebista 20ko hamarkadan asmatu zuten, baina hemen, Espainiako Estatuan, 58an hasi zen emititzen. Produktua merkatu orduko eta herria osoak erosi 1970 inguruan izan zen. Zenbat aldatu den mundua ordudanik. Irratiak eta musika diskoak joera bera dute, nahiz eta txikiagoa izan. Hots, sedentarismoa, giro inpertsonala, erdal eskaintza zabala etxe barnean, memelokeria. Zer du kalitate oneko telebistak? Igortzen duen guztiaren %1 edo %2 oso ona da, baina gainontzekoa zaborra da edo sobera dago. Kotilleoa, morboa, pornoa, bortxakeria, iragarkiz josia, martxa azeleratua albistegietan-eta, arrotz elektronikoa familia giroaren ordez, sormenik gabeko kontsumoa, gehiegizko kontsumoa, ia lau ordu pertsonako egunean, tontakeria asko igortzen du, lehiakeria, diru joko txepelak, eta abar, eta abar.

Merkea denez –zergetatik dirua badoa gailu horietara–, kontsumoa gehiegikeria hutsa da. Eta hor dago koxka, ez dagoela modurik kontsumo orduak txikitzeko, sormen handiagoko aisialdietan. Populuaren %99k du telebista etxean, eta, nola ez, zaborra ikusteko tentaldia.

Mentalitatea aldatu egin behar da, eta horretan, telebista, irratia eta disko trinkoak oztopo handia dira. Kultura, albisteak, eta abar jasotzeko mila iturri ditugu, sormena lantzen dutenak, edo pasibo kontsumo txikiagokoak. Zinez, mundu mailan, ez bakarrik hemen, pentsatu beharko genuke gailu horiek debekatzea, egunero lau ordu ez galtzeko.

Interneten, noski, telebista eta irrati saila ezabatu egin beharko litzateke. Berreskuratu behar ditugu diskotekak, diskoa ezabatuta eta zuzeneko herri musikaz, berreskuratu behar dugu tabernetako aspaldiko herri giro sanoa, berreskuratu behar dugu etxeetako familia giro beroa, emankorra. Gizatasuna ez ote da hori? Gizatasuna gailentzen den giroa, bere apaltasunean.

Nola konbentzitu herria etxeetako gailuok puska edo bazter ditzan?

Kulturan sedentarioak ez bagara, gero, gero bakarrik, aurrera aterako ditugu beste ekimen asko.

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

Debagoieneko
**PROFESIONAL LIBERALAK**

### ABOKATUAK

**BERNARDINO MAIZTEGI**
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

**BEGOÑA LASAGABASTER**
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

**RAFAEL ARANBURU**
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

**ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)**
ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

### AHOLKULARITZAK

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

**ASEGI AHOLKULARIAK**
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

**TBG AHOLKULARITZA**
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

**ZENBAKI AHOLKULARIAK**
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

### ARKITEKTOAK

**BIARK ARKITEKTOAK**
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

### ARKITEKTO TEKNIKOAK

**JESUS LASKURAIN PEREZ**
BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**
ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

## DUELA 10 URTE

2005-09-09

### Gandiaga topagunearen irekiera

Arantzazuko Amaren egunaren eta Arantzazuko basilikaren 50. urteurrenaren barruan inauguratu zuten Gandiaga topagunea. Askotariko topaketetarako gunea izateaz gain, artzain munduaren egoitza eta Debagoieneko Turismo Bulegoa egokitu zituzten bertan. Inaugurazioan egon ziren, besteak beste, Juan Jose Ibarretxe lehendakaria eta orduko Gipuzkoako ahaldun nagusi Joxe Joan Gonzalez de Txabarri.


Ibarretxe eta Gonzalez de Txabarri. | GOIENA

2005-09-11

### Herri afaria lehen aldiz Gatzagan

Leintz Gatzagako andramaixetan lehen aldiz egin zuten herri afaria duela hamar urte. Aurreikuspen guztiak gainditu zituen aldaketak, eta ordutik hona afaria egiten dute bazkaria egin beharrean. 100 lagun gerturatzea espero zuen Udalak, baina, azkenean, 138 herritar elkartu ziren pilotalekuan afaltzeko. Gatzagako *sorginek* eta Periko sukaldaria buru zuen Ekipotan taldeak prestatu zuten lehen afari hura.

## DUELA 5 URTE

2010-09-13

### Beste Bat! taldearen sorrera

St. Pauli futbol taldearen omenezko Beste Bat! lagunartea sortu zuten zenbait arrasatearrek. Sorreran, Arrasatekoak ziren bazkide gehienak, baina Bizkaia, Nafarroa, Irlanda eta Alemaniako kideak ere batu ziren abentura berrira. Gaur egun 30 bat bazkide ditu eta urtero antolatzen dute Beste Bat! Eguna.

## HERRITARRAK

ARRASATE

**Dirk Morenweiser** Arrasaten bizi den alemaniarrak eta Alemanian jaiotako arrasatearrak Beste Bat! lagunarteaz, blogen munduaz eta 1994tik bizileku duen herriaz egin du berba, luze eta zabal | JOKIN BEREZIARTUA

# "Kuadrillak berebiziko garrantzia dauka hemen, onerako eta txarrerako"

Bi hamarkada luze daramatza Dirk Morenweiser-ek (Eckernförde, Alemania, 1964) Arrasaten bizi izaten. Alemana irakasten dihardu Mondragon Linguan, eta aisialdian, irakurtzea, idaztea, argazkilaritza, futbola, bidaiatzea eta teknologia berriak ditu pasio. Gustuko duen Arrasateko tabernetako baten egin du hitzordua GOIENArekin.


Dirk Morenweiser, Monterron parkean, Arbolapeta atzean duela. | JOKIN BEREZIARTUA

**Noiz eta zergatik heldu zinen lehen aldiz Arrasatera?**
1994an heldu nintzen lehenengoz Arrasatera, lan kontuengatik. Lehenago Gasteizen eta Donostian bizi izan nintzen, eta han, Arrasateren gainean ondo egin zidaten berba. Gainera, herri txikiago baten bizi nahi nuen, eta, beraz, probatzea erabaki nuen.

**Zaila izan zen herrian integratzea?**
Hasieran, atzerritar moduan integratzea zaila da edozein kulturatan, edozein herrialdetan. Euskal Herriari dagokionez, bi faktore nagusi nabarmenduko nituzke: euskara eta kuadrilla bateko parte izatea. Gazteleraz ondo defendatzen banaiz ere, badakit euskara jakiteak beste hainbat ate irekiko zizkidala. Bestalde, haurtzaroa eta gaztaroa ez konpartitu izanak, kuadrillarik ez izateak, zuzenean eragiten digu bizimodu berri bat abiatu nahi izan dugunoi. Eta hemen kuadrillak berebiziko garrantzia dauka, onerako eta txarrerako.

**Arrasatear sentitzen zara?**
Bai. 21 urte daramatzat hemen bizi izaten, hemen ezkondu nintzen eta nire alaba hemen ari da hazten. Oso gustura nago. Arraroa egiten zait nire buruari entzutea etxera noala Alemaniara noanean, eta bueltan natorrenean ere berdina sentitzen dut. Alemaniatik faltan igartzen ditut familia eta lagunak, eta baita, esaterako, Berlin edo Hanburgo

> "Beste Bat! taldean 30 bazkide gara; oso ondo pasatzen dugu; bai, horixe!"

> "Arrakastatsuagoak lirateke blogak gai zehatzetan zentratuko balira"

moduko hiriek duten kultura eskaintza. Bi hiri horiek itzelak dira. Era berean, bizi maila hobea da Alemanian, zerbitzu publikoak eraginkorragoak dira.

**Ezaguna zara, adibidez, Beste Bat! lagunartearen sortzaileetako bat izan zinelako. Nola sortu zen?**
Beste Bat! ekimena 2010ean sortu zen. Aggressive Combat talde arrasatearra Alemanian egindako bira batetik bueltan zetorren eta kontzertuetako bat Hanburgoko Sankt Pauli auzoan eskaini zuten. Liluratuta etorri ziren auzoko eta St. Pauli taldearen Millerntor estadioko giroaz. Orduan akordatu ziren talde horretako jarraitzailea nintzela eta proposatu zidaten lagunarte bat sortzea. Hasieran, nahiko eszeptikoa nintzen, baina dena ondo irten zen eta dagoeneko pasatu dira bost urte. 30 bat bazkide gara eta hainbat alditan egon gara Hanburgon St. Pauli taldearen partiduak ikusten eta auzo hartan bizi den giro bereziaz gozatzen. Klubeko beste lagunarte batzuekin harremanetan gaude eta urtero antolatzen dugu Beste Bat! Eguna. Oso ondo pasatzen dugu; bai, horixe!

**Etorkizunerako planen bat? Ametsen bat?**
Etorkizunerako plan zehatzik ez dugu oraindik, baina ametsak ugari. Ametsetako bat litzateke St. Pauli taldea Euskal Herrira ekartzea denboraldi-aurrea hemen egin dezaten. Kirol zuzendariok: deitu Beste Bat! lagunarteari, lagunduko dizuegu-eta. [Barre]

**Blogaria ere bazara. Zer da blogetatik gehien gustatzen zaizuna?**
Bloga oso erreminta interesgarria iruditzen zait. Jendeak bere ideiak edo zaletasunak parteka ditzake eta horretarako hainbat baliabide eskaintzen ditu blogaren munduak, argazkien edota MP3 zein MP4 artxiboen bitartez, adibidez. Hori guztia parteka daiteke, elkarri eragin. Hori bai, uste dut blogak arrakastatsuagoak izango liratekeela gai zehatzetan zentratuko balira, gai baten gaineko guztia barne hartu beharrean.

**Aurkeztu iezaguzu, bada, zure bloga, sareko zure txokoa.**
Duela hilabete batzuk ateen gaineko blog bat daukat. Bai, ateak. Izugarri gustatzen zaizkit; hainbat izan daitezke ateei zein gizakiei jarri ahal zaizkien adjektiboak: zabalak, itxiak, politak, itsusiak, aspergarriak, modernoak, misteriotsuak... Horietako batzuk benetako artelanak dira. Beraz, ate deigarriren bat ikusiz gero, ez izan zalantzarik: atera argazkia eta bidali blogera! [Honako hau da blogaren helbidea: *http://tuerenateakdoorspuertas.blogspot.com.es*] Eta, bide batez, mila esker orain arte argazkiak bidali dizkidazuenoi!

## NIRE HERRIAN

**:) PERTSONAK, ZALANTZA BARIK**

Herri honen altxorra herritarrak dira, zalantza barik. Jende ona, alaia, zentzuduna, iniziatibaduna eta ipurterrea ezagutzeko aukera izan dut. Gainera, Arrasatek beharrezko zerbitzu guztiak eskaintzen ditu, eta oinez mugi zaitezke. Hori guztia pribilegio hutsa da. Gainera, hiri handiagoak eta itsasoa oso gertu ditu.

**:( KUTSADURA AKUSTIKOA**

Herri honetatik gutxien gustatzen zaidana da ibilgailuen zirkulazio handia, eta horrek eragiten duen kutsadura akustikoa. Ibilgailu larregi dabiltza herri barruan. Horrez gain, Arrasaten bizi izatea garestia dela iruditzen zait. Bestalde, pena da gazte arrasatearrek gurasoen etxetik irteteko dituzten zailtasunak izatea.

# HERRIAK

OÑATI




Jesus Kortabarria, Mikel Kortabarria, Ainhoa Zumalde, Jabi Baltzategi eta Eneko Ugalde Oñatiko tenis pista estalian. | O.E.

DATUA

**2**

TXAPELKETA

Udaberriko eta San Migeletako tenis txapelketak antolatu izan dituzte urtero.

# Tenisean ere bai

- Urrian jarriko da martxan tenis eskola eta izen-ematea zabalik dago
- Hasi, hobetu zein lehiatu gura dutenendako saioak eskainiko dituzte

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Oñatin dauden bi tenis pistetako bat eraberritu egin du Udalak, eta Aloña Mendiko tenis saila hasi da dagoeneko horri etekina ateratzen, indarberrituta. Tenis eskola jarriko dute martxan ikasturte honetan. Hala, euren kabuz tenisean jokatu gura dutenak ez ezik, tenisean jokatzen ikasi gura dutenek ere herrian bertan izango dute horretarako aukera. Izan ere, badago teniserako zaletasuna Oñatin.

**Hiru maila**

Udako udal kirol eskaintzan ume askok ematen dute izena tenisean jokatzeko. Eskola kirolaren barruan urtean behin antolatzen ohi duten tenis jardunaldirako, 200 gaztetxok baino gehiagok ematen dute izena urtero. "Baina ikusi dugu umeen eta gaztetxoen artean ez ezik, nagusien artean ere badagoela interesa tenisean jokatzeko", dio Ainhoa Zumalde tenis jokalariak.

Interes horrek tenis eskolaren asmoa aldatu egin du, neurri batean. "Tenis eskola honetan hiru maila ezberdinetan emango ditugu saioak. Batetik, hasiberriei zuzendutakoak egongo dira aukeran; hau da, inoiz jokatu ez eta ikasi egin gura dutenendako. Jokatzen jakin bai eta jokoa hobetu gura dutenendako taldeak ere antolatuko ditugu, eta baita lehiaketa mailan aritu gura dutenendako ere. Hasiberriendako taldeetan umeak genituen buruan, 10 urtetik gorakoak, baina, nagusien artean sortu den interesa ikusita, nagusien taldeak ere egingo ditugu", dio Ainhoa Zumalde gazte oñatiarrak. Eskola horiek emateko begiraleak behar dituzte. Zumalde bera izango da irakasleetako bat. "Taldeak egin ahala ikusiko dugu zenbat irakasle behar ditugun. Dena dela, dagoeneko hasi gara kirol hau ondo ezagutzen eta menperatzen dutenekin berba egiten. Lehiaketa mailan jokatu gura duten herritar asko elkartzen badira, adibidez, badugu buruan maila profesionalean jokatu duen eta Bergaran bizi den neska baten izena", dio oñatiarrak.

Maila batean edo bestean apuntatzeko epea zabalik dago dagoeneko. Zubikoa kiroldegian bertan eman behar dira datuak eta irail osoan dago horretarako aukera. Ikasturtea herriko jaien ostean hasiko da, urrian. Izena ematen dutenek erraketa baino ez dute eraman behar, pilotak tenis pistan egongo dira erabilgarri. "Komeni da poltsikodun prakak eramatea, pilotak sartzeko", dio Zumaldek.

Baina tenisean jokatzen ikasteko bakarrik ez dira Oñatiko kiroldegian dauden bi tenis pistak. Kirol hori praktikatzeko ere badira; hala, hemendik aurrera ere tenisean jokatu gura duen edonork aloka ditzake. Betiko moduan, kiroldegiko sarreran egin beharko ditu alokatzeko tramiteak.

## Profesional mailako partiduak joka daitezke Oñatiko tenis pistan

Bi tenis pista daude Oñatiko Zubikoa kiroldegian, eta horietako bat eraberritu egin dute. Estali egin dute, argiteria berria jarri eta lurzorua eraberritu. Apirilean bukatu zituzten lanak, eta udaberriko txapelketa pista berrian jokatu zuten. Laster hasiko da San Migeletako txapelketa, eta hori ere hantxe jokatuko dute.

Profesional mailako tenis partiduak jokatzeko baldintzak betetzen ditu pista berrituak. Oñatin bertan diseinatutako estalkia jarri diote tenis pistetako bati. Lana taldeko Elur enpresak egin du tenis pistako egitura berria, egitura berezia, zalantzarik gabe. Egurrezkoa da, eta ez da opakua, argiari sartzen uzten dio dituen xaflen bitartez. Forma ere berezia du, olatu baten forma, hain zuzen ere. Punturik garaienean, zazpi metroko altura du. Sabaiak argia sartzen uzten badu ere, led argiteria berria jarri dute. Udaleko Kirol Sailak garrantzi berezia eman gura izan dio argiteriari, pista eguneko ordu gehienetan aprobetxatu ahal izateko eta, aldi berean,



Led argiteria. | O.E.

jokatzean trabarik ez egiteko. Euriagatik pila daitekeen ura kanalizatzeko lanak ere egin dituzte, eta pistaren lurzorua berritu egin dute. Erabili duten materialaren zazpi kapa ditu eta kolore urdinez margotu dute; Dubain —Persiar golkoa— jokatu zuten txapelketa



Olatu formako egurrezko zapaia. | O.E.

batean ikusi zituzten pista urdinak udal ordezkariek.

Jokalarien iritziak eskatuta, orain arte jasotako denak oso onak izan dira. Beste herri batzuetako kirol teknikariak ere egon dira tenis pista hori ikusten.

# Tailer berritua martxan jarrita bete ditu 25 urte Gureak-ek Arrasaten

## Udalak utzitako 800 metro koadroko lokala baliatu dute fatxada txukundu eta irisgarritasuna hobetzeko

**M. TXINTXURRETA / J.B.** | ARRASATE

Atzo goizean inauguratu zuen Gureak Taldeak Arrasateko lantoki berritua, eta bertan izan ziren, besteak beste, Gureak Taldeko presidente Iñaki Alkorta eta Maria Ubarretxena Arrasateko alkatea; Inazio Azkarragaurizar eta Xabier Zubizarreta alkate ohiek ere hartu zuten parte ekitaldian. Udalak tailer zaharraren ondoko 800 metro koadroko lokala utzi zion enpresari, eta hori aprobetxatu dute hobekuntzak egiteko.


Egungo alkatea eta alkate ohiak atzo, Gureak–eko ordezkariekin. | IMANOL BELOKI

Duela 25 urte jarri zuen martxan Gureak-ek Arrasateko lantokia, eta azken bi hilabeteetan egin dituzte berrikuntza lanak. Obrak, batik bat, fatxadan eta sarreran egin dituzte, lantokia irisgarriagoa izan dadin.

### Kalitate baldintzak betetzen

Egun, 147 pertsonak egiten dute lan Musakola auzoko lantokian, eta, horietatik, gehienek dute ezgaitasunen bat. Iñaki Alkortaren arabera, bezeroak geroago eta zorrotzagoak dira: "Automobilgintzarako piezak egiten ditugu eta erosleen baldintzak geroago eta zorrotzagoak dira, oso kalitate maila altuak eskatzen dituzte. Guk baldintza horiek guztiak betetzen ditugu". Arrasateko lantegian ekoizten dituzten piezen erosleen artean daude, besteak beste, Valeo Iluminacion eta TRW enpresak. Copreciren balbulen muntaian eta hasieratik bezero den Alejandro Altunarendako (JMA) ere jarraitzen dute lanean.

### Egokitutako lana da erronka

Gureak Taldeak urteurren bikoitza betetzen du aurten. Izan ere, batetik, 40 urte dira Atzegiren ekimenez Bergarako lehen lantegia zabaldu zela, eta, bestetik, Arrasatekoak 25 urte bete ditu aurten. Ezgaitasuna duten pertsonei egokitutako lanpostu bat eskaintzea da Gureak Taldearen egungo "erronka nagusia". Horrek eragin die jarduerak dibertsifikatu behar izatea; egun lau dibisio dituzte: industria, zerbitzuak, marketina eta langileen garapena –Arrasateko tailerrean formaziorako txoko bat ere egokitu dute. 1975ean Atzegiren eskutik sortu zen enpresak 5.000 laguni ematen die lana gaur egun; horietatik %83k dute ezgaitasunen bat.


Herriko Plazatik Goikobalurako kalejira, iazko ospakizunean. | IMANOL SORIANO

# Erromeria antzinako erara, zuztarrak errotzeko asmoz

## Irailaren 19rako 'Goikobaluko Erromerixie' antolatu dute, hirugarren urtez; egun osorako plana izango da

**J.B.** | ARRASATE

Antzina ohikoa zen iraileko hirugarren zapatuan arrasatearrak Santa Barbara parkeko Goikobalu zelaira igotzea erromeria ospatzera, eta ohitura hura berreskuratzeko lanean dihardu Zuztarrak Errotuz taldeak herriko hainbat elkarterekin elkarlanean. Data mantendu dute, eta, beraz, aurtengo erromeria irailaren 19an izango da, hirugarrenez: 13:00etan kalejira abiatuko dute Portaloitik eta 13:30ean Herriko Plazan elkartuko dira festa giroan Goikobalurantz igotzeko: "Alde zaharrean dauden edo egon diren ate ezberdinetatik igaroko da kalejira", adierazi zuen erromeriaren aurkezpenean taldeko kide Xabier Zubizarretak. 14:00etan txalapartariak, bertsolariak, dantzariak, gaiteroak, trikitilariak eta txistulariak elkartuko dira Goikobalun. 15:00etan hasiko da *zeuk eruen zeuk jan!* bazkaria –edaria antolakuntzak jarriko du–, eta, beraz, parte hartzaileek janaria etxetik eraman beharko dute.

Bazkalostea girotzeko, kantu herrikoiak eta albokariak izango dituzte, besteak beste, eta 17:00etan dantzaldia hasiko da Lidek eta Eneritzek gidatuta. 18:30ean jaitsiko dira Herriko Plazarantz. Antzina euria eginez gero astebetez atzeratzen zen ospakizuna baina aurten Arizmendi Ikastolaren kiroldegia erabili ahalko dute.

### Goikobalu berreskuratu guran

Santa Barbara edo Goikobaluko parkea herritarren bilgune gisa berreskuratu nahi dute Zuztarrak Errotuz taldeko kideek. Izan ere, Arrasateren erdigunean egonda ere, erabilera txikia ematen zaiola uste dute.




### Uribarri-Erguin auzoko jaiak ospatuko dituzte bihar, erretiratu elkarteak antolatutako ekintzei esker

Uribarri-Erguin auzoko jaiak Toki Argi erretiratu elkarteak antolatu ditu aurten, jai batzordeak ez duelako egitaraurik antolatu. Bihar izango dira ekintza guztiak, Usaetxe plazaren inguruan: puzgarriak goizez zein arratsaldez, kalejira trikiti doinuekin (12:30-14:30), salda eta txorizoa (12:30-13:30), Ikusi Makusi antzerki taldearen *Hitzak laino* ikuskizuna (19:15) eta dantzaldia (19:00-21:00).

### Datorren astean irekiko ditu Txatxilipurdik Erguin, Musakola, San Andres eta erdiguneko gazte txokoak

Gazte txokoak gertu daude ikasturte berriari ekiteko. Erguin, Musakola eta San Andres auzoetako gazte txokoak hilaren 15ean irekiko dituzte, eta martitzenetik egubakoitzera 17:00etatik 20:00etara egongo dira zabalik. Erdiguneko gaztegunea irailaren 18an irekiko dute, eta asteburuetan egongo da zabalik. Gaztegunearen ordutegia honako hau izango da: egubakoitzetan, 18:00etatik 21:00etara; eta zapatu eta domeketan, 17:00etatik 21:00etara.

### Birzikleta Azokarako materiala batuko du Udalak bihar goizez eta hilaren 15ean egun osoz Udal Azokan

Mugikortasun Astearen barruan ekintza arrakastatsuena izan ohi den Birzikleta Azoka hilaren 19an egingo dute. Bada, azoka horretarako, bizikletarekin zerikusia duen materiala bilduko du Udalak azokan, betiere, egoera onean eta garbi badago. Materiala uzteko bi egun egongo dira: bihar, 11:00etatik 13:00etara; eta hilaren 15ean, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Saltzen ez den materiala edo saldutakoaren zenbatekoa irailaren 24an itzuliko diote jabeari.



Oscar Garcia, udaletxean, asteon ateratako argazkian. | JOKIN BEREZIARTUA

**Oscar Garcia** | Obrak, Zerbitzuak, Mantenua eta Auzoak batzordea

# "Auzoak hobetuko ditugu herritar guztiek zerbitzu berberak izan ditzaten"

## Orain arteko azokaren proiektua alde batera utzi eta berria agintaldi honetan gauzatuko dela dio

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Obrak, Zerbitzuak, Mantenua eta Auzoak batzordeko burua da PSE-EEko zinegotzi Oscar Garcia (Arrasate, 1979). Agenda betea izan arren, aurkitu du tarte bat GOIENAri erantzuteko.

**Zein da zure eguneroko lana?**

Lan askorekin gabiltza. Goiz irteten naiz kalera, oinez. Uste dut garrantzitsua dela Arrasate oinez zeharkatu eta dauden arazoak eta gabeziak bertatik bertara ikustea. Gero, udaletxera etortzen naiz, teknikariekin berba egiteko dauden behar horien gainean, martxan dauden proiektuei jarraipena egiteko... Arratsaldeetan bilerak, batzordeak, osoko bilkurak... Lau urte barru arrasatearrek esango dute gure lana ona izan den edo ez.

**Zein da batzordearen eginkizuna?**

Udaleko batzorde garrantzitsuena dela esango nuke. Izenak berak dioenez, herriko obrak eta zerbitzu guztiak gure batzordetik pasatzen dira, eta lan handia dago hor bakarrik. Mantenua ere oso garrantzitsua da, eta, aldi berean, gure asmoa da erdialdearen aurretik auzoak lehenestea. Uste dugu erdigunea nahiko ondo zainduta dagoela, ekipamendu askotxorekin, eta kontrakoa gertatzen da hainbat auzotan. Auzoen egoera hobetu gura dugu, arrasatear guztiek zerbitzu berberak izan ditzaten.

**Ze proiektu duzue esku artean?**

Santa Marina eta Makatzena lotzeko igogailu bat edo eskailera mekanikoak jarri gura ditugu; guretako, berebiziko garrantzia duen obra da. Arrapala handiak daude inguru hartan eta auzotar batzuek –elbarriak, karroetan ume txikiak daramatzaten familiak...– arazo handiak dituzte etxera oinez joateko. Izan ere, herri barruan arrasatearrek autorik ez hartzea gura dugu. Finantzaziorako bideak aztertzen gabiltza, baina oraindik ez dugu ezer adostu. Bestalde, azoka ez dugu gaur egun dagoen lekuan ikusten; ez da normala soto batera joan behar izatea erosketak egitera, beste kokapen bat behar du. Ez diogu zentzurik ikusten azoka desfasatu horri aurpegia garbitzeko bi milioi euro bideratu izana, eta, horregatik, aurreko agintalditik zetorren proiektu hori bertan behera utzi dugu. Hortaz, azoka berria agintaldi honetan gauzatuko dela aurrera dezaket.

San Andresen urbanizazio lan batzuk egiteke daude; hala ere, ez dago dirurik guztia betera egiteko, eta epeka egin beharko dira gauzak.

**Obretan epeak ezin betetzea egunerokoa ogia dela dirudi...**

Bai, eta horren adibide da Zalduspe-Osinaga pasabidearen irekiera zenbait hilabetez atzeratu izana. Obrak ez dira matematikak, eta idatzita dagoen proiektua gauzatzerakoan hamaika arazo sor daitezke. Baina arazo horri aurreratzeko gaude politikariak eta teknikariak.

## Arrasate Ahal Duguk herritarren eskaerak jasoko ditu gaur Kulturaten (18:00), Batzar Nagusietarako

Arrasateko Ahal Dugu zirkuluak "topaketa zuzena" egingo du herritarrekin gaur Kulturateko Jokin Zaitegi gelan (18:00). Topaketan egongo da Gipuzkoako Batzar Nagusietako batzarkide Patricia Gete, herritarren, erakundeen eta elkarteen proposamen eta eskaerak entzun eta Batzar Nagusietara eramateko: "Gizarte zibilaren eta instituzioen arteko gertutasuna sustatu nahi dugu. Ekitaldia ez da hitzaldi edo mitin bat, helburua da parte-hartzaileek ikuspuntuak eta proposamenak partekatzea", adierazi dute.

# Kirolari lotzeko gonbita Udalaren eskutik

**J.B.** | ARRASATE

Ikasturte berrirako kirol eskaintzaren berri eman du Udaleko Kirol Zerbitzuak. Irailaren 14rako eta 15erako ate irekiak antolatu dituzte, egun osorako, Musakolako kiroldegian eta Uarkapen, herritarrek eskaintzan dauden jarduerak proba ditzaten. Aholkularitza zerbitzua ere egongo da, erabiltzaileek izan ditzaketen zalantzak argitzeko; hilaren 14an egongo da zerbitzu hori, 10:15ean.



*K-Strech* jarduera Uarkapen probatzeko aukera egongo da. | GOIENA

**Udako kanpainaren amaiera**

Bestalde, barruko eta kanpoko igerilekuak zabalik egongo dira udako denboraldiaren azken astean. Hau da, irailaren 14tik 18ra goizeko ordutegian (07:00-14:00) barruko igerilekua zabalik egongo da eta arratsaldeetan (14:00-20:30), berriz, kanpokoa. Kirol Sailaren arabera, formula horrek "gainkarga ekonomiko" bat ekarriko dio kiroldegiari: "Baina astebetera mugatzen denez, aurre egitea merezi duela baloratu da". Aurten egingo da proba eta aurrerago baloratuko dira formula hori aplikatzearen ondorioak. Hortaz, udako denboraldia hilaren 20an amaituko da eta hilaren 21etik aurrera barruko igerilekuak bakarrik zabalduko dituzte: astelehenetik egubakoitzera, 07:00etatik 22:00etara; zapatuetan eta domeketan, 09:30etik 14:00etara eta 16:30etik 20:00etara. Informazio gehiago: 943 77 16 77.



Askotariko ekintzak eskaintzen ditu Alai Jaiak enpresak; irudian, umeei zuzendutako ikuskizun bat.

# Alai Jaiak, denetariko ospakizunez gozatzeko aukera telefono dei batekin

Bezeroa gozatzeaz bakarrik arduratu beharko da Alai Jaiak enpresaren zerbitzua kontratatzen badu. Atzean, ikuskizunen antolaketan esperientzia handia duen lantaldea dago.

Askotariko ospakizunak eskaintzen ditu Andoni Vadillok (Gasteiz, 1975) beste lankide batekin kudeatzen duen Alai Jaiak enpresak: "Denetarik eskaintzen dugu, eta adin guztientzako: ezkondu aurreko jaiak, urtebetetze ospakizunak, enpresa afariak, abentura planak... Gurekin lan egiten duten magoen, pailazoen, dantzarien zein aktoreen artean jende euskalduna eta erdalduna dago. Badakigu hemen zer gustatzen zaigun eta horri nola erantzun", dio Vadillok.

**Gozatzeaz arduratu**

Guztiaz arduratzen dira: "Bezeroak deitu eta zer nahi duen esan ostean, guztiaz arduratzen gara. Ideia berriak ere proposatzen dizkiogu. Telefono dei bakar bat nahikoa da bezeroarendako; deitu eta guk jakingo dugu zer egin; bezeroa ondo pasatzeaz bakarrik arduratu beharko da".



Ezkondu aurreko agurra.

**Eskarmentu handia**

Vadillok ondo ezagutzen du espektakuluaren esparrua. 16 urte zituenerako musika munduan zegoen, teknikari. Aurrerago, ardurak hartzen joan zen eta musika talde ezagunen manager ere ibili zen: "Hainbat urtez musikaren munduan ibili ostean, uztea erabaki nuen duela zazpi bat urte, merkatua asko murriztu zelako. Orduan ikusi nuen musikaz harago, ospakizunaren esparruan, oro har, arlo interesgarri asko zeudela", gaineratu du. Urteetako esperientziari esker, ikuskizunen antolaketan eskarmentu handia du Vadillok.




EZKONDU AURREKO AGURRAK
URTEBETETZE JAIAK
ABENTURA PLANAK
ENPRESA AFARIAK
'STRIPER'-AK
'BOY'-AK
ANIMATU ETA DEITU!
603 30 48 95 • 675 60 16 38
www.facebook.com/alai.jaiak

# Aldaketaren urtea izango da eskubaloi taldearentzat

Pitxi Herreroren omenezko lagunartekoa jokatuko da aste bukaeran Iturripen

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Aldaketaren denboraldia izango da oraingoa Arrasate Eskubaloi Taldearendako. Senior mailan izango dira aldaketa nabarmenenak. Iaz maila mantendu arren, Ohorezko Mailan jokatu beharrean Euskadiko Txapelketan jokatuko dute aurten –irailaren 26an hasiko dute liga, Legazpin–, orain arte taldeko kide izan diren hainbat jokalarik taldea utzi dute-eta: Kepa Isasmendi, Oier Ortiz de Mendibil, Ekaitz Aranburuzabala, Andoni Bernal, Iker Otegi eta Mikel Zuloaga baja izango dira. Ford Mugarrik hamasei jokalari izango ditu aldaketaz jositako denboraldiari aurre egiteko. Entrenatzaile aldaketa ere badago: Patxi Gartzia laudiarrak hartuko du Pablo Gartzia oñatiarraren lekua. Bestalde, bigarren taldea Jon Urrutiak zuzenduko du: "Aurten ere lana sendo egin beharko dute lehen taldeko jokalari izateko", adierazi du klubeko zuzendaritzan dihardues Andoni Arandok.

Gazte mailako entrenatzailea Josu Herrero izango da eta hamabi jokalarirekin "bakarrik" egin beharko diote aurre denboraldiari: "Jokalariak behar ditugu, gutxienez hamasei jokalari izatea komeni da arazorik ez izateko. Izena eman gura duenak Iturripera joan besterik ez du, martitzenean, eguenean edo egubakoitzean, 18:00etatik 21:00etara. Beti bezala, eskubaloian jokatu gura duten guztiak ongietorriak izango dira". Kadeteetan ez dute talderik aterako, hiru jokalari bakarrik dituztelako.



Josu Herrero, iazko partidu baten; aurten ere taldeko kide izango da. | GOIENA

**Pitxi Herreroren omenezkoa**

Bihar eta etzi jokatuko da orain arte memoriala izan den Pitxi Herreroren omenezkoa; aurten txapelketa eran jokatuko da. Finalerdiak bihar, zapatua, jokatuko dira: Gure Auzune Usurbilen aurka (16:00) eta Ford Mugarri Ordiziaren kontra (17:45). Domekan 10:30ean jokatuko da hirugarren eta laugarren postua zehazteko lehia; finala 12:15ean izango da.

# Gasolina eta gurpil erreen usaina Garaian hilaren 26an eta 27an

**J.B.** | ARRASATE

A + Gas marka arrasatearrak, Mondragon Unibertsitateko Login Lan kooperatibarekin elkarlanean, bigarren urtez antolatu du autoen erakustaldia. Iaz Markuleten egin zuten eta aurten Garaia Berrikuntza Gunean izango da, irailaren 26an eta 27an. Data –iaz uztailean egin zen– eta leku aldaketaz gain, *Time attack* deritzon diziplina izango da aurtengo nobedade nagusia; proba horretan hamabi pilotuk hartuko dute parte, eta denborak neurtuko dizkiete. Erlojuaren kontrako proba hori hilaren 26an izango da, goizean zein arratsaldean. 20:00 aldera amaituko da proba berezia.

**Asteburu osorako plana**

Antolatzaileek asteburu osorako egitaraua prestatu dute aurten. Irailaren 26an 09:30ean irekiko dute txosna, eta auto klasikoen zein gaur egungoen erakusketa ere jarriko dute. 10:00etan *Time attack* probarako entrenamenduak hasiko dira. Irailaren 27an ere ez da gasolina eta gurpil erreen usainik faltako; izan ere, denbora mugarik gabeko erakustaldia izango da, 16:30ean hasita. Lehenago, 12:00etatik 14:00etara, irteera egingo dute Arrasatetik eta inguruko herrietatik.

Bi egunetan umeendako ekitaldiak ere izango dituzte, 11:00etatik 14:00etara.



Auto bat ziztu bizian, iaz Markuleten egindako erakustaldian. | IMANOL SORIANO

## NIRE USTEZ



**ITSASO ERRETOLATZA**

# Euskaldun globala

Azkenaldian globaltasunean murgil egin dugu, lurra gelditu eta atzeraka hasi balitz bezala, dzanga! Enpresa euskaldunek erabakia hartua dute: globalak izan, ezen ez dago irtenbiderik. Lehiakortasuna izan da giltzarri. Eta lehiakortasuna izango da euskarri. Zeinek irabaziko du, ordea, zeinek du abilidadea? Ingelesez hitz egiteko beldurrez bulegoan ezkutatzen denak ala eskua emanez bere mailako bezeroen aurrean zutik dagoenak? Gazteek prestutasuna erakusten digute, hizkuntzetan ez dute lotsarik eta ausardiaz jokatzen dute kultura ezberdinen aurrean, zer ikusiari adi.

Nazioarteko hegaldi amaigabeek lotzen gaituzte, aurpegiak eta kultura lotzeko bileretan. Autobus hegalarietan eserita edota hiri erdiak diruditen aireportuetan barrena bizitzaren orduak ziztuan pasatzen dira. Zazpi ordu aurrera egin eta loa guztiz eraldatua, gorputzak ez du globaltasuna ulertzen. Hiru errelebotan astero aldatzen ari direnak aspaldi dira globalak, lurraren birarekin batera egiten diote bira lan jardunari. Ordutegi malgua, ezin elastikoago bilakatzen da familiakoek ez dakitenean zure burua haiekin ala munduaren beste puntan dagoen. Konektatuta egonda, uneoro mugikorraren kanpaitxoak aditzen dituzu goizean jaiki eta gosaltzen duzun bitartean txinatarrek espero dutenari erantzuna haien eguna amaitu aurretik nola kudeatu… Eta ostantzean, etxeratu arren mezuek iristen jarraitzen dute buzoira, amerikarrak oraindik lanean dauden seinale, pantailatxoaren aurrean dagoena udan ala neguan bizi den pentsatzen jarri gabe.

Haiei garai hobeak datorkien heinean, orekatuko ote dira lan baldintzak, lana berriz ere beharra bihurtu den garai hauetan.

# Iraila ekintzaz beteta dute Besaide Mendizale Elkartekoek

**J.B.** | ARRASATE

Abuztuko geldialdiaren ostean, ikasturte berria askotariko ekintzekin hasiko du Besaide elkarteak. Hasteko, hilaren 20an Oroimen Eguna ospatuko dute Besaiden bertan; 1955a ezkero hutsik egin gabe, urtero antolatu dute mendian istripuz hildako mendizaleak gogoratzeko egun berezia. Iaz Besaide elkarteak berak antolatu zuen ekitaldia, eta aurten Elorrioko Erdella Mendizale Taldeari egokitu zaio ardura hori hartzea.

Bestalde, irailaren 26ko eta 27ko aste bukaerarako irteera antolatu dute; Pirinioetako Picos del Infierno igoko dute, eta dagoeneko aukera dago izena emateko. Irailaren 14an eta 21ean eman ahalko da izena elkartearen egoitzan (Garibai, 3 bis), 19:30etik 20:30era.

**Arabako lautadan barrena**

Horrez gain, irailaren 27an Arabako lautada integralaren barruko 11. etapa egingo dute, Ubidea eta Sarria artekoa. Irteera horretan izena eman ahalko da hilaren 21ean, 22an eta 23an elkartearen egoitzan, 19:30etik 20:30era. Argibide gehiagorako, deitu 943 77 30 66 telefono zenbakira.



# Trikitilariak plazara irtengo dira gaur, eskola herritarrei hurbiltzeko

## Festa giroan ekingo diote ikasturte berriari; askotariko ekintzak antolatu dituzte 18:00etatik 21:00etara

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Arrasaten Trikitixa Eskola bat dagoela erakustea, eskola bera kalera ateratzea eta ikasturte berrirako matrikulazio kanpainaren berri ematea. Horiexek dira gaur arratsalderako Herriko Plazan antolatu dituzten ekitaldien helburuak: "Matrikulazio kanpaina aitzakia da Arrasaten Trikitixa Eskola bat dagoela ezagutzera emateko. Herri gutxitan dago aukera hori, eta Arrasaten pribilegiatuak gara", esan zuen martitzeneko aurkezpenean eskolako zuzendari Maixa Lizarribarrek.



Maixa Lizarribar eta Esther Legarreta, Herriko Plazan. | JOKIN BEREZIARTUA

**Hiru orduan hainbat ekintza**

Ekitaldiari *Eskola plazara!* deitu diote, eta 18:00etatik 21:00etara festa giroa izango da nagusi. Pintxoak, sagardoa eta ardoa egongo dira salgai; pintxoa eta edatekoa euro eta erdian salduko dute plazan bertan jarritako mahaietan. Antolatzaileek eskerrak eman dizkiete Saburdi eta Otamendi harategiei eta Txomin Zubeldia enpresari, pintxoengatik eta edariarengatik, hurrenez hurren. Gainera, panderoak egiten dituen Dulantziko artisau Kike Rodriguez lanean ibiliko da bertan, eta baita olagarroa prestatzen aditua den sukaldari bat ere.

Eskolak Zerrajerako erlojuaren eraikinean duen lokaletik irtengo dira kalejiran Herriko Plazaraino (18:00), eta, ondoren, herritarrek trikiti eta pandero munduaren zein eskolako funtzionamenduaren gaineko edozein zalantza argitzeko aukera izango dute (18:30). Gainera, eskolako arduradunek ikasleei dei egin diete edozein pieza jotzeko, eta gura duenak datorren ikasturterako matrikula bertan egiteko aukera ere izango du. Era berean, joan den ikasturte amaierako Amaia antzokiko emanaldia pantaila baten ikusi ahal izango da.

Egitaraua borobiltzeko, *Trikigin* deritzon ekintza antolatu dute, lehen aldiz: Kajoi, Nahi, Itzala, Rumba, Dublin, Ederra, Aterpe eta Arrasate tabernetako zerbitzariek gin-tonicak prestatuko dituzte, eta lau lagunez osatutako epaimahai batek erabakiko du zein den onena. Gero, herritarrek gin-tonic berezi horiek dastatzeko aukera izango dute, lau eurotan: "Denok zaudete gonbidatuta arratsalde-pasa ederra igarotzera", dio eskolako presidente Esther Legarretak.

**120 ikasle eta ibilbide luzea**

2016an 25 urte beteko ditu eskolak. Aurreko ikasturtean adin guztietako 120 ikasle inguru izan ziren eskolan, Maite Loidi, Eneritz Urrutia eta Maixa Lizarribar irakasleekin: "Aurten ere ez gara kopuru horretatik urruti ibiliko", uste du Lizarribarrek. Irailaren 22an, 24an eta 29an ere egongo da matrikulatzeko aukera, 17:00etatik 19:00etara, eskolan bertan. Gainera, posta elektronikoz ere eman daiteke izena: *arrasatetrikitixaeskola@gmail.com*.

# Kulturate Akustikoak amaitzeko, hiru proposamen interesgarri

J.B. | ARRASATE

Joan den aste bukaeran modu arrakastatsuan hasitako emanaldi akustikoen zikloa amaitzeko, Udaleko Kultura Sailak beste hiru saio interesgarri antolatu ditu gaurko, biharko eta etziko, Kulturateko areto nagusian, 20:00etan.

**Bluesa, "chiripopa" eta popa**

Gaur, The Romanticos taldea igoko da oholtza gainera; Iker Piris gitarra-jole ezaguna gidari dutela, blues eta rhythm-and-blues doinuak eskainiko dituzte, swing eta funk doinuekin lagunduta, besteak beste. Taldea 2009an sortu zutenetik hainbat emanaldi eskaini dituzte eta jaialdi entzutetsu askotan parte hartu dute. 2012ko ekainean argitaratu zuten lehen lana Gaztelupeko Hotsak zigiluarekin, eta iaz bigarren diskoa kaleratu zuten zigilu berarekin, *Do it yourself* izenekoa. Bihar, zapatua, Andaluziako Antilopez bikoteak "kontzertu berezia" eskainiko du. "Chiripopa" egiten dutela diote, umorea eta ironia nahastuz, eta gitarra bana eskuan. Euren ahots ederrekin, berbetan zein kantuan, ikuslea ez dute axolagabe utziko.

Kulturate Akustikoen zazpigarren edizioa amaitzeko, Bilillo y Los Sullos laukoteak pop eta rock doinuak eskainiko ditu domekan. 1980ko hamarkadan Bilboko pop giroko Los Santos talde erreferenteko abeslaria da Bilillo.



Iker Piris, The Romanticos. | UDALA

# Corazon de Encina kultura elkarteak Extremadurako eguna ospatuko du bihar

J.B. | ARRASATE

Arrasaten bizi diren extremadurarrek egun handia izango dute bihar. Irailaren 8an Extremadurako eguna ospatzen da euren sorterrian, eta Arrasaten bizi direnek bihar egingo dute ospakizuna. 10:30etik 20:00etara izango dira ospakizunak, Landa urtegian. Jatekoak, edatekoak eta musika izango dituzte, eta baita gazpatxo, tortilla, gazta eta ardo lehiaketak, besteak beste. Karta jokoak ere izango dituzte. Elkarteko zuzendaritza batzordeak, elkarteko bazkideez gain, gainerako arrasatearrak ere gonbidatu ditu.

## Arrasate Musikaleko matrikulazio epea zabalik dago oraindik

Astelehenean hasi zuten ikasturtea Arrasate Musikalen, baina hil amaierara arte aukera egongo da izena emateko. Informazio gehiago jasotzeko, Monterron jauregiko idazkaritzara joan –10:00etatik 12:00etara eta 16:00etatik 20:00etara– edo 943 77 05 40 zenbakira deitu beharko da.

## Pintura ikastaroan izena emateko aukera hilaren 14tik 18ra

Kulturateko pintura ikastaroan izena eman ahal izango da datorren astean, 17:00etatik 19:00etara, pintura gelan; Seber Altube plazatik sartu behar da. Gehienez, hogei ikaslek eman ahal izango dute izena, eta Amaia Bengoa izango da irakaslea. Argibide gehiagorako: 943 25 20 25.

# Antzerki tailerra antolatu dugu, talde egonkorra sortzeko asmoz

KOMUNITATEA GOIENA
AED ELKARTEA | ARRASATE

Elkartearen bueltan antzerki talde bat osatzea da AEDren helburuetako bat. Asmo horrekin, pare bat tailer antolatu izan ditugu azken urteetan, baina ez da talde egonkorrik osatu. Irailetik abendura beste saiakera bat egingo dugu talde hori sortzeko, beste ikastaro batekin. Hogei ordukoa izango da eta Olatz Pagaldai aktorea izango da irakaslea. Saioak zein egunetan eta ordutan egingo ditugun adosteko, parte hartu nahi dutenek bilera bat izango dute irailaren 21an AEDn (18:30). Izen-ematea egun horretan itxiko da. Interesatuek *aed@aedelkartea.com* helbidera idatzi edo 943 77 12 28 telefono zenbakira deitu behar dute. Prezioa 45 eurokoa izango da bazkideondako eta 50 eurokoa gainerakoendako.



Olatz Pagaldai aktorea. | AED

# 'Argia Egun Txikia' ospatzeko hainbat ekintza zapatuan

J.B. | ARRASATE

Irailaren 20an Oñatin egingo duten jaiaren aurretik, bihar *Argia Egun Txikia* ospatuko dute aldizkariko kideek harpidedunekin eta irakurleekin. EHE taldekoekin batera antolatu dute egitaraua, Jai Zalen: solasaldia herrigintzaz eta antolaketaz (10:30), hilaren 20rako prentsaurreko irekia (12:30), doke jokoaren gaineko azalpena eta txapelketa Kondekuan (13:00), pintxo-bazkaria (14:00), talde jolasak (16:00), Etxepare Rap eta Hans, Peio, Manex eta Gilenen emanaldia (17:30) eta DJ Elvis Caino (23:30).

BIODANTZA 626 66 12 92
jardunaldiak IRAILA 15–24
Dantzatu eta bizi ezazu zure argia
KLASE IREKIAK ETA DOAN
ARRASATE
• Asteazkena, 16. Arrasate Yoga Elkartea. 19:30-21:30.
• Osteguna, 17. La Merced ikastetxea. 18:30-20:30.
ELORRIO
• Ostirala, 18. Txintxirri ikastola. 18:00-20:00.
BERGARA
• Astelehena, 21. Mariaren Lagundia ikastola. 18:30-20:30.
www.biodanzabai.com • biodantzabai@gmail.com

# Paella-jana, San Martin azoka eguneko nobedadea

Udalak "errespetuan eta parekidetasunean oinarritutako jaiak" izatea nahi du

**JULEN IRIONDO** | BERGARA

Urtero legez, azoka giroak hartuko ditu bihar herriaren erdiguneko kale eta plazak. Salmentan ez ezik, lehian ere ibiliko dira 10:00etatik aurrera barazkiak, fruta eta gazta plazara eramango dituztenak –sari banaketa 13:30ean izango da–. 10:30ean Bergarako odoloste dastaketa egingo dute San Martin plazan, eta goiz-eguerdi partean trikiti doinuek eta kantu-jira herrikoiak girotuko dute herria, Bentazaharreko Mutiko Alaiak taldekoekin, azkeneko hori. Paella-jana 14:30ean izango da, Kruz Gallastegin; gaur eros daitezke txartelak –6,5 eurotan– Bule, Pol-Pol, Arrano eta Depor tabernetan, eta bihar Kruz Gallastegin. Udalak mahaiak eta bankuak jarriko ditu; edariak eta kafea, norberaren kontura. Goizaldera arte jarraituko du festak, eta jarraipena izango du martitzenean eta eguaztenean.

Udalak "elkarrekiko errespetuan eta parekidetasunean oinarritutako jaiak" sustatu nahi dituela adierazi du ohar batean, eta "indarkeria matxistaren kontrako konpromisoa" eskatu die herritar guztiei. Jaietarako gaueko autobus zerbitzu berezia egongo da bihar, Antzuolarekin eta Elgetarekin.



San Martin feriako postua. | GOIENA

## Danborradan ere nobedadeak

Nagusien danborradako aurtengo nobedadea izango da bi zatitan aterako dela. Ohiko konpainiak aterako dira 22:30ean –megafoniarekin–, eta tarte bat utzita abiatuko da –Udal Biltegitik hura ere– bigarren zatia, San Martinen heriotza irudikatuko duena, japoniarrez jantzitako danbor-joleak barne, Udal Musika Bandak lagunduta; banda ez da, beraz, aurten danborradaren zain plazan egongo, ibilbidea egin egingo du. Danborradaren bigarren zati horren ibilbidea, baina, lehenengoarena baino laburragoa izango da, herriko beheko zatia egingo du–eta soilik; goikoa ez. Plazan itxoingo diete ohiko konpainiei. San Martinen errepresentazioa 23:30ean hasiko da. Aurten horrela egitea erabaki dute, danborradaren festa kutsua eta kutsu solemnea, biak, errespetatzearren.

Bestetik, Udalak dei egin die bandera eramaile izango liratekeen 16 urtetik gorako neska zein mutilei izena eman dezaten (943 77 91 59).



Japoniarra danborradan. | GOIENA

## HITZORDU NAGUSIAK

**IRAILAK 11**

**19:00** Dantza Suelto Txapelketa, frontoian.

**IRAILAK 12**

**10:00** Azoka, alde zaharrean.

**12:00** Kantu-jira herrikoia.

**14:30** Paella-jana, Kruz Gallastegin.

**17:30** Zezentxoak eta poneyak, Seminarioan.

**18:30** Erraldoi, kiliki eta buruhandiak, txistulariekin.

**19:30** Saskibaloi taldeen aurkezpena, plazan.

**20:00 eta 23:00** Obaneukerekin erromeria.

**IRAILAK 13**

**09:00** Pintura lehiaketa; erakusketa, 17tik 30era.

**IRAILAK 15**

**19:00** *Ametsen fabrika* antzezlana, Muniben.

**22:30** Nagusien danborrada.

**00:15** Joselu Anaiak, plazan.

**IRAILAK 16**

**09:00** Sokamuturra.

**11:00** Meza nagusia, San Pedro parrokian.

**11:30** Errekortadore eskola. Seminarioan.

**12:30** Bandaren kontzertua, plazan; aurretik, kalejira.

**18:30** Haurren danborrada.

**19:30** Herrixa Dantzan.

**22:00** Suzko erruberak.

# Oroimenaren Egunerako ekitaldia prestatzen

**J.I.** | BERGARA

Udalean ordezkaritza duten alderdi guztiak, elkarlanean, ari dira azaroaren 10ean ospatuko den Oroimenaren Egunerako herrirako ekitaldia prestatzen. Bergaran izandako era bateko eta besteko biktimak gogoratzea izango da ekitaldi horren helburua.

Herrian ekitaldia egiteko asmo horrek aurreko barikuan Urkullu lehendakariak erkidegoko ehundik gora alkaterekin egindako bilerarekin du harremana –bertan izan zen Juanje Alberdi ere.

Ekitaldi hartan jaso zuen alkateak udalerriko *Memoria erretratua,* 1960 eta 2010 urteen artean herrian izandako "bizitzarako eskubidearen urraketak", askotarikoak, jasotzen dituena –sei kasu Bergaran–.

## Euskara ikasteko diru laguntzak, hilaren 15era arte

Euskara ikasteko edota ikasketa osagarriak euskaraz egiteko Udalak ematen dituen diru laguntzak eskatzeko azken egunak dira hauek. 2014-2015 ikasturtean edota 2015eko udan egindako ikastaroengatiko diru laguntzak Udaleko erregistro orokorrean eskatu behar dira. Informazio osoa, Udalaren webgunean.

STONE HOUSE HIZKUNTZAK
- INGELESA
- FRANTSESA
- ALEMANA
Matrikula epea zabalik!
Informa zaitez!
Ibargarai 18 behea - 3 • Tel.: 943 76 06 87
stonehousebergara@gmail.com
www.stonehousehizkuntzak.com

AITONAK
TABERNA
(Jubilatuen etxea)
Bazkariak
Afariak
Ospakizunak
Kintadak
ETOR ZAITEZ!
08:00etatik 21:00etara zabalik!
Tel.: 628 443486
Boni Iaskurain, 9 behea
BERGARA

ESPOLON
School of English
BERGARA
Ingeles klaseak
Matrikula epea zabalik
• Haurrak (2 urtetik gorakoendako)
• Gazteak
• Helduak
• Azterketa ofizialetarako prestakuntza
25 urte zuekin!
Informa zaitez:
Ibargarai, 31 behea BERGARA • Errekalde, 1 eta 2 behea ANTZUOLA
Tel/Faxa.: 943 76 03 53 • espolon@euskalnet.net

DRAGON ORIENTAL
Jatetxea
Bueltan gaude!
Etor zaitez!
Janaria ere etxera eramaten dugu
Etxez etxeko zerbitzua: Bergara: +1,80 € Inguruko herriak: + 2 €
☎ 943 25 06 77 • Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean) • BERGARA

# Irailaren 21era arte eman daiteke izena 'Bergara Chef' lehiaketan

## Lehiakideen sukalderako abilezia telebista saio baten ikusi ahal izango da

JULEN IRIONDO | BERGARA

Herriko dendetako osagaiekin ahalik eta menurik goxoena prestatzea: hori izango da Bergara Chef lehiaketan parte hartuko dutenen –hamabi bikote gehienez– egitekoa eta helburua. Bedelkarrek eta Bergara Bizik antolatu dute, Udalaren, Jaurlaritzaren eta Goienaren laguntzarekin. Izan ere, lehiaketa grabatu eta telebista saioa eskainiko du Goienak, azaro erdi aldera hasita –urrian eta azaroan izango da lehiaketa.

Parte-hartzaileek egokitzen zaien bi platereko menua prestatu beharko dute bi orduko epean, eta, horretarako, antolakuntzatik adieraziko diete herriko ze dendatan egin beharko dituzten erosketak; ordubete izango dute erosketak egiteko, eta erosketa ere grabatuko du Goienak, programarako.


Leturia harategiko okela. | JULEN IRIONDO


Lete arrandegiko arraina. | J.I.


Orea, Larrañaga gozotegian. | J.I.

Bikoteak eliminatzen joango dira, bi gelditzeraino. Sukaldeko lanak herriko elkarteetan egingo dituzte, eta finala Gorlan izango da. Izena emateko, 22 urte beteak eduki beharko dira eta bikotetik lagun batek euskaraz jakin beharko du; ezingo dira sukaldari profesionalak edo ohiak izan. Informazioa: *www.bedelkar.eus.*

NIRE USTEZ


JAIONE CARPINTERO

## Klik!

Irailarekin batera udako oporrak amaitzen dira askorentzat. Kanpora joan gara, leku berriak bisitatu ditugu, aspaldiko lagunekin elkartu gara... Opor egunak azkar igarotzen badira ere, gurekin zati txiki bat ekartzen dugu maletan: argazkiak!

Mila erretratu ateratzen ditugu, partekatu egiten ditugu lagunekin eta sare sozialetara igotzen ditugu aurretik filtro batzuk pasatuz, noski. Egunotan guztiok sentitzen gara *argazkilari*. Izkina guztietan aurkitzen dugu norbait reflex kamera batekin, tableta batekin edota mugikorrarekin klik egiten etengabe.

Bizitzak oparitzen dizkigun momentuez gozatzeari baino gehiago, argazkiak ateratzeari jartzen diogu gure arreta guztia. Norberaren bizitzaren segundo bat betiko bilakatzen dugu errealitate paralelo batera eramanez.

Betiko esan dut, baina ez nago oso ziur horretaz. Askotan iruditzen zait gaur egungo argazki baten helburua, pertsona askorentzat, behintzat, ahalik eta *atsegite* gehien lortzea dela Instagram bezalako plataforma batean. Hori lortzean, ordenagailu edota mugikorreko bit arrunt eta txiki bilakatzen da, beste milioi askoren artean galduz.

Eskerrak argazkilaritza hori baino zerbait konplexuagoa dela; alegia, begirada, objektiboa eta bihotza jarriz besteek ikusiko ez luketen errealitate hori islatzea.

**"Iruditzen zait sarri 'atsegiteak' lortzea dela helburua"**

### Ate irekiak eguenean eta ikasturte irekiera egubakoitzean Xabaloten

Udako etenaren ostean, hilaren 18an irekiko ditu ateak berriro gaztelekuak, 13 eta 17 urte arteko gazteentzat. Egubakoitzetik domekara egoten da zabalik, eta hainbat ekintza dituzte pentsatuta: sukaldaritza lehiaketa, *paint ball*-era irteera... Eguenean ate irekiak egingo dituzte –gurasoentzat...–, 18:00etatik 21:00etara.



JULEN IRIONDO

### Mizpirualdeko igogailua

Lanak hasi dira, eta azaro bukaeran amaituko dira. Madalena plazako aparkalekua ezingo da erabili bitartean. Egoitzarako eta, adibidez, Zabalotegirako eskailerak saihestu ahal izango dira igogailuarekin.


MIZPIRUALDE EGOITZA

### 102 urte! Zorionak!

Gregori Arietaleanizbeaskoak 102 urte bete zituen martitzenean. Senideak, lagunak, egoitzakoak eta Udaleko zinegotziak joan zitzaizkion zoriontzera. Argazkian, lore-sortarekin.

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

Ondo pasa
San Martinetan!

Proiektuak · Koltxoiak
Horma-Armairuak
Altzariak neurrira
Ateak · Eskailerak · Leihoak ·
Tarimak · Egur lanak



IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L. MARGO LANAK OROKORREAN

Ondo pasau jaixak

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 25 99 83 / 667 54 89 16
Faxa: 943 76 09 32

Era guztietako lanak
Moketa eta sintasola
Iztuku esponjatua
Paper pintatuak
Harea zorrotada
Iztuku faltsua

# Eskubaloiko seniorra, etapa berria abiatzera

## Euskadiko Txapelketari muzin egin eta Gipuzkoakoan jardungo du, talde gaztearekin

**JULEN IRIONDO** | BERGARA

Irail hasiera ezkero ari dira entrenamenduetan Bergarako nagusien eskubaloi taldekoak, denboraldi berria prestatzen; denboraldi berezia, ibilbide berri baten hasiera izango da-eta, azken bost urteetan Euskadiko Txapelketan ibili eta gero, orain Gipuzkoakoan, talde gaztearekin. Iazko lehenengo taldetik bost jokalarik bakarrik jarraitzen dute, eta iaz bigarren taldean ibilitakoak izango dira jokalari gehienak.

Aurreko denboraldian, kantxan, eutsi egin zion mailari Bergarak. Hainbat jokalarik, ordea, taldean ez jarraitzeko erabaki irmoa adierazi zioten Josetxo Muniategi entrenatzaileari: sei ziren –gero gehiagok utzi dute–, tartean bi atezainak –eibartarrak, herriko taldera itzultzeko nahia agertu zuten–, eta defentsa lanerako jokalari garrantzitsuak. Eta, horrela, Euskadiko Txapelketan ez jarraitzea hobe: "Ziur aski, egingo genuen denboraldi oso txarra, jokalarien arteko eta entrenatzailearekiko harremana okertzeko arriskuarekin, gainera".

Norbere eta gainerako lehiakideen artean alde handia dagoenean eta partiduetan egur handiak jasotzen direnean, "frustraziorako" arriskua egoten dela-eta, klubean nahiago izan zuten taldea erabat gaztetu eta Euskadiko Txapelketari muzin egin, etorkizuneko ikuspegiz, orain arte bigarren taldekoak izandako jokalariek euren garapenarekin jarrai zezaten, garapen hori eten ahalko zuketen egoeretara behartu gabe. Urrian hasiko duten ligarako, beraz, ikasten jarraitzea, lehiatzea eta mailari eustea izango dira taldearen helburuak.



Bergarako seniorren denboraldi berriko taldea. | JULEN IRIONDO

**EDU ORGAZ** | ENTRENATZAILEA

### "Hobe da euren mailan egotea"



J.I.

Aulkian ere egon dira aldaketak; taldearen gehiengoa iazko bigarren taldekoa izanik, haien entrenatzailea izango da orain talde nagusiaren gidari. Orgazek ardura hori hartuko du berriz ere, hainbat urte ondoren. Josetxo Muniategik laguntzaile lanak eta klubeko beste lan batzuk egingo ditu, urteetan lehen taldearen ardura izan eta gero.

**Erronkarekin pozik?**
Bai; eskubaloia asko gustatzen zait, lehiatzea ere bai, eta baita irakastea ere.

**Pena Arrasate eta Aloña zeudela Euskadikoan, eta ezin haiekin jokatu?**
Bai, baina, azkenean, zikloak dira. Ez zuen merezi edozein modutan Euskadikoan jarraitzea eta jokalariak heldu ezinda ibiltzea. Hobe da euren mailan egotea.

# Imanol Ituiño magoa gaur Errotalde parkean

**KOMUNITATEA GOIENA**
JARDUN | BERGARA

"Zer da, txori bat? Hegazkin bat? Superman? Ez! Magia parrastan da!". Baina... zer ote da Magia Parrastan? Horixe da ikuskizun honetan ikusiko duzuena, magia parrastan , etengabe, *tutiplen!* Kartek, bolatxiek, sokek, agerpenek eta desagerpenek... hartuko dute protagonismoa –18:30ean–. Ikuskizun parte-hartzailea, dinamikoa eta magikoa, familia osoarentzat.



Imanol Ituiño. | IMANOL ITUIÑO

### Usoa Mendikuteren eta Jone Albenizen lanak Infernukuan eta Dixulan

Astelehenera arte egongo da Mendikuteren pintura erakusketa Infernukua tabernan –eguerditik aurrera irekita–. Jone Albenizek, berriz, argazkiak jarri ditu Dixula tabernan. Londres, Bartzelona, Budapest, Madril eta Euskal Herriko argazkiak dira, aterata moduan, ukitu gabe. Lehenengo erakusketa du hori Albenizek.

### Agorrosin: tabernaren eskualdatzea eta igerilekuaren irekiera

Urri bukaera arte egongo dira tabernan lanean Gureak-ekoak; taberna hartzeko interesa dutenek eskaera egin dezakete dagoeneko udaletxean. Bestetik, Agorrosin –kanpoko igerilekua izan ezik; 16an hori ere bai– itxita egongo da hilaren 14tik 16ra. Barruko igerilekua ere 17an irekiko dute.

### Pirinioetara doaz Pol-Poleko beteranoak asteburu honetan

Bihar 06:00etan aterako dira autobusez frontoi paretik, eta bi txango egingo dituzte: zapatukoa Midiko Tourra izango da; domekakoa, Santa Elena eta Biescas artekoa. 21,6 kilometro eta 1.280 metroko desnibela ditu zapatukoak, eta 11,8 kilometro domekakoak, gehiena beherantz.

### Oraindik eman daiteke izena Orfeoi Gazteko kide izateko

Neska zein mutilentzako da deialdia –13-18 urte–. "Kantu-zaletasuna suspertzea eta Musika Eskolako haur koruen eta Orfeoiaren artean zubi-lana egitea" dira taldearen helburu. Jai osteko astean hasiko dira entseguak, eta astean behin izango dira. Izen-ematea: *bergarakoorfeoia@gmail.com.*

## OHARRAK

**BERGARA MONUMENTALA**
San Pedro parrokiara udako bisita berezia bihar, 11:00etan. Erreserbatzea gomendatzen da.

**HELDUEN ESKOLA**
Matrikula, hilaren 15era arte, Irizar jauregian.

**EMAKUMEEN M. MARTXA**
Bilera deia: astelehenean, 17:30ean, Irizar jauregian.



## Jeltzaleen erreakzioa salatu du Biain alkateak

O.E. | OÑATI

San Martingo etxebizitzen auzian EAEko Auzitegi Nagusiak Udal Gobernuari arrazoia eman ostean, Mikel Biain alkateak EH Bilduren udal taldearen izenean igorritako oharrean dio jeltzaleek auzi horretan "hanka sartu" ondotik, "larriena" dela izan duten erreakzioa: "Adierazpen hauek ez dira serioak pasa den agintaldian oposizioko bozeramaile izan den baten ahotan".

San Martingo plan partzialaren aurrekarien eta gertaturikoaren aurrean, alkateak adierazi du: "EAJk proposatzen zuen irtenbide irreala mahai gainean jarri izan bagenu, oraindik eskeletoan jarraituko zuen bloke hark, eta inguruak zer esanik ez". Eta gaineratu du: "Onuradun nagusiak herritarrok izan gara, eta, bereziki, San Martin auzuneko bizilagunak!".

# San Migel eta Errosaixo jaietako egitaraua gaur hasiko dira banatzen etxez etxe

Lehenengo jaietatik bigarrenetara egun bakarra egongo da aurten atseden hartzeko

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Bi aste pasatxo falta dira nagusien danborradarako, eta, hala, aurtengo San Migel eta Errosaixo jaiak hasteko. Herriko festak ospatzeko egitarauan, baina, irailaren 19tik aurrera antolatutako ekintzak sartu dituzte, San Migel eguna hilaren bukaeran bada ere, ospakizunak askoz lehenago hasten dira-eta Oñatin.

Aurten ere, ume, gazte zein nagusiendako ekitaldiak antolatu dituzte, eta Udala saiatu da herritar guztien gustuko egitaraua osatzen. Txosna batzordeak antolatutakoak ere jasotzen ditu, eta baita hilaren 20an egingo den Argia eguna ere.

Gaur, egubakoitza, hasiko dira jaien egitaraua etxez etxe banatzen.

**Betikoak eta berriak**

Foruen plazan, txosnagunean, Etxaluzeko parkean eta Atzeko kalean egingo dituzte, besteak beste, ekintzak. "Aurten ere herriko espazio ezberdinak aprobetxatu eta jaiak herrian zehar zabaltzearen aldeko ohitura horri eustea erabaki dugu", adierazi du Nerea Zubiak, Udaleko Kultura zinegotziak.

Musika kontzertuak, danborradak, txorimaloak, barrakak, gastronomia hitzorduak, Errosaixo Bixamon eguna, Herri Eguna, kirol txapelketak... ohiko ekintzek ez dute hutsik egingo aurtengo jaietan ere. Azken urteetan antolatu izan duten Egun Morea ere egongo da aurten. "Baina berritasunak ere badaude", aurreratu du Zubiak. San Migeletatik Errosaixoetara, atseden hartzeko egun bakarra egongo da aurten.



Eltzian egiten dituzte entseguak martitzenetan eta eguenetan. | MIREIA BIKUÑA

### Arrasateko danborrak astinduko dituzte txikiek

Antolaketa lanetarako jendea falta zela-eta hasiera baten arriskuan egon bazen ere, azkenean, irailaren 26an egingo dute haurren danborrada. Neska-mutikoek hilaren 1ean hasi zituzten entseguak. LH-3ko eta LH-4ko umeendako zabaldu zuten deialdia, eta izena eman duten guztiak aterako dira umeen danborradan; 140 ume baino gehiago. Hala, konpainia berri bat izango da aurtengo haurren danborradan; baserritar jantzita joango dira eta Arrasateko danborradan erabiltzen dituzten danborrak astinduko dituzte.

Jose de Azpiazu musika eskolakoak ari dira arduratzen musika prestaketaz. Eurekin batera Oñatiko gazte talde bat ari da lanean: umeen izen-emateak egin, entseguak antolatu, arropen ardura hartu...

## 'Mi casa en París' filmak zabalduko du zinema denboraldia

Gaur hasiko da ikasturte berriko zinema denboraldia. Bai, behintzat, nagusiei zuzendutako zinema eskaintza. Betiko egun, toki eta ordutegietan emango dituzte nagusiei zuzendutako filmak; astelehena Ikuslearen Eguna izango da aurrerantzean ere. Israel Horovitz-en *Mi casa en París* filma eskainiko dute asteburuan.

# Alberto Plazaola libre, epaiketara arte

J.B. | OÑATI

Pau hiriko Dei Auzitegiko Instrukzio epaileak libre utzi du Alberto Plazaola preso ohi oñatiarra, atxilo segitzeko arrazoirik ez dagoela iritzita, eta epaiketa egunera arte. Plazaola Espainiako Auzitegi Nazionalaren esku utzi edo ez ebatzi beharko du orain Frantziako Justiziak. Data zehatzik ez badago ere, familiak uste du epaiketa hori datorren astean izango dela. Defentsa "ahalik eta ondoen" prestatzeko epaiketa astebete atzeratzea eskatuko dute Plazaolaren abokatuek.




Agerraldi jendetsua egin zuten Foruen plazan, atxiloketa salatzeko. | J.BEREZIARTUA

**Martxoa ezkero ihesi**

1990ean atxilotu zuten, Frantzian, eta 2014ko abenduan geratu zen aske. Horixe ebatzi zuen orduan Auzitegi Nazionalak, Europako zuzentarau bati jarraiki, Espainian ezarritako zigorrean beste estatu baten betetako espetxe urteak kontuan hartu behar direla ondorioztatuta. Hala ere, martxoan Auzitegi Nazionalak hartu zuen erabaki horren kontra egin zuen Gorenak, eta Plazaola berriz kartzelatzeko agindu zuen. Guardia Zibila martxoan joan zen haren bila, baina ez zuten etxean topatu; poliziak astelehen goizean atxilotu zuen Ziburuko Zokoa auzoan. Atxiloketa salatzeko agerraldi jendetsua egin zuten astelehenean bertan haren jaioterrian, eta baita Ziburun ere.

## Pedagogia saioak Txantxiku ikastolan

O.E. | OÑATI

Konfiantzaren pedagogia jarriko dute martxan Txantxiku ikastolan datorren urtean, eta hori lantzen hasiko dira aurten. Haurra garatzea, adin askotariko haurrak harremanetan jartzea, espazioaren antolaketaren garrantziaz jabetzea eta ikastolan familiaren presentzia areagotzea du oinarri pedagogia horrek.

Hori azaltzeko, saioak antolatu ditu Txantxiku ikastolak gurasoendako. Hilean behin izango dira; lehena, irailaren 18an. Izena aurrez eman behar da ikastolako bulegoan.

### OHARRAK

**USAKO**
Domekan bukatuko da udako bainu denboraldia Usakon. Astelehenetik aurrera ez da begiralerik egongo.

**ZUBIKOA**
Datorren martitzenean, irailak 15, hasiko da ohiko ikasturtea Zubikoa kiroldegian.

## 34.a bidali dute Argentinara

Arropaz eta bestelako osagarriz betetako 34. kontainerra bidali dute aste honetan Argentinara. Hor bidalitakoa banatzen hasitakoan bidaliko dute beste bat, 2016ko lehen hiruhilekoan. Argentinarako ez ezik, Caritas eta beste elkarte batzuendako ere batzen dute Bidebarrietan arropa.



HERMANSALOÑA

**Pabiloia saltzen da Oñatin**

- Zatigarria den 300 m2-ko beheko solairua, malgukiak dituen bi aterekin. Erdigunean.
- 80 m2-ko bulegoa goiko solairuan, sarrera independentearekin. Klimatizatua.
- 40 m2-ko tarteko solairua.

618 47 14 82



Erakusketan dagoen argazkietako bat. | J.A. UNTZURRUNTZAGA

# Untzurruntzagaren 'Nire ibilbidea' mostra ikusgai

## Astelehenean zabaldu zuten argazkilari oñatiarraren erakusketa, eta irailaren 19ra arte dago kultura etxean

MAITE TXINTXURRETA | OÑATI

Juan Antonio Untzurruntzagak, Bergaran bizi den argazkilari oñatiarrak, *Nire ibilbidea* izeneko erakusketa jarri du asteon bere jaioterrian. Bergarako Arizondo argazkizale elkarteko burua da, baita Gipuzkoako Argazkilarien Elkarteko kidea ere. Duela urtebete Donostian jarri zuen argazki bilduma bera, eta oso kritika onak jaso zituen.

Erakusketa hilaren 19ra bitartean egongo da ikusgai kultura etxeko beheko solairuan. Duela hamabost bat urtetik hona egindako argazkiak biltzen ditu. "Argazkilaritza digitala landu dudan urteetakoak", argazkilariak azaldu duenez.

**Gizakia ardatz**

Guztira 45 lanek osatzen dute mostra, eta askotariko gai eta estiloak biltzen ditu: erretratuak, paisaiak, ordenagailuz eginiko muntaiak...

Argazki guztietan, edo ia guztietan, baina, Untzurruntzagaren marka pertsonala dena azaltzen da: argazki guztietan gutxienez pertsona bat ageri da, batzuetan gertutik eta bestetan urrunetik. Untzurruntzagak dioenez, gizakirik erakusten ez duen argazki bat "hutsik dago", haren ustez.

**40 urteko ibilbidea**

Bizitzaren zati handi bat eskaini dio Jose Antonio Untzurruntzagak bere zaletasunik handienari, argazkilaritzari, profesionalki horretan aritu izan ez den arren.

Gaztetan, Bergarara iritsi zenean, hasi zen orduan Pol-Pol argazkilari taldea izeneko elkartean, gaur egun Arizondo izena daramana.

Oñatiko egileak aipatzen duenez, argazkilaritza asko aldatu da hasi zen garaitik gaur egunera bitartean, eta haren lanak ere eboluzio handia izan du urteen poderioz.

Aipatzen duenez, hasiera batean kolore gordinekin lan egitea gustatzen zitzaion gehien, hura zen haren estiloa. Ordutik hona, baina, estiloa asko aldatu duela aipatzen du, eta, gaur egun, estilo bakarrean zentratu beharrean, aniztasuna da nagusi Untzurruntzagaren lanetan.

"Erakusketetara joanda eta garaian garaiko joerak zeintzuk diren ikusiaz" joan da eboluzionatzen argazkilari oñatiarra.

**J.A. UNTZURRUNTZAGA**
ARGAZKILARIA

### "Pertsonak erakustea da gehien gustatzen zaidana"



J.A. UNTZURRUNTZAGA

**Oñatiarra izanik, berezia da zure herrian erakusketa izatea?**
Bai. Gainera, hemengo nire kuadrillako lagunak buru-belarri ibili dira lanean erakusketa antolatzen, eta hori oso polita da. Asko eskertzen diet nigatik egiten duten guztia.

**Argazkiak egiteaz gain, Photoshop eta halako programak ere erabiltzen dituzu.**
Bai. Gaur egun, argazkilaritza digitala egiten dugun gehienok erabiltzen dugu, gutxi-asko.

**Argazkiak zeri ateratzea gustatzen zaizu?**
Erretratua da gehien gustatzen zaidan argazkilaritza mota. Pertsonak erakustea atsegin dut. Nire argazki gehienetan, baita erretratuak ez diren horietan ere, pertsonak ageri dira, normalean. Haur eta agureei argazkiak ateratzea gustatzen zait, bereziki.

**Nola ikasi duzu?**
Hainbat bideren bidez. Sarri joaten naiz ikastaroetara, esate baterako. Baina beste argazkilari batzuen erakusketak ikusten ikasten dut gehien, eta, ahal denean, haiekin hitz eginez. Bestalde, alaba ere argazkilaria da, eta harengandik izugarri ikasten dut.

**NIRE USTEZ**



MAITE IRIZAR

## Aurten 45

Igandean iritsiko da amaierara aurtengo ikasturtearen trena. Dantza taldeko haurrek duten erakuslehio potoloenetarikoa da, eta aurten ez bakarrik haurrentzat. Haurrez gain, protagonismoa merezi duenik eta errekonozimendua jasoko duenik ere izango da igande honetan. Egun gogoangarria izango den zalantzarik ez daukat.

Hitz egin nezake erakusleiho horrek euskal kulturarentzat duen garrantziaz, herri eraikuntzan nor izate sentimendu konpartitu horren ezinbestekotasunaz. Hitz egin nezake herriarentzat suposatzen duenaz. Baina hitz egin nahi nuke sentimenduez, sentsazioez.

Zein gurpiletan sartzen den jakin gabe hasten da bat dantzan. Intuizioz, afizioz, kasualitatez.

Eta gehiago edo gutxiago, baina askok bukatzen dugu geure egiten.

Pertsonalki iruditzen zait asko eman diezaiokeela dantzak dantzariari, kendu ere egiten dion arren. Denok bukatu dugu inoiz kolpe gogor bat hartuta. Bat, edo bi. Ilusio eta indarrak bidean utzita. Baina mugitu eta mugiarazten gaituelako eta bizirik sentiarazten gaituelako jarraitzen dugu aurrera.

Denborak heldutasuna eta esperientzia ematen dio talde bati, eta, bestetik ezinbestekoa izaten da taldearen biziraupena bermatzeko egindako urte luzeetako lana.

Beraz, horrela justifikatzen dugu Oñatz eta bere ibilbide oparoa.

# Urteurreneko ospakizunak Antixeneko gaztetxean

M. T. | OÑATI

Antixeneko gaztetxean urteurrena ospatzen dihardute asteon, *3 hamarkada indixuana itten* lelopean. Batetik, Oñatiko gaztetxe mugimenduaren 30. urteurrena ospatzen dihardute, eta bestetik, Antixeneko gaztetxeak hiru urte bete ditu irailean.

Besteak beste, urtetan zehar mugimendu horren ikur izandako eta aurten hildako Jesus Urmeneta *Xolonpo*-ren omenezko murala margotu dute. Bestalde, azken 30 urteotako argazkiak biltzen dituen erakusketa ikusgai dago domekara bitartean gaztetxean.

**Bihar, egun handia**

Zapatua izango da urteurreneko ospakizunen baitan ekintza gehien bilduko dituen eguna.

Hasteko, bizikletaz Oñatin gaztetxe izandako eraikin guztiak ikusteko bisita antolatu dute, 11:00etan Antixenetik abiatuta. Horren ostean, herriko hainbat gazte asanbladatako kideekin mahai-ingurua egingo dute, eta *Xolonpo*-ren omenezko bideoa proiektatuko dute.

Gero, bazkaria izango da, eta arratsaldez bertso musikatuak.

Bukatzeko, 19:00etan hasita, kontzertuak izango dira ikusgai: Des-kontrolen bertsioak, Zuen Azkena! eta Lokuria.

Eta azkenik, domekan –19:30– *4 urtez ametsak eraikitzen* dokumentala emango dute.




*Xolonpo*-ren omenezko murala. | ANTIXENA GAZTETXEA

# Haur Dantzarien Eguna ospatuko dute domekan egun osoan

M.T. | OÑATI

Hainbat herritako ume dantzariak Oñatira etorriko dira domekan, urtero legez, eguna elkarrekin eman eta dantzaren inguruan ondo pasatzera.

Haurren Egunaren 45. edizioa da aurtengoa, eta hamahiru dantza taldek hartuko dute parte. Ibarretik, Oñatiko Oñatz taldeaz gain, Antzuolako Oinarin, Aretxabaletako Leizara eta Arrasateko Txikitxu-Arrostaitz eta Lore Gazteak taldeak datoz. Horietaz gain, Zarautz, Lizarra, Portugalete, Zumarraga, Sestao, Gernika, Soraluze eta Legazpiko taldeak daude gonbidatuta.

**Alardea**

Arratsaldeko alardean hamalau dantza ikusteko aukera izango dute oñatiarrek.

**EGITARAUA**

| | |
|---|---|
| **09:00** | Oñatiko txistulariekin kalejira |
| **10:15** | Taldeei ongietorria Arboledan |
| **11:00** | Ogitartekoa pilotalekuan |
| **11:45** | Alkate txikiaren agurra |
| **12:00** | Ibilaldia herriko kaleetan zehar |
| **13:30** | Haurren banaketa plazan (bazkaltzera joateko) |
| **17:00** | Alardea |
| **18:30** | Buruhandi eta erraldoiak |



Aste honetan hasi dira ibilbideak markatzen | OÑATIKO MENDI MARTXA

# Dagoeneko ia 200 lagun Oñatiko I. mendi martxan

## Bi ibilbide egongo dira eta nork bere erritmoan egingo du, oinez; ez da irabazlerik egongo

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Datorren zapatuan, irailak 19, abiatuko da Oñatiko lehen mendi martxa, Foruen plazatik, 07:30ean. Bi ibilbide egongo dira: luzeak 36,2 kilometro izango ditu eta 1.606 metroko desnibel positiboa; motzak, berriz, 24,3 kilometro eta 1.180 metroko desnibel positiboa. Oñatiko lurretan egingo dira biak, eta zatirik handiena, Aizkorri-Aratz parke naturalean zehar.

Mendian ibiltzea gustuko dutenendako dira egokiak ibilbide biak. "Mallaraino elkarrekin joango gara guztiok eta han banatu egingo gara. Ibilbide luzea aukeratu dutenek Urbia aldera egingo dute eta besteek, aldiz, Araotz aldera. Hasierakoa da zatirik gogorrena, agian, altuera hartu artekoa. Baina batak zein besteak ez du aparteko zailtasunik. Ibiltzera ohituta daudenak eroso egiteko moduko bideak dira", dio antolakuntza taldeko Josu Lizarraldek.

### Handik eta hemendik

Nork bere erritmoan egingo du aukeratu duen ibilbidea, baina bukaeran ez da irabazlerik egongo. "Asmoa da mendiaz eta naturaz gozatzea. Ibilbidea lasai egitea, nork bere martxan. Ez da lasterketa bat. Bidea korrika egingo duen bakarren bat egongo da, akaso, baina ez da hori gura duguna. Mendi lasterketak badaude han eta hemen, baita Oñatin ere. Hau bestelako martxa da, oinez egitekoa", dio Lizarraldek. Bi anoa-puntu egongo dira: Mallan bat eta Kortako gainean bestea. Mediku-zerbitzua ere izango da bidean zehar. Foruen plazan bukatuko da martxa eta Zubikoako dutxak erabili ahal izango dituzte parte hartuko dutenek.

Antolakuntza taldeko kideak pozik daude Oñatiko lehen mendi martxak izan duen erantzunarekin. Izen-ematea zabalik dago oraindik eta dagoeneko ia 200 lagun apuntatu dira. Horietako asko, oñatiarrak. "Iparraldetik, Errioxatik, Bizkaitik, Arabatik eta bailarako jendea ere badago apuntatu direnen artean", zehaztu du Lizarraldek. Internet bidez domekara arte eman daiteke izena *www.kiroprobak.com* helbidean. Aloña Mendi tabernan ere apuntatu daiteke eta baita egunean bertan ere. Izena aurrez emanez gero, prezioa da hamar euro federatuendako eta hamabi federatu gabeendako. Mendi martxa hasi aurretik ere apuntatu ahal izango da irteera puntuan, Oñatiko Foruen plazan.

### Antolakuntza

Mallatik Araotz aldera doazenek Gesaltza eta Arrikrutz ingurutik ubidea jarraituko dute. Urbia aldera doazenak, berriz, Iturrigorri joango dira, handik Bellotzara, eta Gesaltza inguruan ibilbide motzekoekin elkartuko dira.

Antolakuntza taldean 30 lagun inguru dira, eta hasi dira ibilbideak markatzen. Egunean bertan ere izango dira martxaren hainbat puntutan. Aurretiko lana egiteko eta ibilbidean egoteko nahiko lagun daude, baina martxa bukatu ostean dena jasotzeko laguntza eskertuko lukete.

## Irailaren 15era arte eman daiteke izena eskola kirolean

Dagoeneko zabalik dago eskola kirolean izena emateko epea. 5 eta 16 urte bitarteko gaztetxoendako eskaintza jasotzen du programak, eta irailaren 15a izango da horretarako azken eguna. Ikasturte honetako informazioa jasotzen duten eskuorriak ikastetxeetan banatuko dizkiete gaztetxoei.

## Yogako hastapen ikastaroa egingo dute hasiberriendako

Yogako hastapen ikastaroa antolatu du Sanatana Dharma Oñatiko Yoga Eskolak, hasiberriendako. Zortzi eguneko ikastaroa izango da: irailaren 14tik 17ra eta 21etik 24ra. Astelehenetik eguenera emango dituzte eskolak, 19:30etik 21:00etara. Izen-ematea eta informazio zabalagoa, hemen: *yogaonati@gmail.com*.

## Iraileko odol ateratzea gaur, egubakoitza, izango da, ohiko tokian

Iraileko odol ateratzea egingo dute gaur, egubakoitza, Txantxiku ikastolako areto nagusian. Ohi bezala, 17:00etatik 19:30era bitartean egongo dira Donostiatik etorriko diren mediku eta erizainak odol emaileak artatzen. Abuztuan 41 herritarrek eman zuten odola plaza ondoko jolasgunean egon zen unitate mugikorrean.

## Aholkularitza zerbitzua egongo da Zubikoa kiroldegian

Astelehenetik aurrera, aholkularitza zerbitzua egongo da Zubikoa kiroldegiko gimnasioan. Monitoreak egongo dira, kirola nola egin aholkatzeko. Egunaren arabera ordutegi batean edo bestean eskainiko dute zerbitzu hori, eta kiroldegiko sarreran dute horren gaineko informazioa. Irailaren 12tik abenduaren 23ra egongo da zerbitzua.

## Irailean bisita gidatu bereziak egingo dituzte Txokolateixian

Txokolateixian zer dagoen eta horrekin batera txokolateak Oñatin izan duen garrantzia eta historia jakiteko, bisita gidatuak egingo dituzte irailean. Astelehenetik egubakoitzera 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara egingo dituzte, eta asteburuetan, 10:00etatik 13:00etara. Izena aurrez eman behar da: *txokolateixia@hotmail.com*.

## Golf txapelketa asteburuan, Irelore eskolak antolatuta

J.B. | OÑATI

Irelore Golf Eskolak golf txapelketa antolatu du biharko eta etziko. Bihar, benjamin, alebin eta infantil mailetako jokalariak lehiatuko dira (10:30) eta domekan, berriz, jokalari helduen txanda izango da. Antolaketan diharduen Jabi Baltzategiren arabera, 50 bat lagun elkartuko dira: "Oñatiko hogei bat jokalari izango ditugu eta gainerakoak ibarretik zein Euskal Herri osotik etorritakoak izango dira". Bi txandatan lehiatuko dira: lehena 09:00etan eta bigarrena 10:30ean. Bederatzi zuloko zirkuituari bi buelta emango dizkiote. Bestalde, irailaren 27an Gipuzkoako Federazioak antolatutako txapelketa jokatuko da.



SANTI MENDIOLA

## Urbiaraino, oztopoak gainditUz

Joan den irailaren 6rako Urbiara irteera antolatu genuen Trauti Hesirik Gabe elkarteko kideok. Bigarren urtez antolatu genuen; oztopo fisikoak zein psikikoak gainditüz, 30 bat lagun elkartu ginen. Lur orotako ibilgailuak bertaratzeko tramite askotxo egin behar izaten diren arren, merezi izan zuen, egun ederra igaro genuen–eta. Hori bai, datorren urterako boluntario gehiago beharko ditugu... Urrian Errioxara joateko asmoa dugu, upategi bat bertatik bertara ezagutzeko.

KOMUNITATEA GOIENA | TRAUTI ELKARTEA | OÑATI



Neska kuadrilla ikastetxera bidean patinetean eta oinez. | MIRARI ALTUBE

# Autoa alboratuta, ikastetxera, lantokira eta edozein lekutara

Udalak bat egin du irailaren 16tik 22ra egingo den Mugikortasun Astearekin

M.A. | ARETXABALETA

Irailaren 16tik 22ra bitartean ospatuko den Mugikortasunaren Europako Astearekin bat egingo du Aretxabaletako Udalak, eta Udalsareak jarri duen leloaren berri eman gura die herritarrei: *Aukeratu. Aldatu. Konbinatu. Zure mugikortasuna*. Hori horrela, aste horretan autoa albora utzi eta joan-etorriak oinez, bizikletan, patinetean eta garraio publikoan egitera animatu ditu. "Ikastetxera, lantokira edo erosketak egitera, saia gaitezen auto barik mugitzen", gonbidatu dute.

Ikastetxeek ere deialdi horrekin bat egin dute eta Arizmendi Ikastolako Almen guneko kideek, esaterako, zera jakinarazi dute: "Almenera igotzeko bidea itxita egongo da; hortaz, ikasleak autoan hurbiltzen dituzuen familiei eskertuko genizueke industrialdean uztea eta jasotzea horiek". Gainera, taldetxoa osatu gura dute aste horretan bizikletan joan-etorria egin dezaten ikasleek. Talde hori Herriko Plazatik irtengo da, 08:30ean, eta itzuli 16:00etan, Almendik.

**Bizikleta martxa Urkulura**

Irailaren 20an, domeka, bizikleta irteera egingo dute Urkulura. Guraso Foroak egin du dei –Gurabarri eta Batera guraso elkarteak, Arizmendiko gurasoak, Kukumiku elkartea eta Udala– eta irteera 10:00etan izango da, Herriko Plazatik. Urkulutik bueltan, Torrebaso jolasgunera joko dute txirrindulari guztiek hamarretakoa egin eta indarrak berreskuratzeko. Antolatzaileek gogorarazi dute umeek arduradun batekin joan beharko dutela.

**Bigarren eskuko azoka**

Bestalde, bigarren eskuko bizikleta azoka egingo dute irailaren 23an, eguaztena, 17:00etatik 19:00etara bitartean, Herriko Plazan. Lehenengoz antolatu dute Aretxabaletan, eta herritarrak animatu gura dituzte: "Zenbat eta material gehiago jaso, orduan eta arrakasta handiagoa izango du".

Egoera onean dagoen materiala gura dute ordurako: bizikletak, trizikloak, kaskoak... Eta jasoko dituzte hilaren 21ean, astelehena, Arkupe alboan dagoen Udalaren biltegian. Hona ordutegia: 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Salneurria jabeak jarriko dio materialari.

## NIRE USTEZ



PALOMA MARTINEZ

### Ile urdina daukat, eta zer?

Dirudienez, aurten nire ile urdinak nabarmenagoak dira; izan ere, horren inguruan komentario asko entzun ditut. Nire alabak behin baino gehiagotan esan dit: "Guapa zaude, baina ile urdin horiek...": beste lagun batzuek galdetu didate ea zerbait egingo dudan... Egia esan, oso garbi daukat momentu honetan nire ilea luze eta daukan kolorearekin maite dudala. Ez dut aldaketaren beharrik sentitzen. Sentimendu eta indar hauek zaindu nahi ditut eta gizarteak daukan emakumearen estereotipoak nire gainetik pasa eta ni suntsitzerik ez dut nahi. Hanketako, besapeko eta hankarteko ileekin galdu dudan askatasuna oraingoan ez galtzea erabaki dut.

Askatasun hori berreskuratzea oso zaila izaten ari da, eta, gainera, udan eta gaur egun ia ezinezkoa da neska iletsu bat hondartzan ikustea; dena den, gehien harritzen nauena gizonezkoen jokaera da: gehienek ileak kentzeko erabakia hartu dute. Oraindik, batzuetan, nire ileek lotsarazi egiten nauten egoerak daudela aitortzen dut, eta horrek samina sortzen dit.

Zergatik nahi dugu naturaren kontra joan? Nola da posible ekologikoa, biologikoa eta dena delakoa modan egotea, baina gure gorputza den bezala ez maitatzea? Zein adinekin hasiko dira gure umeak ilea kentzen? Noiz egongo da modan gorputz *biologikoa?*

**"Zein adinekin hasiko dira gure umeak ilea kentzen?"**

# Eskaintza ezin hobeekin dator Ixadebalde bihar

Hamabost merkatari elkartuko dira Mitarte kalean; eguraldi txarra bada, Herriko Plazan

M.A. | ARETXABALETA

XI. Ixadebalde azoka egingo dute bihar, irailak 12, Aretxarte merkatarien elkartekoek. 10:00etan hasi eta 20:00etara bitartean prezio ezin hobeak eskainiko dizkiete herritarrei Mitarte kalean –euria eginez gero, Herriko Plazako arkupeetara eroango dituzte postuak.

**Postuak eta taberna**

Hamabost komertzio elkartuko dira kalean; honako hauek: Amaia ume denda; Asensio; Atai; Begira argazkiak; Belar Meta; Brasileña kafe etxea; Gertu janari prestatuak; Haurrak; Kilima; M5 kirol denda; Martin oinetakoak; Tinta Beltza; Titare lentzeria-mertzeria; eta Zubia oinetakoak. Batzuek uda sasoiko jeneroa izango dute eta beste batzuek ohikoa. "Betiko legez, kalitate oneko jeneroa aterako dugu kalera, eta, betiko legez, prezio ezin hobeekin. %70 arteko beherapenak izango dituzte aretxabaletarrek", jakinarazi dute Aretxarteko zuzendaritzako kideek.

Merkatariek jarritako postuen artean egongo da Akorde taberna, gerturatutakoei edatekoa eta mokadutxoak eskaintzeko. Eta Aretxabaleta kirol elkarteko ordezkariek materiala jarriko dute herritarren eskura. Bide batez, kirol elkarteko bazkide egiteko aukera egongo da.

**Jolasak eta zozketak**

Merkealdien azokak irauten duen bitartean, jolasean jardun ahal izango dute neska-mutikoek; egun osoan izango dituzte gaztelu puzgarriak, eta arratsaldean jolasak ere bai.

Azoka itxi aurretik zozketak egingo dituzte Aretxartekoek. Erosketak egindako bezeroen artean zozketatuko dituzte hiru otarre, batetik; eta UDAk emandako bi bazkide txartel, bestetik.

# Laguntzak izango dituzte euskaraz ikasi gura dutenek

M.A. | ARETXABALETA

Egoera ekonomikoak ez duelako oztopo izan behar euskaraz ikasteko orduan, Eskoriatzako eta Aretxabaletako udalek laguntzak iragarri dituzte Leintz Udal Euskaltegiko ikasleendako. Langabe, ikasle, erretiratu, pentsiodun edo baldintza ekonomiko bereziak dituzten lagunek matrikularen %50 bakarrik ordainduko dute, eta Eskoriatzan edo Aretxabaletan erroldatutako ikasleek matrikularen %100 beka gisa jasotzeko aukera izango dute, asistentzia betez gero.

**Herritar guztiendako lekua**

Unai Elkoro alkateak herritarrak animatu gura izan ditu: "Euskaraz batere ez dakizuenentzat, euskaldunak izan arren alfabetatu gabe zaudetenontzat, titulaziorik ez duzuenontzat, euskaraz jarduteko zailtasunak dituzuenentzat... Guztiontzat dago lekua euskaltegian".

Talde eta ordutegi eskaintza zabala dutela iragarri dute euskaltegiko kideek, eta matrikulazio epea zabalik dagoela irail osoan. Argibideak gura dituztenak pasa daitezela bertatik.

## Kintoak kostaldean 69a ospatzen

Aretxabaletako kinto kuadrilla kostaldera joan zen aste bukaeran: "69a sinbolo erotikoa dela–eta...", diote umoretsu.

Aspaldian elkartu barik, egun–pasa dotorea egin zuten Zumaia eta Getaria aldean, eta oso pozik itzuli ziren guztiak.



JOAQUIN URTEAGA

# 'Lokaletik kalera' ekimena herriko artistak ezagutzeko

▸ Kontzertuak, antzerkia eta DJak bihar, kalean

▸ Kuartelean lokalak dituztenen erakustaldia izango da

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Kuartelean entseatzeko tokia duten taldeek eta norbanakoek *Lokaletik kalera* ekimena jarri dute abian. Orain arte egindako lanaren berri eman gura dute, eta, hori erakusteko, kontzertuak egingo dituzte bihar, zapatua, Mitarte kalean eta plazan, 18:00etan hasita –euria eginez gero, Iturrigorri pilotalekuan.

**Artista handiak herrian**

"Kultura mugimendu handia dagoela herrian erakutsi gura dugu ekimen horrekin. Artista handiak daude gurean, eta herritarrek horien lanak ezagut ditzaten gura dugu", jakinarazi du Txaro Gallegok, antzezle aretxabaletarrak. Gela txiki bat du hark kuartelean. Guztira, hamasei bat talde eta norbanako dira herriko sarreran dagoen eraikin handian elkartzen direnak; gehienak musika taldeak, beste hainbat DJak eta antzerkian diharduten bi lagun. "Zortea dugu lokal horiek izanda, nahiz eta berritu beharrean egon. Kulturan inbertitzea benetan merezi duela uste dugu", dio Gallegok.

**DJak gau partean**

Bi gune zehaztu dituzte kontzertuendako, baina euria eginez gero pilotalekuan izango dira talde guztiak. Lehen saioa 18:00etan hasiko dute. 20:00etan, *Work in progress* emanaldia egingo du Arkupen Gallegok. "*Work in progress* emanaldiak esan gura du antzezlana oraindik guztiz bukatu barik dagoela, eta emanaldia egiten da jendaurrean haien iritziak, sentipenak... jasotzeko. Madrilen, esaterako, oso ohikoa da. *Suerte* antzezlana gertatzen nabil eta hori erakutsiko diet Arkupera datozenei".

Kontzertuei ekingo diete berriro 22:00etan, eta horiek bukatutakoan DJen txanda izango da Haizea tabernan. "Guztiak ez dira izango zapatuan, baina asko bai; hortaz, etorri gu ezagutzera", gonbidatu ditu herritarrak.

**EGITARAUA**

**Mitarte kalean**
Inalectric
2-KOT
Criminal Remains
No Code

**Mitarte plazan**
Izenga-B
Kalaña
Crap
Krisis

**DJak Haizea tabernan**
Asier Galiano
Eder
Borgas
Irraghoresound
Dani

**Arkupen**
Txaro Gallego: *Suerte* antzezlana

**TXARO GALLEGO** | ANTZEZLEA

## "Bizitzaren, heriotzaren, amodioaren... gainean jardungo dut"


M.A.

Urte asko daramatza antzerkiaren munduan, eta, hamahiru urte Madrilen pasatu ostean, etxera itzuli zen orain dela urte eta erdi. *Suerte* antzezlana gertatzen dabil, eta hori erakutsiko du bihar, Arkupen (20:00).

**Zeuk sortu duzu antzezlana?**

Bai. Amets bat izan nuen behin, eta *zortea* berba nuela gogoan esnatu nintzen. Hori buruan, kalera joan, Madrilen, eta jendeari galdetu nion ea zer zen zortea. Erantzun horiekin guztiekin eta ingurukoei gertatutako bizipenekin hainbat testu sortu nituen: poesiak... Testu horiek lotu, eta mugimendua eman diet.

**Baina ez dago bukatuta, ezta?**

Ez. Horregatik, *Work in progress* emanaldia egingo dut, herritarrei zabalik dagoen entsegu bat da. Hala jakingo dut zelako erantzuna duen nire lanak, nik zein sentipen ditudan antzezterakoan... Halako saiotxo bat dagoeneko egin dut oso hurbilekoekin, baina orain herritarrei zabaldu gura diet.

**Bakarrizketa da?**

Neu bakarrik egongo naiz taula gainean. Poesia errezitatuko dut, kantuan egingo dut inolako musika barik... Oso proiektu pertsonala da. Eta landuko ditudan gaiak dira bizitza, heriotza, amodioa, desioa, galerak...

**Urduri zaude aretxabaletarrak izango dituzulako ikusle?**

Ez da estreinaldia; hortaz, probak egin ditzaket, akatsak ere bai... Lagunen aurrean egin nuenean oso gustura sentitu nintzen eta oso ondo atera zen. Niretako, gainera, ohorea da herrian bertan egin ahal izatea.

# Kurtzebarrira joango dira herritarrak etzi

**M.A.** | ARETXABALETA

Ohiturari jarraituz, Kurtzebarri eguna ospatuko dute aretxabaletarrek iraileko bigarren domekan, eta gogoratu behar da duela 87 urte jarri zutela gurutzea tontorrean.

Murrukixo mendizale elkarteko kideek salda eskainiko diete, 10:30ean, tontorrera iritsitako goiztiarrei, eta 11:00etan meza esango dute. Horren ostean, jatekoa izango da: txorizo-muturra, gazta eta ardoa. Behin Kurtzebarriko ekitaldiak bukatuta, Mendiola auzora jaitsiko dira guztiak, eta 13:00etan bermuta hartuko dute. Eguraldi txarra eginez gero, aldaketak egin ditzakete egitarauan antolatzaileek.


Kurtzebarriko gurutzea iaz. | M.A.

## Beinke-Loramendi dantzarako entseguak egingo dituzte

San Migel jaiak gertu daudela jakinik, Beinke-Loramendi dantzarako entseguak antolatu ditu Loramendi elkarteak, batetik, ikasteko; eta bestetik, gogorarazteko. Lau saio izango dira, martitzen eta eguenetan, udaletxe zaharrean (19:30). Hona egunak: 15, 17, 22 eta 24. Azken hori plazan egingo dute txistulariekin batera, eta buruko zapia zelan jarri irakatsiko dute orduan.

Argibideak gura dituenak Loramendira jo dezala (943 77 09 70, 685 75 67 29 eta *loramendielkartea@gmail.com*), baina ez dago aurrez izenik eman beharrik.

# Herritarrak gonbidatuta daude Arientzarock-era

Agorreko Andramaixak ospatzen dabiltza Areantza auzoan eta bihar kontzertua dago

**M.A.** | ARETXABALETA

Irailaren 8an izan da Agorreko Andramari eguna, baina Areantzako jaiek oraindik emateko dute onena. Gaur, egubakoitza, auzo-afaria egingo dute, eta bihar izango da egun nagusia. Meza esan ostean egingo dute Arientzarock emanaldia, auzotarrek egindako kontzertua. Domekan, ostera, Kurtzebarri egunarekin bat egingo dute.

**EGITARAUA**

**EGUBAKOITZA**
**20:00** Kanpai-joaldia.
**20:30** Auzo-afaria.

**ZAPATUA**
**10:30** Txistularien diana.
**12:00** Meza.
**12:45** Mokadutxoa.
**13:00** Arientzarock emanaldia.
**13:45** 30. ginkana.
**17:45** Jolasak eliza ondoan.

**DOMEKA**
**09:30** Kurtzebarrira irteera iturriko erromaratik.
**12:00** Argazkia ateratzea Kurtzebarri tontorrean.
**12:45** Ipurdi gainean labanderan etxera itzulera.
**14:00** Martin Kabarrixa pertsonaia etxeratu.


JOSE IGNACIO ISASMENDI

## Larrialdietan ausartak izan

KOMUNITATEA GOIENA | BASOTXO ERRETIRATUAK | ARETXABALETA

Joan den astean Gurutze Gorriko bi aditu, Bittor eta Sonia, egon ziren gurekin eta erakutsi ziguten nola erabili behar den desfibriladorea. Mezu garrantzitsua eman ziguten: beldurra alboratu eta ausartak izatea larrialdi bat dagoenean. Hamabost bat lagun elkartu ginen, eta pozik gaude, parte-hartze handia izan zelako.

Bestetik, datorren egubakoitzean, irailak 18, iparraldera joango gara egun-pasa: Larhun, Sara, Zugarramurdi, Ezpeleta... 07:30ean irten eta 19:30ean itzuliko gara.

Mobiliario ARENAZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

# Garagardo azoka solidarioak irailaren 17an zabalduko ditu ateak

## Laugarren urtez egingo dute, eta aurten ere zaharren egoitzari laguntzeko dirua batzeko izango da

**IMANOL BELOKI** | ESKORIATZA

Zaharren egoitzak antolatuta, eta Udalaren, herriko elkarteen, denden, tabernen eta norbanakoen laguntzarekin, garagardo azoka solidarioa egingo dute, laugarren aldiz, irailaren 17tik 20ra bitartean. Herriko plazan jarriko duten karpak 18:00etan zabalduko ditu ateak, eta lau egunean nahi adina garagardo edateko aukera izango da.

Guztira, 1.800 litro inguru garagardo izango da, mota guztietakoak, gainera: alkoholdunak, alkohol bakoak, limoiarekin nahastutakoak eta artisaua. Bestalde, mokadutxo bat hartzeko aukera ere egongo da: oilasko izterrak, saltxitxak, ukondoa, patata frijituak eta herritarrek prestatutako tortilla-pintxoak. Saldutakoarekin batzen den dirua, urtero egin den moduan zaharren egoitzako lanei aurre egiteko erabiliko da.


Garagardo azokan herritar bat garagardoa zerbitzatzen. | GOIENA

Garagardoak eta jakiak hartzeaz gain, nahi dutenek aukera izango dute zaharren egoitzari beste modu baten diruz laguntzeko; izan ere, tonbola solidarioa egongo da aurten ere, eta han, eskoriatzarrek etxetik eroandako materiala zozketatuko dute.

Tonbolarako objekturen bat eman nahi duten guztiek zaharren egoitzara eraman dezakete gaurtik domera bitartean. Hala, zaharren egoitzako patronatuak eskoriatzarrak animatu nahi ditu tonbolan eta jai solidarioan parte hartzera.

### Zaharren egoitzakoen bisita

Urtero moduan, zaharren egoitzako erretiratuek bisita egingo dute garagardo azokara. Egubakoitzean, hilak 18, arratsaldean, 16:30 inguruan joango dira zaharren egoitzakoak plazara merienda egitera.

# Euskara ikasteko diru laguntzak aurkeztu dituzte

## Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalek ahalegin ekonomikoa egingo dute euskara ikasleentzat

**I.B** | ESKORIATZA

Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalek 2015-2016 ikasturterako Leintz Udal Euskaltegirako diru laguntzak aurkeztu dituzte. Bi herrietako alkateek adierazi dute udaletatik ahalegin ekonomikoa egingo dutela, nahiz eta egoera ekonomikoa ez den "nahi bezain ona".

Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkateak honako hau esan du: "Udalok bizi dugun egoera ekonomikoa, nahiz eta ez izan nahi bezain ona, ahalegin ekonomikoa egingo dugu euskara ikasi edo hobetu nahi dutenentzat."

Gainera, langabeek, ikasleek, erretiratuek, pentsiodunek edo baldintza ekonomiko bereziak dituztenek matrikularen %50 soilik ordainduko dute, eta Eskoriatzan edo Aretxabaletan erroldatutako ikasleek matrikularen %100 beka gisa jasotzeko aukera izango dute, asistentzia betez gero. Hala, euskara ikasteko erraztasunak ematea eta doakotasunera bidean jartzea da helburua.

### Matrikulazioak zabalik

Irail osoan egin daiteke matrikula euskaltegian, baina urrian joaten direnak ere ez dira leku barik geratuko; jendearen beharrei egokituta modulazioa aldatu diete ikasleei, eta modulazio zabalagoa dago.

Aurreko urteetan eskaini denarekin batera, aurten, berritasun moduan, A-1 eta A-2 titulazioak eskainiko direla azaldu du Karmele Agirregabiriak, Leintz Udal Euskaltegiko zuzendariak. "Honek ikasle bat hutsetik hasita urtebetean titulazio baten jabe izan daitekeela ahalbidetuko du, fina bada".


Eskoriatzako pleno aretoan egin zen prentsaurrekoan . | JOSU BILBAO

# Europako Mugikortasun Jasangarriaren Astea izanik, ekintzaz beteko da herria

## Bizikleta martxa, bidaiarien hitzaldiak, goitibeheren tailerra, eta abar izango dira

**I.B** | ESKORIATZA

Aurten, Mugikortasun Astearen zortzigarren edizioa izango da, eta hori prestatzen Eskoriatzako Udaleko Gazteria, Kirol eta Ingurumen sailak aritu dira. Ikastetxeek eta Huhezik ere egin dute ekarpena, Osasun Sailarekin batera, eta aste osorako hainbat ekintza prestatu dituzte.

Lehen hitzordua goitibeheren eta patineteen aparkalekuak egiteko tailerra izango da. Bertara joaten denak aholkularitza eta laguntza izango du, zerbait muntatu edo soldatu behar badu… Hala, gonbidapena egin dute antolatzaileek zapatu honetan 10:00etan herriko plazan batzeko. Arratsaldean, 16:00etatik 19:00etara bitartean, berriz, Namasteko aldapan jaitsierak egiteko aukera izango dute bertaratzen direnek, eta, horretarako, errepidea itxi egingo dute ordu tarte horretan.

Tailer hori motorrak berotzen hasteko ekintza izango da; izan ere, irailaren 19an goitibehera lasterketa egingo dute Apotzagatik San Pedrora, 17:00etan.

Irailaren 17an, berriz, Ostegun Bidaiarien bigarren kontakizuna izango da Huhezin, 21:30ean. Mikel Bringasek *Senegal-Gambia bizikletan* kontakizuna egingo du eta Marivi Zurutuzak, berriz, *Mozambike bihotzean* hitzaldia.

Irailaren 18an, bigarren eskuko bizikleta azoka egingo dute, 18:00etan, plazan. Salgai jarri nahi diren bizikletak, trizikloak, patineteak-eta kiroldegira eraman beharko ditu jabeak irailaren 17a baino lehen, bere objektuei prezioa jarrita.

Irailaren 20an, bizikleta martxa egingo dute: Eskoriatza-Urkulu-Eskoriatza. 10:00etan irtengo dira bidea egingo dutenak plazatik, eta Aretxabaletatik ere joango dira. Ondoren, Torrebason hamarretakoa egongo da parte-hartzaile guztientzat.

Horrekin batera, irailaren 16tik 22ra ikastetxera oinez edo bizikletan joaten direnentzat gosari osasuntsua egongo da irailaren 22an.

### Udalerri Aktiboen jardunaldiak

Mugikortasun Asteari amaiera emateko, Debagoieneko eta Debabarreneko Udalerri Aktiboen jardunaldiak egingo dituzte hilaren 24an Zaldibar antzokian.

Goizean goizetik eguerdira bitartean, hainbat arlotako profesionalek hitzaldiak egingo dituzte. Hain zuzen ere, helburua da jarduera fisikoa bultzatzea eta sedentarismoa saihestea.

# Oroimena lantzeko tailerra Olazar erretiratuen elkartean

Oroimena modu aktibo eta entretenigarrian lantzeko tailerra hasiko da irailaren 16an; eguaztenero izango da, Olazar elkartean. 45 euro ordaindu behar dira, eta izena ematen dutenen artean adostuko dute ordutegia. Ondo pasatzeko eta esperientziak partekatzeko aukera izango dute.

zenbaki
aholkulariak-abokatuak

CERT ISO 9001
GARANTÍA DE ALQUILER

• **Juridikoa:**
- Zibila: banantzeak, herentziak, edozein motatako erreklamazioak.
- Penala: hutsegite epaiketak, salaketak, zirkulazio istripuak.
- Administratiboa: zigortzaile txostenak, errekurtsoak.
- Merkataritzakoa: sozietateen eratzeak, ordaingabeak, hartzekodun konkurtsoa.

• **Laborala:** erretiroak, kaleratzeak, enplegu-erregulazioko espedienteak.
• **Fiskala:** enpresen balorazioak, bideragarritasun-txostenak, likidazioen elaborazioa.
• **Kontabilitatea:** pertsona fisiko eta juridikoak.

**Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA • Tel.: 943 71 21 12**
***www.zenbaki.es***

# Oinezko plana abian jarriko du Udalak iraileko azken asteburuan

Herritarrekin elkarlanean egindako informazio prozesua martxan dago

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Antzuola oinezkoendako herri bilakatu gura du Udalak, oinezkoek lehentasuna izango duten herri erosoagoa lortzea dute-eta helburu. Asmoa da irailaren 25etik aurrera behin betiko zirkulazio aldaketa indarrean izatea.



Auto bat Kalebarrengo zubitik Herriko Plazara bidean. | MAIDER ARREGI

**Informazio prozesua**

Herritarrekin elkarlanean definitu gura du Udalak oinezkoendako plana. Horregatik, informazio prozesua abian da. Lehen batzarra eguaztenean egin zuten herritarrekin. Eta hilaren 18ra arte antzuolarren ekarpenak egiteko buzoia jarrita dago. Irailaren 22an, aurkezpen bilera egingo dute batutako ekarpenekin. "Behin betiko plana aurkeztuko dugu hilaren 22an, eta asteburu horretan bertan martxan jarri. Izan ere, oinezkoendako planak nagusiki asteburuetan izango du eragina", argitu du Beñardo Kortabarria alkateak. Hala, hilaren 25ean, herritarrekin adostutako behin betiko zirkulazio aldaketak indarrean jarriko ditu Antzuolako Udalak.

Esan behar da alkateak azaldu duela pibote bidezko sistemak antolatuko duela zirkulazioa. Modu horretan, edozein aldaketa egiteko aukera egongo da. Beraz, egokitzapenak egiteko aukera izango dute herritarrek irailaren 26tik urriaren 31ra arte.

**Aldaketa nagusiak**

Aste barruan arratsaldeko zortzietatik aurrera ezin izango da Kalebarrenetik Herriko Plaza zeharkatuz Buztinzurira igo. Izan ere, Gailur taberna inguruan bidea itxita egongo da. Asteburuetan ere bide bera itxita egongo da, Buztinzuri oinezkoendako egokitu gura dute-eta. Hala, ezin izango da plazan aparkatu. "Orain ere ezin da aparkatu plazan; seinalea jarrita dago aspalditik", argitu du alkateak.

Azpimarratzekoa da pilotaleku aurrean egingo den aldaketa. "Egunero, 16:00etatik 19:00etara, itxita egongo da pilotalekurako bidea. Baina, norbaitek premia izanez gero, sartzeko aukera izango luke, pibotea kenduta. Udaltzainak izango du zirkulazioa antolatzeko piboteak jarri eta kentzeko ardura".



Maruja meiga eta Belen laguntzailea queimada prestatzen. | JABI ETXANIZ

# Eskerrik asko antzuolarrei emandako elkartasunagatik!

KOMUNITATEA GOIENA | ANELKAR | ANTZUOLA

Pintxoen salmentekin eta bestelako diru-ekarpenekin 1.210 euro batzea lortu dugu Senegalen eta Kongon ditugun proiektuetarako. Oso pozik gaude herritarrek emandako erantzunarekin. Iaz 750 euro lortu genituen eta aurten gora egin du herritarren elkartasunak. Herritarrek euren borondatez egindako hogeita sei tortilletatik 400 pintxo saldu genituen! Eskerrik asko!

**Queimada eta konjurua**

Galiziako Maruja meigak eta Belen laguntzaileak konjurua egin zuten. Belenek euskaraz egin zuen. Ondoren, prestatutako queimada dastatzeko aukera izan genuen Zurrategi plazan. Giro paregabean, hamar litro queimada ere edan genituen bertaratutakoek.

## Edurne Uribesalgoren eskutik helduendako eta umeendako eskulan ikastaroak irailean

Koadroak margotzeko, gauzak zaharberritzeko, egurra margotzeko, gauzak itxuraz aldatzeko... nahi dena egiteko aukera izango da Edurne Uribesalgoren eskulan ikastaroetan. Izena emateko interesa dutenek irailaren 21a dute azken eguna. Udaletxera dei dezakete (943 76 62 46) edo *kultura@antzuola.eus* helbidera mezua bidali. Helduen ikastaroa eguenetan izango da (14:45-16:30 eta 18:00-19:45); umeena, aldiz, eguaztenetan (17:00-18:00) eta eguenetan (16:45-17:45). Umeen taldean gehienez bederatzi ume ibiliko dira. Gehiagok ematen badute izena, zozketa egingo dute.

## Ate irekiak egingo ditu Eguzki udal gimnasioak, herritarrei hainbat zerbitzu ezagutzera emateko

*K-strech* metodoa jarri du martxan Antzuolako gimnasioak. Helburua da herritarrei metodo hori gerturatzea eta zertan datzan ezagutzera ematea. Hala, irailaren 18rako, egubakoitza, ate irekien jardunaldia antolatu dute, 17:00etan 17:45ean eta 18:30ean. Danilo Barzio *K-strech* metodoaren sortzaileak emango ditu azalpenak. Plaza mugatuak dira, eta aurrez erreserba egin beharra dagoela nabarmendu dute gimnasioko arduradunek. Hala ere, herritarrek irailaren 22an, 23an, 24an eta 25ean ere izango dute metodoa gertutik ezagutzeko aukera. Ekintzaren batean izena ematen duen bazkideak edozein ekintza aparteko kostu gabe egiteko aukera izango du.

## Aritz Kortabarria, Liernin txapeldun

Aritz Kortabarria txirrindulariak Lierniko Mendi Kriteriuma irabazi zuen joan den domekan, irailaren 6an, gazteen mailan. Denboraldia bukatzear dago, eta sasoiko dago antzuolarra. Denboraldi berrian, Kortabarria Zarauzko Jira Bira, Parking Geltokia taldean ibiliko da, 23 urte azpiko mailan.



BEÑARDO KORTABARRIA

## OHARRAK

**ODOL ATERATZEAK**

Odol emaileen elkarteak irailaren 17an, eguena, egingo ditu odol ateratzeak. Betiko moduan, 17:30ean, Olaranen.

**DIRU LAGUNTZAK**

Herriko kirol taldeei diru laguntza emateko 6.000 euroko poltsa dauka Udalak. Eskaerak egiteko azken eguna: azaroak 30.

**AUZO-KONPOSTA**

Orturako edo loreontzietarako konposta udaletxean jaso dezakete herritarrek.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJIKA
HARATEGIA

Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

GAILUR
taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

# Kofradiaren istorioak eta bitxikeriak, liburu batean

Josemari Velez de Mendizabalek idatzi du lana



Josemari Velez de Mendizabal, Cristina Etxenausia eta Rafael Bengoa. | A.E.

**ARANTZAZU EZKIBEL** | ARAMAIO

Ibabeko Andra Mari kofradiaren 500 urteko historia jasotzen duen liburua argitaratu berri du kofradiak. Josemari Velez de Mendizabalek idatzi du liburua, 111 orrialdekoa. Domekan aurkeztuko dute jendaurrean, Andra Mari eguneko ospakizunetan, eta astelehenetik aurrera salgai egongo da 10 euroren truke.

Cristina Etxenausia kofradiako lehendakariak azaldu du kofradiari nolabaiteko izaera juridikoa eman nahi izan diotela aurten, eta, gainera, urteurren borobila aprobetxatu dutela liburua argitaratzeko.

### Historia dokumentatua

Velez de Mendizabalek dio 1562an kofradia egon bazegoela; baina historia dokumentatua 1799an hasten da: "Gaur egun gordetzen den kofradiaren lehenengo liburua 1799koa da; baina jakin badakigu aurretik ere bazeudela". Kofradiari buruz historialari askok idatzi dute: Migel Madinabeitiak, Gabriel Jauregik, Micaela Portillak, Jesus Mari Elejaldek eta Velez de Mendizabalek berak. Bada, liburua idazteko idatzi horietan eta kofradiaren aktetan oinarritu da Velez de Mendizabal.

> **DATUA**
>
> **131**
>
> KOFRADE
>
> Egun, 131 kide daude kofradian; bizirik dagoen taldea dela azaldu du kofradiako lehendakariak, Cristina Etxenausiak.

### Kofradia, Jainkoa gurtzeko

Kofradia zertarako sortu zen azaldu du Velez de Mendizabalek. Batetik, Ama Birjinaren bitartez Jainkoa gurtzeko; eta, bestetik, kofradeak hiltzen zirenean heriotzak ekar zitzakeen gastuak arintzeko eta etxekoei laguntzeko. Kofradiak diru funts bat zuen: urteko kuotarekin –2 marabedi, adibidez– eta penalizazioekin osatzen zen diru funts hori. "Kofradeak hainbat betebehar zituen: batzarrera joan, hiletetara joan, bazkarira joan... Joaten ez zenak penalizazio izaten zuen", dio.

Sortu zenetik, hainbat aldaketa izan ditu kofradiak. Hasiera batean Cofradia de los Hijosdalgo zen kofradiaren izena; baina 1845ean kofradia edozeinentzat zabaldu zuten.

### Kofradiaren ondarea

Kofradiak hainbat ondare ditu: baseliza eta zelaia, besteak beste. XIX. mendean, desamortizazioak zirela-eta, konturatu ziren ondare horiek jabetza pribatura pasatzeko arriskua zegoela. Hori horrela, ezkutuko hitzarmena egin zuten Udalarekin, eta ondare horiek Udalaren izenean jarri zituzten. Gaur egun, ondare horien jabea kofradia da, baina kofradiak ez du horien titularitatea: "1948an, orduko alkate Bixente Lasagak aitortu zuen desamortizazioak zirela-eta egin zutela operazio hori, baina ondareak kofradiarenak zirela".

Kofradiak beste hainbat altxor ere baditu: orain dela gutxi arte, Uribarri Ganboan egindako ontziteria erabili izan dute kofradiako bazkarietan. Gaur egun, ordea, ontziteria hori Elosuko Euskal Herriko zeramika museoan dago.

### Salda goxoa prestatzen dute

Garai batean Jauna hartzeko baraurik egon behar izaten zenez, 08:00etan esaten zen meza, eta herritarrak 05:30ean joaten ziren ermitara bekatuak aitortzera. Ondoren, salda eta legatza edo okela izaten zuten, hamarretakoa egiteko. Egun, Felix Elejalde 05:00etan joaten da Ibabera, hamaiketarako salda goxoa prestatzera.

> **IRAILAK 13, DOMEKA**
>
> **11:00** Salda.
>
> **12:30** Meza.
>
> **13:15** *Ibabeko Andra Mari kofradia* liburuaren aurkezpena. Liburua 10 euroren truke egongo da salgai Aramaioko okindegian, liburutegian eta udaletxean; eta Arrasateko Elkar liburu dendan.
>
> **13:30** Batzar nagusia.
>
> **14:30** Bazkaria.

# Irailaren 26an egingo dugu mendi martxa

Aitor Aranaren omenezko XIX. ibilaldia izango da eta egunean bertan eman beharko da izena

**KOMUNITATEA GOIENA** | ORIXOL
ORIXOL MENDI ELKARTEA | ARAMAIO

Orixol mendi elkartetik, Aitor Aranaren omenezko XIX. mendi ibilaldia antolatu dugu. Irailaren 26an izango da, zapatua. Izena egunean bertan eman ahal izango da, Aramaioko kiroldegian, 07:30ean.

Antolatu dugun mendi ibilaldia 24 kilometrokoa izango da; Ibarratik irtengo gara, eta Lurgorri, Teilamendi, Zabalandi, Orixol, Marixeka eta Kruzeta zeharkatuko ditugu. Ibilaldiak Ibarran izango du amaiera. 4 eta 6 ordu bitarteko ibilaldia izatea espero dugu.

### Izena egunean bertan

Ez dago zertan izena aurrez eman. Izena egunean bertan eman ahal izango da, 07:30ean, kiroldegian. Izen-ematea 10 euro izango da. Mendi martxako irteera 08:00etan izango da, eta kiroldegitik bertatik hasiko gara.

Aurtengo irailean egingo duguna Aitor Aranaren omenez antolatzen dugun 19. ibilaldia izango da.




Mendi ibilaldiko kartela. | ORIXOL

# Udako oporrak amaituta, asteon hasi dute ikasturtea gaztetxoek

**A.E.** | ARAMAIO

Martitzenean, irailaren 8an, hasi zituzten eskolak Aramaioko-neska mutikoek. 2015-2016 ikasturtean 140 ikasle ibiliko dira San Martin eskolan: horietatik, 45 Haur Hezkuntzakoak izango dira, eta beste 95 Lehen Hezkuntzan matrikulatutakoak.

### Pozik eta urduri

Udako oporrak amaituta bueltan izan dira ikasleak. Lehenengo egunetan, gaztetxo guztien antzera, pozik eta urduri ibili dira Aramaioko neska-mutikoak.

Hasi berri den ikasturtean hamazortzi irakasle izango ditu Aramaioko eskolak, eta, horiez gain, hezitzaile bat ere ibiliko da lanean. Nabarmendu behar da iazkoarekin alderatuta irakasle bat gehiago izango dutela aurten, lan-jardun erdian, *Sare_hezkuntza gelan* proiektua dela-eta. Aipatutako proiektua onartu egin diote Aramaioko eskolari.

### Haur eskolan ere lanean

Joan den egubakoitzean, irailaren 4an, hasi zuten ikasturtea haur eskolan. Etxeko txikienak daude han, 1-2 urte bitartekoak.

## Country-folk-rock musika eskainiko du The Crazy Wheels Band taldeak gaur iluntzean Sastiñan

Gasteizko The Crazy Wheels Band hirukoteak izango du Sastiña girotzeko ardura gaur, egubakoitza. Musika lasaiarekin gozatzeko aukera eskaintzea da Sastiñako musika zikloaren helburua. Joan den egubakoitzean hasi zituzten emanaldiak, Zumaiako Serious Bussines taldearekin. Emanaldia 19:30ean izango da, baselizan bertan.

## Ikasturte berriko pilates eskaintza prest dute: astelehenetan eta eguaztenetan izango da ikastaroa

Pilates ikastaroa eskainiko dute urritik ekainera bitartean, astelehen eta eguaztenetan. Udaletxean izango da ikastaroa, 19:30etik 20:30era. Plaza mugatuak izango dira eta irailaren 25a baino lehen eman beharko da izena udaletxean bertan. Ikastaroaren prezioa 110 euro da –ikasturtea–, eta izena ematerakoan ordaindu beharko da.

## Kiroldegiko kantxa alokatu gura duenak irailaren 25a baino lehen egin beharko du eskaera

Udalak antolatu du denboraldi berriko kiroldegiko kantxaren egutegia. Antolaketa horren arabera, hainbat ordu libre geratu dira, eta erabiltzeko aukera egongo da. Orduak dira: martitzen eta eguazten, 20:30etik 21:30era; eta eguen eta egubakoitz, 20:00etatik 21:00etara. Kantxa ordu horietan alokatu gura duenak eskaera egin beharko du udaletxean irailaren 25a baino lehen.

## Irailaren 15ean hasiko dute sasoian egoteko gimnasia ikastaroa, hirugarren adinekoendako

Hirugarren adinekoei zuzendutako sasoian egoteko gimnasia ikastaroa irailaren 15ean hasiko da, martitzena. Astean bi saio izango dituzte: martitzenetan eta eguenetan izango dira gimnasia eskolak, 10:00etatik 11:00etara, kiroldegian. Ikasturte osoko ikastaroan izena eman gura duenak udaletxera joan beharko du horretarako.

ELGETA



Jose Ignacio Manso baratze parkeko lursailean lanean. | GOIENA TELEBISTA

# Baratze parkean hasita daude lehen uzta jasotzen

## Lekak, piperrak, kalabazak, azenarioak... badago zer batu, eta uda ona izan dela diote ortuzainek

LARRAITZ ZEBERIO. | ELGETA

Maiatzean hamasei lagunek hartu zuten lursaila Elgetako baratze parkean, eta ortuzain berriak orain ari dira lehenengo uzta jasotzen: lekak, tomateak, kalabazinak, azenarioak, letxugak, berenjenak, piperrak, zerbak... "Hasi berriak gara eta nahikoa lursail da guretzat", esan du baratze parkeko erabiltzailea den Iratxe Belarrek. "Argi dago gustatu egin behar zaizula, eta esperientzia oso ona izaten dabil. Orain dago, gainera, onenean, batzeko garaia da-eta".

Jose Ignacio Mansok ere lursaila du baratze parkean. "Uda oso ona izan da. Gainean egon behar duzu eta denboratxo bat eskaini egunero, baina esker oneko lana da", azaldu du. Belar eta Manso bat datoz: tomatea aurrera ateratzea izan da borroka handiena. "Ekologikoan ari gara, eta, produktu erasokorrik bota gabe, zailagoa da izurriteei aurre egitea", azaldu du Mansok. Gorrina eta harra aipatu ditu, gehienbat, eta landatu berritako letxugen inguruan karea botatzen ikusi dugu. "Ezin askoz gehiago bota!", dio. "Borroka latza da hau. Landatzen ditudan letxugen erdia niretzat eta beste erdia bareendako eta barraskiloendako!", gaineratzen du, irribarretsu, baina baikorra da. "Berriak gara, eta ikasiko dugu".

### Lursailak libre

Iraitz Lazkano alkateak ere balorazio positiboa egiten du, eta , aditzera eman duenez, laster bilduko dira ortuzainekin baratze parkearen funtzionamenduaren gainekoak argitzeko. Gaineratu du beste sei lursail daudela prest erabiltzaile berriak hartzeko.

# Umorea du ardatz Espaloia kafe antzokiaren udazkeneko programazioak

L.Z. | ELGETA

Espaloiko arduradunek hamabost ikuskizun iragarri dituzte udazkenerako; adibidez, sona handiko umoregileak izango dira. Rody Aragon pailazoa —hilak 26—, Faemino eta Cansado bikotea —urriak 3—, Xabier Deltel —urriak 16—, Beatriz Rico —urriak 23—, Sara Escudero —urriak 25—, Pez en Raya konpainia... eta azaroaren 7an Bergarako musika eskolaren *Mozkorra parregarri* opera komikoa.

Sarrerak salgai daude Interneten zein kafe antzokian. Herrixa Dantzan ekimenak ere jarraipena izango du: azaroaren 1ean egingo dute lehenengo saioa.

### Lehen ikuskizuna

Hilaren 20rako iragarri dute familia osoarendako den *Ikusi makusi* antzezlan musikatua. Sarrera zortzi euro da. Aurrez erosiz gero, bost euro; eta bi umerendako sarrerak erosiz gero, nagusi batendako doan.



Udazken honetan Espaloian izango diren artistetako batzuk. | ESPALOIA

## OHARRAK

**ZAINTZA-LUDOTEKA, BILERA**
Zerbitzu biek astelehenean, hilak 14, zabalduko dituzte ateak. Gurasoendako informazio bilera deitu du Udalak gaurko, hilak 11, 19:00etan, ludotekan.

**KZGUNEA**
Dinamizatzailea hilaren 16an, eguaztena, izango da kultura etxeko KZgunean, 09:00etatik 10:30era. Kontsultak eta prestakuntza saioak egiteko aukera izango dute 16 urtetik gorako erabiltzaileek.

**GARBIGUNE IBILTARIA**
Garbigune ibiltaria Salbador kaleko plazan izango da eguaztenean, hilak 16, 10:00etatik 21:00etara.

**MENDI IRTEERA**
Kantatzeke mendi taldeak hilaren 27rako antolatu du hurrengo irteera. Interesatuek ohiko bideetatik egin dezakete izen-ematea.



L.Z.

## Amaitu dira udako oporrak!

Martitzenean, hilak 8, eman zioten hasiera ikasturte berriari Elgetako herri eskolan. Ikasleak ez ezik, guraso eta senitarteko ugari elkartu ziren eskolako atarian. Bereziak izan dira lehen egunok: ikasgela berrira egokitu, materiala prestatu... Ordutegia ere berezia izan da, goizeko jarduna izan baitute. Astelehenetik aurrera ohiko ordutegia izango dute.

## Hamaika lagunek baieztatu dute parte-hartzea herri azokan, eta Sagardo Eguna deitu du gaztetxeak

Bederatzi nekazarik eta bi artisauk baieztatu dute parte-hartzea hilaren 19an, zapatua, Elgetan egitekoa den herri azokan. Gogoratu behar da egun berean jokatuko direla Intxortara igoera eta txorimalo lehiaketa. Bestetik, gaztetxeak Sagardo Eguna deitu du, eta, horrekin batera, urteroko tortilla lehiaketa. Interesatuek liburutegian eman behar dute izena hilaren 17a baino lehen.

## Hilaren 23rako irteera antolatu dugu Errioxara; bihar, zapatua, egingo dugu izen-ematea Ozkarbin

KOMUNITATEA GOIENA
XALBADORPE ELKARTEA | ELGETA

Erretiratuen Xalbadorpe elkartetik irteera antolatu dugu Errioxara hilaren 23rako, eguaztena. Bastidan egingo dugu hamarretakoa, bisita eta bazkaria Guardian, eta Haron arratsalde-pasa. Irteera egunean, Ozkarbi elkarte aurretik abiatuko gara, 08:45ean. Interesatuek bihar, hilak 12, eman behar dute izena, 11:00etatik 12:00etara, Ozkarbi elkartean. Prezioa 30 euro da.

## Ama Guadalupekoaren 40 bat jarraitzaile elgetar izango dira domekan Kontxako Bandera ikusten

Ezin estuago daude gauzak, eta domekan ere Elgetako jarraitzaileen babesa izango du Hondarribia arraun elkarteko Ama Guadalupekoa traineruak. Egun-pasa joango dira elgetarrak, eta, bandera irabaziz gero, portura jaitsiko dira garaipena arraunlariekin batera ospatzera. Baina argi dute: "Gertatzen dena gertatzen dela, ez digu inork egindako denboraldi zoragarria kenduko".

LEINTZ GATZAGA

# Jai arrakastatsuak izan dituzte aurten ere Leintz Gatzagan

IMANOL BELOKI | LEINTZ GATZAGA

Zapore gozoarekin amaitu dituzte gatzagarrek Andramari jaiak. Aurten ekintza ugari izan dituzte herrian, eta, gainera, jende asko ibili da.

Autobus zerbitzu berezia jarri izanak Debagoieneko jende asko gerturatzea ekarri zuen, nahiz eta gauean arazotxoren bat edo beste izan zen; izan ere, autobus bat lehenago irten zen geltokitik eta hamar pertsona inguru herrian bertan geratu ziren. Hala eta guztiz ere, gatzagarrek eskuak zabalik hartu zituzten, eta bertako lagunen etxeetan geratu ziren lotan.

Zapatuak ere jende ugari ekarri zuen herrira; izan ere, 220 pertsona inguru izan ziren Dorletako Santutegia eta Gatz museoa bisitatzen, eta aparkatzeko antolamendua oso ona izan zen.

### Balorazio positiboa

Eneka Zankada Gatzagako alkatearen esanetan: "Herritarrek egindako lana aipatu beharra dago. Hartu dituzten ardurengatik izan ez balitz, ezingo ziren jai hauek aurrera eraman."

**Informazio gehiago:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Trikitilariak kaleak girotzen. | AITOR AGIRIANO

## Erretiratuek jaien osteko urteroko bazkaria egingo dute zapatuan

Urteroko ohitura den moduan, Udalak gonbidatuta, Leintz Gatzagako erretiratuek Andramari jaien osteko bazkaria egingo dute zapatu honetan. Bazkaria Toki-Eder elkartean izango da, eta hamazazpi pertsona inguru batuko dira. Elkartutakoen artean nagusienak direnei aipamen berezia egingo diete, eta oparitxoa jasoko dute Udalaren partetik.

FUTBOLA

**Andoni Azkargorta** | Eibar futbol taldeko entrenatzaile laguntzailea

# "Egunero Ipuruara sartzen naizenean nire buruari esaten diot aukeraz gozatzeko"

- Antzuolakoak bigarren urtea beteko du Eibarren
- Kontrarioek zelan jokatzen duten aztertzen du



Andoni Azkargorta, Atxabalpen, Eibarrek uztailean hasi zuen denboraldiaurreko lehenengo entrenamendu saioan. | XABIER URZELAI



**XABIER URZELAI** | ARRASATE

Andoni Azkargorta (Antzuola, 1978) gertutik ezagutzen dutenek badakite zelan bizi duen futbola. Bailarako talde gehienetako entrenatzaile izan da dagoeneko, eta iaz Gaizka Garitanoren eskutik elitera salto egin ahal izan zuen, Eibarko analista taktiko moduan. Futbola, baita zopan ere. Aurten Mendilibarrek du talde armagina zuzentzeko ardura, eta Zaldibarkoak berdegunera gehiago jaisteko eskatu dio antzuolarrari; ondoan gura du, antza. Astelehenean motz geratu zen *Harmailatik* saioa.

**Eibarrek La Rosaledan jokatuko du domekan (20:30), Malagaren kontra. Dagoeneko, sekretu gutxi izango du talde horrek zuretako.**

[Barre] Egia esan, Malagaren kontrako txostenak amaituta daude; gainera, asteburuan atsedena izan dugu. Dagoeneko datorren asteko kontrarioa aztertzen ari naiz; hau da, Atletico.

**Aurten, baina, Mendilibarrek beste zeregin batzuk jarri dizkizu. Zein da, zehazki, Eibarren egiten duzun lana?**

Taldeko analista taktikoa naiz; hau da, Eibarren kontrario izango direnak gertutik jarraitzen ditut, posible bada partiduak zuzenean ikusita. Aurten, esaterako, Sevillaren kontra jokatzen dutenen partiduak ikusten ditut, aste gutxira guk jokatuko dugu-eta horien kontra. Oraingo asteburuan Valentziara noa, Sevillak Levanteren kontra jokatuko du-eta. Eta bi aste barru Levante hartuko dugu guk. Hala, aste horren hasieran entrenatzaileak eskura izan beharko du Levanteren gainean dakiguna. Partiduaren irudiak eta idatzizko txostena prestatzen ditut.

**Baina berdegunean ere gura zaitu Mendilibarrek.**

Bai; entrenamendu saioetan iaz ez nintzen berdegunean egoten, eta aurten hori eskatu dit Mendilibarrek. Jokalariekin berba egiten dut, azalduaz kontrarioak zer egin dezakeen jokaldi bakoitzean. Eta ondoren, partiduetan, lehenengo zatia harmailetan egoten naiz eta bigarren zatian zelaira jaisten naiz, goitik ikusi dudanaz laguntzen saiatzeko.

**Ederto hasi duzue liga.**

Gehiago ezin da eskatu, bi jardunaldi jokatu ditugu, eta sei puntu batu. Guk esaten dugun moduan, 40 puntura iristeko sei gutxiago behar ditugu.

**Ondo hastera kondenatua dago Eibar? Izan ere, jakinekoa da bigarren itzulian zailagoa izango dela puntuak batzea.**

Futbolean zenbakiek agintzen dute, eta, sorpresak salbu, normalean, aurrekontu txikiena dutenak ibiltzen dira ez jaisteko borrokan. Eta liga honetan gu gara aurrekontu txikiena duen taldea; hortaz, badakigu azkenera arte borroka horretan ibiliko garela.

**Liga txarto hasten duen talderen batek dirutza gastatuko du Gabonetan fitxaketetan; Eibarrek ez du halakorik egiteko tarterik.**

Ez, baina udan ere ez. Esan gura dudana da udan ere taldea indartzeko orduan gurea oso merkatu mugatua dela, beste lauzpabost talderekin partekatzen duguna. Aurten iaz baino talde hobea dugu, eta hainbat jokalariri bi edo hiru urteko kontratuak eskaini dizkie klubak; horrek egonkortasuna ematen du.

**Jokalari hobeak ekarrita ere, Eibarrek ezin dezake bere izaera galdu: intentsitatea, borroka, motibazioa...**

Garbi dago gure mentalitate eta balioek orain artekoak izan behar dutela; gaizki ari gara, bestela. Talde hobea dugula esan dut, orekatuagoa, postu bakoitzeko bi jokalarirekin. Baina oso garbi daukagu bakarkako detaileekin nekez irabaziko ditugula partiduak, gure puntuak ez ditugu hala batuko. Kategoriari eusten badiogu, talde moduan egin dugun lanagatik izango da, garbi dugu hori. Eta fitxaketak egiteko orduan ere hori kontuan hartu da; hau da, teknikoki jokalaria zelakoa den bai, baina baita bere izaera zelakoa den ere: garaipen gosea duen, talde lanean inplikatuko den... Eibarrera ondo egokituko den begiratzen da.

**Iazko esperientziatik ikasi duzue ala horrenbeste aldatu da taldea, ezinezkoa dela?**

Gauza asko ikasi dugu iaztik hona. Iaz taldea egiterakoan bide bat aukeratu zen, eta denboraldiaren lehenengo zatian lan egiteko modu horrek ondo funtzionatu zuen. Baina bigarren itzulian ikusi genuen taldea ez zela punturik onenera iritsi. Aurten beste modu batean egin dira gauzak, eta jokalarietan inbertitzeko ere diru kopuru handiagoa egon da.

**Dena dela, udan ez duzue erronka makala izan jokalariak fitxatzeko orduan, ze mailatan egon behar zenuten seguru jakin barik.**

Bueno, idazkaritza teknikokoen meritua izan da hori. [Barre] Eta kuriosoa da, begiz jota genituen jokalariak fitxatzea lortu dugulako, bigarren edo hirugarren aukeren bila joan barik. Guri, klubak lasai egoteko esaten zigun, kasu honetan Elx taldeak ez zuela zereginik eta lehenengo mailan jarraituko genuela. Baina klubeko langileok zalantza horiek bagenituen, imajinatzen dut etortzear zeuden jokalariek ere izango zituztela.

**Arlo pertsonalean, badakit ametsa bizi izaten ari zarela, eta bete-betean aprobetxatzen.**



Azkargorta, Getaferen kontrako partiduan, taldea zuzentzen. | F.MORQUECHO

Ipuruako ateak egunero gurutzatzen ditudanean mentalki ariketa bera egiten dut, nire buruari errepikatzen diot momentu hau aprobetxatzeko, esperientzia motza izan daitekeelako edo aukera etorri zen moduan joan daitekeelako. Futbola nire pasioa da, eta pentsa, orain ogibide dut. Sarritan esaten dut loteria tokatu zaidala. Eta gustatuko litzaidake futbolean aspaldi ezagutzen ditudan lagunek ere egunen baten aukera bera izatea.

**Txostenak prestatzeko bakarrik ez, iaz talde armagina partidu batean zuzentzeko aukera ere izan zenuen, Getaferen kontra (1-1). Beste amets bat beteta?**

Bueno, karanbolaz izan zen. Garitano eta Patxi Ferreira zigortuta zeuden, eta, entrenatzaile taldekoa izanda eta titulua neukanez, niri egokitu zitzaidan lan hura. Momentuan ez nion garrantzirik eman, natural hartu nuen, eta hasieran ingurukoei ez nien ezer komentatu. Eta, egia esan, momentuan ez nuen askorik gozatu. Lehenengo bost minutuetan larritu egin nintzen, joko erritmo oso altua, zarata handia... Baina segituan lasaitu nintzen, eta, ideiak oso garbi genituenez, ez zen arazorik egon. Ondoren gozatu dut partidu hartaz gehiago.

**Hori da futbolean betetzeko geratzen zaizun beste amets bat? Partidu batetik harago, entrenatzaile moduan jardutea?**

Ez pentsa, ez da buruan daukadan zerbait. Nahiago nuke orain daukadan lana denboran mantendu ahal izatea, ez delako erraza eta esperientzia handiko jendea dagoelako lan hori egiteko gertu. Horregatik saiatzen naiz ahalik eta gehien ikasten. Markel Irizarri irakurri diot egunotan Laisekak aspaldi eman zion gomendio bat: "Izan zaitez zerbaitetan ona". Eta horretan saiatzen nabil. [Barre]

> **"Iaz baino talde orekatuagoa dugu, postu bakoitzerako bi jokalarirekin"**

> **"Orain daukadan lana denboran mantentzea gurako nuke, baina zaila da"**

ATLETISMOA

## Zabalik dago Arrasate-Oñati lasterketarako izen-ematea

**X.U.** | ARRASATE

Oñatiko Antxintxiketan eta Arrasate Atletiko taldekoen eskutik, urriaren 10ean egingo dute Arrasate-Oñati lasterketaren 32. edizioa, eta dagoeneko zabalik dago izen-emate epea (*www.herrikrossa.com* webgunean edo Arrasateko Loramendi dendan, 10 euro ordainduta).

Azken urteotan moduan, korrikalari eta patinatzaileendako tokia egongo da –400 guztira– eta Arrasate eta Oñati arteko bidean –12 kilometro– ahalik eta gehien erabiliko dute bidegorria, lasterketa antolatzeko horrek ematen dituen erraztasunengatik.

Iaz arrasatearren eta oñatiarren arteko lehia polita izan zen, eta mondragoetarrak nagusitu ziren: gizonezkoetan Endika Donnayk eta emakumezkoetan Nere Arregik irabazi zuten.

ATLETISMOA

## Arrasate atletismo eskolakoak hasi dira lanean

**X.U.** | ARRASATE

Eguaztenean hasi zuten Arrasateko atletismo eskolakoek ikasturte berria, eta Mojategiko pistak gaztetxoz betetzen hasi dira. Izan ere, eskolako ateak zabal-zabalik daude, eta ikastetxeen bitartez eman beharko dute izena, monitoreei edo irakasleei oharra pasatuta.

Entrenamenduak adin eta kategoriaren bitartez prestatuko dituzte, eta saioak eguazten eta egubakoitzetan egingo dituzte (18:00-19:00). Eta entrenamenduak ere adinen araberakoak izango dira: korrika egiten ikasi, koordinazioa landu, lasterketa laburrak egin, jauziak eta jokoak, esaterako. Nagusiei, ostera, entrenamendu zehatzak prestatuko dizkiete, egutegi librean.

ESKALADA

## Ikastaroak antolatuko ditu Debagoieneko eskolak

**X.U.** | ARRASATE

Debagoiena Eskalada Eskolak ikastaroak antolatuko ditu aurtengo ikasturtean, eta ikastaro horiek Arrasateko eta Aretxabaletako rokodromoetan antolatuko dituzte. Hala, eskalada gertuagotik ezagutzeko aukera aparta eskainiko du eskolak, edo baita teknika hobetu eta kirol jarduera horretan aurrerapausoak emateko ere.

Hala, ikastaroen gaineko informazio gehiago izan gura duenarendako, gaur, egubakoitza, Arrasateko rokodromoan izango dira arduradunak (18:00-19:00), eta hilaren 14tik aurrera astelehen eta eguaztenetan egongo dira, ordu berean. Aretxabaletan hilaren 15etik aurrera martitzen eta eguenetan egongo dira.

MENDIKO BIZIKLETA

## Arantzazuko martxa zapatuan, 33 kilometrorekin

**X.U.** | ARRASATE

Bihar, zapatua, egingo dute Arantzazuko 3. mendi bizikleta zeharkaldia (09:00), eta, hirugarren ediziorako, antolatzaileek 33 kilometro eta 1.280 metroko desnibela dituen ibilbidea aurreikusi dute. Hauxe zabaldu dute sare sozialetan: "Ibilbidea osoa Arantzazuko inguruetan da, eta anoa postura iritsitakoan nekatuta dagoenak erraz egin ahal izango du beherantz".

Gatzagakoaren eta Arantzazukoaren ostean etorriko dira Iban Altuberen omenezko martxa (Oñati) eta Arrasaten Besaidekoek antolatzen duten Mondranbike. Bi horiek, baina, urrian izango dira. Besaidekoek aurreratu dute urriaren 17an izango dela eurena.

AUTOMOBILISMOA

## Aramaioko rallysprinta egingo dute datorren astean

**X.U.** | ARRASATE

Aramaioko Rallysprintak 14. edizioa beteko du datorren zapatuan, hilak 17, eta eguteko azkenaurreko hitzordua izango da, Karrantzako lasterketaz (urriak 31) amaituko dute-eta 2015eko rallysprint egutegia. Hala ere, egutegian bestelako hainbat lasterketa geratzen dira oraindik; tartean, Jaizkibelgo 37. Igoera, oraingo asteburuan.

Egutegiko azken lasterketan, Azkoitiko rallysprintean, Gorka Antxustegi eta Xabat Arrusti nabarmendu ziren (Peugeot 205 F1). Enrique Barrentxea-Arandok eta Anartz Onaindiak lehenengo txanda ona egin zuten, baina bigarrenean, berriz, zulatua izan zuten eta aukera barik geratu ziren.



Mikel Deuna sariko helmuga, 2012ko edizioan. | GOIENA

TXIRRINDULARITZA

# Udazkeneko Kriteriuma hasiko dute Oñatin, bi etapa lehiatuta, bihar

Bihar goizean 88 kilometroko etapa egongo da jokoan, eta arratsaldean erlojupekoa; dena Oñatin

XABIER URZELAI | ARRASATE

Aloña Mendiko ziklismo saileko lagunek harrobiaren aldeko apustua egin eta lanak bikoiztu dituzte biharko. Izan ere, aurtengo Mikel Deuna saria berezia izango da, Udazkeneko Kriteriumeko lehenengo bi etapak hartuko ditu-eta, 90 kilometroko etapa lehenengo, goizean, eta hamar kilometrotako erlojupekoa, arratsaldean. Hala, kadete eta gazte mailetako bigarren urteko ziklistak batuko dira Oñatin.

Goizekoa 10:00etan hasiko dute, eta lehenengo kilometroak Bergaratik joan-etorria eginez beteko dituzte. Handik Udana igo eta Goierri aldera abiatuko dira ziklistak, eta Atagoitiko maldak birritan igo –Gabiriatik eta Ormaiztegitik itzulia egin ostean.

Udana jaitsi ostean, berriz, ziklistek Zubillagarako bidea hartuko dute, eta handik bueltan Torreauzon eskumatara egingo dute, eta Euskal Herriko Itzulian betetako azken kilometroak errepikatuko dituzte ziklistek; Zuazolan ezkerretara hartu eta Santipillautik eta Hilerritik pasa ostean Oñatira sartuko dira –helmuga hilerrian izango da.

**Erlojupekoa 17:00etan**

Arratsaldeko erlojupekoak, ostera, hamar kilometro izango ditu. Ziklistak Unibertsitate etorbidetik irtengo dira, eta Arrasaterako noranzkoa hartuko dute, Torreauzon ezkerretara egin eta Usako ondotik pasata Olateraino igoko dira. Handik buelta erdi eman, eta Barberokuako gurutzean Miruerreka baserrirako bidea hartuko dute; Santipillaura igo eta hilerri ondotik pasata Oñatiko plazarako bidea hartuko dute.

**Tartean lau oñatiar**

Antolatzaileek 100 ziklista espero dituzte proban, eta tartean egongo dira lau oñatiar. Julen Umerez Sabiñanigon egon da asteburuan, Euskadiko Selekzioarekin, eta Xabi Murgiondok mendiko kriteriumeko erlojupekoa irabazi berri du, eta laugarren dago sailkapenean. Eta horiekin batera Ekaitz Txintxurreta eta Andoni Igartua ere lasterketan izango dira, bailarako gainontzeko ordezkariekin batera.

MENDIKO BIZIKLETA

# Euskadiko Openean txapela janztea eskura du Ander Bengoak

X.U. | ARRASATE

Conor-Saltoki-Berriainz taldeko ziklista Ander Bengoa aramaioarrak domekan irabaz dezake Euskadiko mendiko bizikletako Opena, Bilbon –Master 30 kategorian. Egutegiko azken lasterketa izango da Bilbokoa, eta denboraldian zehar –martxoan hasita– erregulartasun handia erakutsita iritsi da Bengoa lehenengo postuan azken proba horretara.


Ander Bengoa, Aramaion. | GOIENA

**Hutsik egin barik**

Aramaioko lasterketatik hasita Bengoak Marques Ekleylson izan du kontrario gogor, baina aramaioarrak ez du lasterketa batean ere hutsik egin, eta podiumeko postuetan egon da egutegiko sei lasterketetan –Getxon lehena izan zen–. Hala, txapela gertu izango du domekan.

# Bergarako eta Eskoriatzako saskibaloikoen eta areto futbolekoen aurkezpena zapatuan

X.U. | ARRASATE

Debagoieneko kirol taldeak aurki hasiko dira txapelketetan buru-belarri, baina, lehenago, taldeak herritarren aurrean aurkeztu gura dituzte.

Hala, Bergarako saskibaloi taldeak San Martin jaiak aprobetxatuko ditu aurkezpenok egiteko. Bihar, zapatua, 19:30ean batuko dira jokalari guztiak, plazan.

**Eskoriatzak, talde guztiak**

Eskoriatza kirol elkartekoek, berriz, saskibaloikoen eta areto futbolekoen aurkezpena egingo dute bihar plazan (12:00). Giro txarra egiten badu, kiroldegira joango dira.

Debagoieneko
**GREMIOAK**

## AROZTEGIAK
**AZKARATE AROZTEGIA**
BERGARA
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
• K-21
Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
*blogak.goiena.net/azkarate*

## HONDEAKETAK
**EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL**
ARRASATE
Meatzerreka 30
Tel.: 943 77 12 26/ 646 29 59 87
*e.arrasate@gmail.com*

## ITURGINTZA
**EGIA ITURGINTZA**
ARRASATE
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

**OYANGUREN ITURGINTZA**
ESKORIATZA
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
*f.oyanguren@ctv.es*

**URKO MANTENIMIENTO SL**
ARETXABALETA
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

## LEIHOAK
**ARGI-PLASTIK**
ARRASATE
Zigarrola kalea 1, 8 pab
Tel.: 943 77 11 30

## LOREZAINTZA
**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
ARETXABALETA
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# "Saskibaloia herritarrei gerturatzea da martitzeneko jaialdiaren helburua"

Retabet.es GBC eta Caja Laboral Baskonia izango dira aurrez aurre Bergaran

**XABIER URZELAI** | BERGARA

Soraluce BKE saskibaloi taldekoek beste pauso bat emango dute martitzenean, bergararren –eta bailarakoen– artean saskibaloia sustatzeko asmoz antolatu duten ikuskizunarekin; izan ere, ACBko bi talde izango dira zein baino zein gehiago: babesle berria estreinatu berri duen Retabet.es GBC talde gipuzkoarra eta Gasteizko Caja Laboral Baskonia (irailak 15, Labegaraieta, 18:30).

Hainbat selekzio jokatzen dabiltzan –tartean Espainia– Eurobasket txapelketa dela-eta ACB ligan atsedenaldia dute, eta Bergarako saskibaloi taldeko ordezkariek hutsune hori aprobetxatu dute Euskal Herriko puntako bi talde horiek herrira erakartzeko;

> **ESANAK**
>
> **"Sarrerarekin, partiduaren kostuak txikitu gura ditugu"**
>
> MARIAN MELLADO | SORALUZE BKE

sarrera 10 euro izango da. "Sarrerekin, partidua antolatzeak dituen kostuak txikitzea bilatzen dugu; ez dugu espero klubarendako aparteko diru-sarrerarik, helburua ez delako herriko taldea diruz laguntzea, eta bai saskibaloia herritarrei gerturatzea", adierazi du Marian Melladok, BKEko ordezkariak.

Eta urteak daramatzate ahalegin horretan, hiruko torneoa antolatuta, Gabonetako torneoa, eta puntako entrenatzaileekin berbaldiak antolatuta. Ekainean, adibidez, Jaume Ponsarnau izan zen Bergaran.



Iaz, Baskoniaren eta GBCren arteko lehia. | IGOR MARTIN / WWW.BASKONIA.COM

## Aloña Mendik Getariakoren kontra hasiko du liga etzi, domekan

**X.U.** | OÑATI

Aloña Mendik domekan hasiko du liga, Getariakoren kontra (16:30, Azkoagain). Igor Serrano entrenatzaileak aitortu duenez: "Iaz sufritu genuena ez errepikatzeko asmoz. Batez ere, iaz baino hobeto hasi nahi dugu, bosgarren jardunaldian batu genituen lehenengo puntuak, eta lehenengo itzulia oso gogorra izan zen".

Gazte mailatik bizpahiru jokalari igo dituzte, taldea utzi dutenen hutsunea betetzeko. Eta horrekin batera, Serranok kluba aspalditik ezagutzen duten hainbat oñatiarren laguntza izango du; Iñigo Idigoras, Xabi Agirre eta Aritz Garmendia ondoan izango ditu.

**UDAk Azpeitian zapatuan**

Aretxabaletak Lagun Onaken kontra jokatuko du bihar (17:30, Garmendipe) ligako laugarren jardunaldia. Bitartean, Erregional Preferenteko Antzuolak, Mondrak eta Bergarak datorren asteburuan hasiko dute liga.

## Mikel Aristi bergararra Kantabriako Itzuliko lider, bigarren etapa irabazita

**X.U.** | ARRASATE

Denboraldiko zazpigarren garaipena eskuratu zuen Mikel Aristik eguaztenean, Kantabriako Itzuliko bigarren etapan. Eta martitzeneko etapan –hura ere esprintean erabaki zen– bigarren sailkatu zenez, atzoko etapa lider moduan hasi zuen Euskadi Fundazioko txirrindulariak. Hain zuzen, atzokoa zen etapa nagusia: Potesen hasi (15:30) eta ziklistek 3.000 metroko desnibelari egin behar izan zioten aurre; baina etapa amaitu aurretik itxi genuen erredakzioa; *Goiena.eus*-en aurkituko duzue informazio osoa.



# KULTURA



Arantzazuko Basilika eraikitzen 1954an. | JESUS ELOSEGI IRAZUSTA



Sarrerako atea. | JESUS ELOSEGI IRAZUSTA



Basilika atzetik begiratuta. | J. ELOSEGI IRAZUSTA



Basilikaren hasierako zirriborroa. | REVISTA NACIONAL DE ARQUITECTURA

## Basilikako arkitektoen eta haiek egindako lanen gertuko begiratua

### Javier Saenz de Oiza eta Luis Laorga arkitektoak omenduko dituzte

**A. ARANBURUZABALA** | OÑATI

1955eko abuztuaren 30ean bedeinkatu zuten eta orduan zabaldu zituzten XX. mende erdialdeko arkitektura modernoaren sinbolo esanguratsua den Arantzazuko Basilikaren ateak. Haren egileen, Francisco Javier Saenz de Oiza eta Luis Laorga arkitektoen, ibilbide profesionala aintzat hartzeko eta eraikinari berari ere omenaldia egiteko antolatu dute biharko, zapatua, Gandiaga Topagunea kultura zentroan oroitzapen-jardunaldia Arantzazuko frantziskotarrek, Arantzazuko Adiskideak elkarteak eta Arantzazu Gaur Fundazioak.

"Gazteak ziren bi arkitektoak, eta, era berean, aipatzekoa da arkitektura korronte berriak hasita zeudela Europan. Oso ezberdinak ziren: Laorga, esaterako, oso fededuna zen, Eliza asko egindakoa; akaso, baina, Oizak esku gehiago sartu zuen proiektuan. Bien artean egin zuten lan izugarriarekin eta garaiko fraideek ere izan zuten ausardiarekin poliki -poliki gauzak zehazten joan ziren. Hori eskertu egin behar da; hori da helburu nagusia", dio Iñaki Beristain frantziskotarrak.

Helburu horrekin eta, era berean, Arantzazu gizarteari eta gizartea Arantzazura gerturatzeko asmoarekin prestatu dituzte basilikaren egileei buruzko mahai-ingurua eta eraikinaren azalpen arkitektonikoak jasotzeko irakurketa musikatua. "Aste osoan deiak jasotzen dihardugu, askotariko lekuetatik", azaldu dute, pozik, Gandiaga Topaguneatik, eta gaineratu dute eguazten iluntzerako dagoeneko 280 lagunek zutela izena emanda.

**Aldizkari monografikoa**

Omenaldia ez da, baina, biharko ekitaldietara mugatuko. *"Arantzazu* aldizkariaren monografiko borobila atera dugu. Alde batetik, Arantzazuren historia jaso dugu, bi artikulu zabaletan kontatuta, baina, bereziki, egileak gertutik ezagutarazi nahi izan ditugu. Zelakoak ziren, zelako lanak egin zituzten... Familiakoek ere parte hartu dute; alderdi pertsonal eta afektiboa landu dute. Horrez gainera, Rafael Moneo eskarmentu handiko arkitektoari elkarrizketa egin diogu; ikasle garaian, Francisco Saenz de Oizarekin jardun zuen lanean", azaldu du Beristainek.

Arantzazuko aldizkariko harpidedunek dagoeneko eskuratu dute astean aurkeztutako zenbaki monografikoa, eta biharko ekitaldietan ere banatuko dituzte. "Horrez gainera, Arantzazuko dendan eta Donostiako Idatz dendan ere salgai daude", gaineratu du Juan Biainek, Arantzazu Gaur Fundazioko kideak.

**Apurtzailea, lehen eta orain**

Beristainek dio ez dela samurra basilikaren zati esanguratsu bat aukeratzea. "Uste dut orokorrean begiratuta, bere osotasunean dela apurtzailea. Alde batetik, molde tradizionalekoa da, gurutze baten irudia daukalako; bereziki, elizaren arkitekturari begiratu diogu oraingoan, baina azpimarratzekoak dira, duda barik, haren inguruan ondoren egindako artelanak: Jorge Oteizarena, Lucio Muñozena eta Nestor Basterretxearena, besteak beste. Barruko argiaren tratamendua ere berritzailea da oso. Gaur, denok onartuta dugu, baina, dakizuen moduan, garai hartan ez zen askoren gustukoa izan. 60 urteren buruan, baina, artearen, kulturaren eta espiritualitatearen ikur bilakatu da Arantzazu".



Laorga eta Saenz de Oiza arkitektoak. | ARANTZAZUKO SANTUTEGIA

### Arkitekto ausartak eta apurtzaileak

Francisco Javier Saenz de Oiza nafarrak Sevillan eta Madrilen egindako ikasketak Ameriketako Estatu Batuetan borobildu zituen. Handik, teknologia modernoak txundituta eta arkitektura modernoaren ikuspegi zabalarekin itzuli zen. Laorgarekin batera lehiaketa irabazita, Arantzazukoa izan zen haren lehenengo obra.

Laorga madrildarrak aita ebanistaren eskutik ezagutu zuen eraikuntza arloa haurtzarotik. Arkitektura ikasketak egin zituen gero; eta 1946tik 1981era bitartean 600 proiektu egin zituen: askotariko eraikinak, etxebizitzak eta elizak, besteak beste.

### EGITARAUA

**10:30** Francisco Saenz de Oiza eta Luis Laorga arkitektoei buruzko mahai-ingurua, Rafael Moneo arkitektoarekin, Javier Saenz Guerrarekin —Saenz de Oizaren semea— eta Enrique Arenasekin —Laorgaren biloba—. Gandiaga Topagunean izango da.

**12:30** Miguel Angel Alonsok, Nafarroako Arkitektura Eskolako zuzendariak, basilikaren eraikinaren irakurketa egingo du Xabier Lizaso piano-jotzaileak lagunduta. Basilikan da.

**AURREZ IZENA EMAN**

Ekitaldiak doan dira. Parte hartzeko: 943 71 65 75, 943 25 10 09 eta *adiskideak@arantzazu.org*. Gaur, egubakoitza, da azkeneko eguna. Antolatzaileek eskatu dute garaiz joateko.

### Pintura lehiaketa

*Xabier Alvarez de Eulate* pintura lehiaketaren hirugarren ekitaldia egingo dute bihar. Arantzazuko Santutegiko edozein txoko, paisaia eta monumentu margotu ahal izango da, teknika librean. Zigilatzea eta izen-ematea Gandiaga Topagunean izango da, 10:00etatik 12:00etara, eta obrak leku berean entregatu beharko dira, sinadurarik barik, 16:00etatik 17:00etara. Helduendako 1.500 euroko, 750 euroko eta 400 euroko sariak egongo dira. Aurten, gainera, Saenz de Oiza eta Laorga sari berezia emango dute —1.500 euro—. Gazteen (12-16 urte) eta umeen (11 urte arte) kategorian, aldiz, pintura materiala jasoko dute irabazleek.

# Bikote nagusien 30. Moises Azpiazu dantza solte txapelketa gaur Bergaran

## Zortzi bikote arituko dira arratsaldeko zazpietan hasita Udal Pilotalekuan izango den saioan

**MAITE TXINTXURRETA** | BERGARA

San Martin jaien atarian, gaur, irailak 11, Moises Aspiazuren omenezko 30. dantza solte txapelketa egingo dute Bergarako Udal Pilotalekuan. Ekitaldia arratsaldeko zazpietan hasiko da.

Bikote nagusien txapelketa izango da; hau da, 16 urtetik gorakoena.

Iaz ez zen egin duela hogeita hamar urtetik San Martin jaietan egin ohi den txapelketa, baina aurten bueltan dator, Bergarako Musika eta Dantza Eskolak antolatuta eta Bergarako Udalaren laguntzarekin.

Bikoteek fandangoa eta arin-arina dantzatuko dituzte, Estanga anai-arreba trikitilarien musikaz lagundurik.


2013an egin zuten azkenengoz txapelketa Bergaran. | GOIENA

### Zortzi bikote

Zortzi bikote arituko dira, guztira, horietatik sei gipuzkoarrez osatuta. Aurtengo edizioan ez da Bergarako edota bailarako ordezkaririk izango.

Jarraian izendatutakoak izango dira bikote parte-hartzaileak: Iker Sanz-Lierni Kamio (Lezo-Villabona), Aitor Garcia-Oihane Aiestaran (Urnieta-Villabona), Asier Ibarguren-Garazi Gurrutxaga (Azpeitia), Xabier Artola-Idoia Besada (Irura-Pasaia), Ibai Jimenez-Iratxe Lizarburu (Zaldibia-Ibarra), Mapi Egües-Maialen Arizaleta (Ibarra), Beñat Olano-Paula Gonzalez (Gasteiz) eta Lander Campos-Haizea Hormaetxea (Santurtzi-Leioa). Azken horiek txapeldunordeak izan ziren iaz jokatutako Euskal Herriko Txapelketan.

### Sariak

Euskal Dantzarien Biltzarrak izendatutako hiru epaimahaikide izango dira bikote bakoitzaren jarduna baloratu eta nork irabaztea merezi duen erabakitzearen arduradunak.

Zortzien artean gailentzen den bikote irabazleak txapela, Udalak emandako garaikurra, zapia eta 200 euroko saria jasoko ditu. Bigarren sailkatuek, berriz, garaikurra eta 180 euro eramango dituzte etxera; eta, azkenik, hirugarren postuan geratzen den bikoteak garaikurra eta 170 euroko saria jasoko du. Horretaz gain, lehiaketan parte hartuko duten bikote guztiei 125 euroko dieta emango diete.

# Txalaparta doinuek hartuko dute bihar goizean Kurtzetxiki mendiko tontorra

## Ttakun taldeak Lorentxo Altube omenduko du Kurtzetxikiparta! jaiarekin

**M.T.** | ARRASATE

Txalapartaren inguruan egun-pasa aparta antolatu dute Ttakun taldekoek. Kurtzetxikiparta! izena jarri diote aurtengo ekimenari, eta, izenak dioen moduan, iaz Udalatxen ospatu bazen ere, aurten Kurtzetxikin egingo dute.

Lorentxo Altube zena omenduko dute bertan. Euskal musika tresnen egile eta, bereziki, txalaparaten maitale zen Altube, eta lan handia egin zuen instrumentu hori ezagutarazteko. Uztailean hil zen, eta orain, haren lanari omenalditxoa egin nahi dio Ttakunek.

### Egitaraua

Hala, goizeko hamaiketan Zaldibartik abiatuta Kurtzetxikiraino ibilaldia antolatu dute. Behin gora helduta, txalaparta saio libreak egingo dituzte tontorrean, jan-edanaz lagunduta. Sagardoa eta txorizoa eskainiko diete Ttakunekoek tontorrera igotzen diren guztiei.

Ondoren, Arrasatera jaitsiko dira bueltan, eta, bazkalaurrean, txalaparta doinuz herriko kaleak girotzen jarraituko dute.

Goiz-pasa horretan edonork har dezake parte, izena eman beharrik gabe. "Herri osoa dago gonbidatuta", dio Ttakun taldeko Kike Dapenak.


Morrison El Magnifico. | MORRISON EL MAGNÍFICO

# 27. Magialdia Aramaiotik pasako da bihar, zapatua

## Gaztetxoentzako magia tailerra, kale-ikuskizunak eta Morrison El Magnificoren saioa izango dira

**M. T.** | ARAMAIO

Arratsalde magikoa bizi izango dute bihar, zapatua, Aramaioko biztanleek. Izan ere, duela hogeita zazpi urtetik Gasteizen egiten den Magialdia izeneko magia jaialdia Aramaiora ere iritsi da aurten, lehendabiziko aldiz.

Bihar, irailak 12, arratsalde osoan zehar magiarekin lotutako hiru ekintza izango dira herrian, Udalak eta Arabako Foru Aldundiak elkarlanean antolatuta.

### Egitaraua

Umeentzako magia tailerra izango da lehenbiziko hitzordua, arratsaldeko bostetan hasita. Bertan, 7 eta 12 urte bitarteko neska-mutilek askotariko trikimailuak egiten ikasi ahal izango dute mago adituen eskutik. Kultura etxean egingo dute.

Horren ostean, berriz, 18:00etan hasita, adin guztietako herritarrei zuzendutako magia saio ibiltaria izango da, *Gertuko magia* izenekoa. Magoak, herrian zehar, tabernaz taberna arituko dira aramaioarrei euren abileziak erakusten.

Azkenik, Morrison El Magnifico ilusionistaren eskutik etorriko da eguneko ikuskizun handia. Juan Tamariz mago ezagunaren eskolan irakasle lanak egiten ditu, eta urte askoan Tarragonako Port Aventura atrakzio parke ospetsuko magoa izan da.

Umorea eta espektakulua uztartzen ditu Morrisonek ikuskizunetan, eta ikusleekin elkarrekintzarik ere ez da falta izango 19:30etik aurrera Aramaioko Sastiña aretoan eskainiko duen saioan.

Biharko magia jardunaldi berezi horren baitan kokatutako ekintza guztiak dohainik izango dira.

### Gasteiztik Aramaiora

Aurten Magialdia jaialdia Aramaiora iristea nobedadea da. Izan ere, Arabako Foru Aldundiak antolatutako ekimena da, eta orain arteko edizioetan Arabako hiriburuan bakarrik egin izan dute.

27. edizio honetan, baina, probintziako hainbat herritara zabaldu nahi izan dute egitaraua. Festibala ofizialki astelehenean (irailak 14) hasiko den arren, herrietan egingo dituzten ekintzak gerora Gasteizen izango denaren aurrerapen bat izango dira.

Hala, Aramaiokoaren antzeko egitaraua izan dute edo izango dute arratsalde batez Amurrion, Artziniegan, Berantevillan, Murgian eta Kanpezun.


Oñatiko Udalari esker
Ruper Ordorikaren kontzertua ikusteko sarrerak ditugu.
Oñatiko Gaztelekua. Oñati.
Irailaren 19an, 22:30ean
PARTE HARTZEKO (IRAILAREN 15A BAINO LEHENAGO)
SMS: KLUBA [Ruper] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05 E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA Ruper [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea.
Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com
goienakluba


Aretxabaletako Udalari esker
Alberto Itoiz-en jazz kontzertua ikusteko sarrerak ditugu.
Zaraia Aretoan. Aretxabaleta.
Irailaren 19an, 20:00etan
PARTE HARTZEKO (IRAILAREN 15A BAINO LEHENAGO)
SMS: KLUBA [Jazz] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05 E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA Jazz [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea.
Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com
goienakluba



*Loreak* filmeko fotograma. | LOREAKFILM

# 'Loreak' filmak Oscar sarietarako bidea hartu du

Aitor Arregi: "Guretzako eta euskal kulturarentzako oso pauso polita da"

**MAIALEN TORRES** | OÑATI

Herrialde bakoitzak hautagai bat bidaltzen du Oscar sarietara, eta Espainiako Zinema Akademiak irailaren 29an jakinaraziko du aurtengoa zein den. Dagoeneko hiru aukeratara murriztu dute lehia: *Loreak*, *Magical Girl* eta *Felices 140*. Aurrera egiten duenak atzerriko film onenaren sailean parte hartzeko aukera izango du.

"Sorpresa handia hartu genuen albistea entzutean", dio gidoilari eta ekoizle lanetan aritu den Aitor Arregik. Izan ere, filma euskaraz izateak aukerak mugatuko ote zizkien ardura zuten, fase horretaraino iristen den lehen euskarazko filma baita.

Orain, hautagai nagusia aukeratzeko zain daudela, Arregik uste du akademiko askok gehien gustatzen zaien filma bozkatuko dutela, baina argi dauka: "Filma gazteleraz izango balitz, aukera gehiago izango genituzke".

Dena den, "pozik" dago *Loreak* filmeko lantaldea, eta ez da harritzekoa, Nobel sariekin batera mundu mailako sari ezagunenetakoak baitira Oscarrak. "Guretzako, eta neurri batean euskal kulturarentzako, oso pauso polita da", aitortu du Arregik.

Duela ia urtebete Zinemaldian estreinatu zutenetik, hara eta hona ibili da *Loreak*-eko taldea, Arregik dioen moduan, "zarata ateratzen". Ezinbestekotzat dute "filma ikusgarri egitea eta jendearengana helaraztea", akademikoek kontuan har dezaten. Horregatik, hainbat zinemalditan izan dira, tartean Kanadan, AEBetan eta Tokion. Zinemaldi horietan, ordea, hizkuntza ez da arazoa izan, "ohituta" daudelako filmak jatorrizko bertsioan ikusten.

**Bide luzea aurretik**

Oraindik galbahe asko pasa behar ditu filmak Oscar sarietako alfonbra gorrira iristeko, Espainiako hautagai izateko aukeratuko balute ere, beste hiru hautaketa pasa beharko bailituzke zeremoniara iritsi baino lehen.

# 'Marina' operarako sarrerak domekan jarriko dituzte salgai

**M.T.** | ARRASATE

Urriaren 31n taularatuko du Ozenki elkarteak Emilio Arrietaren *Marina* opera Amaia antzokian. Dena den, antolatzaileek sarrera eskaera handia aurreikusi dute, eta, horregatik, aurrez jarriko dituzte salgai, domekan bertan hasita.

Helena Orkoien soprano tolosarra izango da Marina, aita galdu eta Jorge kapitainaren etxean bizi den emakumea. Kapitainarena, berriz, Luis Alberto Giner tenor madrildarrak egingo du, eta Andres del Pino baritonoak eta Jesus Lumbreras baxuak osatuko dute pertsonaia nagusien taldea.

Ikuskizunaren dekoratuek, jantziek eta attrezzoak Lloret de Marko portura eramango dute ikuslea, eta bertan ezagutu ahal izango ditu Marinaren eta Jorge kapitainaren arteko amodio ezkutuaren gorabeherak. Donostiako Lirika orkestrak jarriko dio musika operari, Arkaitz Mendoza zuzendariaren gidaritzapean.

Antolatzaileen hitzetan, "ez da ikuskizunik faltako" Amaiako oholtza gainean, eta, euren ustez, musika-zaleek "ezin dute galdu" Arrietaren obra ikusteko aukera.

**Sarrerak salgai**

Sarrerak Amaia antzokiko leihatilan, Kutxabanken, Udalaren webgunean edo Ozenki elkartearen helbide elektronikora *(ozenkielkartea@hotmail.es)* idatzita lor daitezke, 30 eurotan.



*Marina* operaren portuko eszenetako bat. | OZENKI

# Salgai dira dagoeneko Ruper Ordorika ikusteko sarrerak

Disko berriko kantez gain, beste sasoi batekoak ere joko dituzte gaztelekuko kontzertuan

**M.T.** | OÑATI

San Migel jaietako egitarauaren baitan, kontzertua antolatu dute gaztelekuan irailaren 19rako. Ruper Ordorika izango da oholtza gainean, eta, azkenaldian egin ohi duen moduan, Asier Oleaga (bateria), Lutxo Neira (baxua) eta Arkaitz Miner (gitarra, mandolina eta biolina) izango ditu lagun. Sarrerak dagoeneko salgai daude Txokolateixian eta kultura etxean, 10euroan.

Disko berria atera zuenetik, Oñatin eskaintzen duen lehen kontzertua izango da, eta Ordorika gogotsu dago emanaldirako. "Gauza ederra da nork bere herrian jo ahal izatea, nahiz, esan ohi den moduan, inor ez den profeta bere herrian", esan du.

Etxean jotzea, zalantzarik gabe, berezia izango da oñatiarrarentzat: "Kontzertua non egiten den garrantzitsua da, aldaketak egokitu beharra ekartzen baitu beti, eta gu moldatzen ahalegintzen gara", dio Ordorikak. "Oñatin aritzen garenetan, beti sartzen dugu kantu bereziren bat".

Gauzak horrela, disko berriko kanta batzuk joko dituzte, baina kontzertua ez da erabat diskoari lotuta egongo, "gauza zabalagoa" egiteko asmoa baitute, beste sasoi bateko kantak sartuta, adibidez. "Beti saiatzen gara azken aldiz egon ginenetik gauzak aldatzen, beste kantu batzuk sartzen, beste giro bat sortzen", azaldu du Ordorikak.



Ruper Ordorika. | GOIENA

**Hurrengo kontzertua, Bilbon**

SGAE Fundazioak antolatutako *Izar & Star* kontzertu sortan ere parte hartuko du Ordorikak. Irailaren 25ean eskainiko du kontzertua Bilboko Campos Eliseos antzokiko Teatro aretoan. Sarrerak leihatilan bertan edo Power Records dendan erosi ahal izango dira, aurrez 10 eurotan, eta 12 eurotan egunean bertan.

Oraingoan, ordea, bakarka arituko da oñatiarra, eta aitortu du "aldaketa handia" izango dela, bai beretzat, baita entzulearentzat ere: "Beti esaten didate arrisku handiak hartzen ditudala, baina ez, arrisku handiak hartzen ditu entzutera datorrenak".

Bilbon, bere kantez gain, gogoko dituen abestien bertsioak ere joko ditu. "Uste dut kantuak bezainbat balio duela giroak. Horregatik joko ditut kanta batzuk, nahiz beste batzuk egokiagoak izan bakarka aritzeko".

# Sormena eta jolasa, dantza inprobisazio ikastaroan

**M.T.** | ARETXABALETA

Sentimenduak, sormena eta jolasa jartzen ditu jokoan, besteak beste, dantza inprobisazioak, eta horiek lantzeko aukera izango da astelehenetan –irailaren 28tik aurrera–, Jaiki elkarteak antolatutako ikastaroan. "Edozein da gai, baina lotsak baztertu behar dira", dio Maier Etxebarria antolatzaileak. Gainera, saioetan, pixkanaka hasten dira ikasleak inprobisatzen, eta esperientzia ez da beharrezkoa.

Hiruhileko osoagatik helduek 90 euro ordaindu beharko dituzte –langabeek 80– eta haurrek, berriz, 45 euro. Izen-ematea eta informazio gehiago: 943 53 43 96/659 35 92 21 telefonoetara deituta edo *jaikielkartea@yahoo.es* helbidera idatzita.




**Sara Alonso** | 'Izarrak kalean' saioaren irabazlea

**Vendettaren *Ekainak 24* kanta abestu zuen Alonsok final handian.**

AMAIA TXINTXURRETA

# "Famak ez nau askorik erakartzen, ondo pasatzen dudalako abesten dut"

**MAITE TXINTXURRETA** | ARAMAIO

Sara Alonso (Aramaio, 1999) izan da ETB1 kateko *Izarrak kalean* programaren bigarren edizioko irabazlea. Kalean mikrofono aurrean jarri eta abestu egin behar dute saio horretako parte-hartzaileek, eta inguruko jendeak gehien gustatzen zaion lehiakideari dirua botatzen dio; gehien lortzen duenak irabazten du. Hala, Zarautzen izan zuen lehen kantaldia, eta, fase guztiak gaindituta, Nahia Martinez beasaindarrarekin jokatu zuen finala, Donostian.

**Pozik egongo zara *Izarrak kalean* irabazi eta gero.**

Bai, oso pozik. Egia esanda, ez nuen espero.

**Nola erabaki zenuen aurkeztea?**

Lehenago, ETB1eko *Herri txiki infernu handi* saioan agertu nintzen, eta ordutik nire kontaktua zeukaten. Egun baten deitu egin zidaten, ea *Izarrak kalean*-en parte hartzera animatuko nintzatekeen, eta baietz esan nien.

**Zuk zure bideoa bidali zenuen, eta ikusi zenuen saioa telebistan iragartzen hasi zirela...**

Bai; nik, hori ikustean, esan nuen: "Ba, listo, ez naute hartu". Baina Florentziara joan nintzen bidaian osabarekin, eta bueltan, Madrildik autobusean nentorrela, Gasteizko geltokian zeuden Maria Amolategi aurkezlea, nire ahizpa, lehengusinak... pankarta eta konfetiekin, nire zain. Ikaragarria.

**Eta parte hartzeko unea iritsi zenean, nolakoa izan zen zure esperientzia?**

Furgoneta batean sartu ninduten, eta bertan erakutsi zidaten nor izango zen nire aurkaria. Nik ez nekien nora eramango ninduten abestera, eta Zarautzen egin genuen, azkenean.

**Zer moduzko esperientzia izan zen telebista barrutik ezagutzearena?**

Kanpotik ikusita, beti pentsatzen duzu beste gauza bat izango dela, eta gero, esan nuen: "Ene, zer da hau?!". Baina oso ondo pasatu nuen, gustatu zitzaidan.

***Casting*-ean pianoarekin ikusi zintugun, baina finalean gitarrarekin abestu zenuen, Vendettaren *Ekainak 24* kanta, hain zuzen.**

Hala da. Pentsatu nuen nahiko kanta ezaguna dela eta jendea animatuko zela kantatzera.

**Zer sentitu zenuen horrenbeste jenderen aurrean abesten?**

Hunkigarria izan zen. Gainera, ez da agertoki batean abestea bezala; jendea hurbil dago, eta gertukoagoa dela esango nuke.

**Irabazi zenuen 1.000 euroko txekea eskegi duzu zure logelan. Zer egingo duzu diru horrekin?**

Lehenik eta behin, gitarra bat erosiko dut. *Izarrak kalean*-eko finalean nire irakasleak utzitako gitarra erabili nuen; beraz, gitarra akustiko bat erosiko dut orain. Bestalde, kantu eskolak ordaintzeko ere erabiliko dut.

**Egunen batean abeslari profesional izatea gustatuko litzaizuke?**

Etorkizunean ez dakit, baina orain momentuan famak ez nau askorik erakartzen. Gustatzen zaidalako abesten dut, horretan ondo pasatzen dudalako.

**Zer esan dizute gertukoek telebistan ikusi zaituztenean?**

Oso ondo egon nintzela esan didate, eta zorionak eman dizkidate. Jendeak natural jokatu nuela aipatu dit. Nik zera diot: telebistan egon arren, nik neuk izan behar dudala beti.

**Musikaz gain, zure beste zaletasun bat argazkilaritza da.**

Bai. Gainera, zaletasun nahiko berria da. Argazkilaritza asko maite duen lagun bat daukat, eta sarritan eskatzen nion kamera argazkiak ateratzeko. Horrela hasi nintzen, besteen kamerekin-eta, poliki-poliki... eta, duela gutxi, kamera bat erosi dut nik aurreztutako diruarekin. Nire kabuz joan naiz ikasten. Oporretara goazenean edo etxe inguruan ditudan loreei argazkiak ateratzea oso gustuko dut.

**Aste honetan hasi berri duzu batxilergo artistikoa. Zer egiteko asmoa duzu aurrerantzean?**

Oraindik ez dakit, egia esan. Oraingoz, nota ona lortu nahi dut, aukeratzen dudan unibertsitate graduan sartzeko arazorik ez izateko. Baina ikus-entzunezkoen munduak erakartzen nau, esate baterako.

## PERTSONALA

**Aramaioko txoko maiteena:** Andramari.

**Musika talde bat:** Maldita Nerea.

**Abesti bat:** Sam Smithen *Lay me down*.

**Janari bat:** Carbonara-espagetiak.

**Eguneko unerik gogokoena**: Bazkalostea, sofan lasai-lasai egoteko.

**Amets bat:** Musikarekin lotura duen lanbide bat izatea, horretan esklusiboki aritu barik, baina.

**Nora bidaiatuko zenuke?** Ameriketara; New Yorkera, adibidez. Islandiara ere bai.

**Programaren oroitzapen bat:** Bertan egin nituen lagun berri guztiak.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Bergara.** Baserria saltzen da kale ondoan eta prezio onean. 607 63 48 23

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Erdialdean apartamentu berria ematen da errentan. Logela, bainugela, sukaldea eta egongela. Trastelekua ereW bai. Pertsona batendako nahiz bikoteendako apartekoa. Hilean 530 euro. Kontratuarekin. 639 17 49 52

**Bergara.** 70 metro koadroko etxebizitza. Hiru logela, sukaldea eta bainugela. Hilean 450 euro. Ganbara eta igogailua. 675 70 68 07

**Eskoriatza.** Eduardo Gorosarri enparantzan etxebizitza ematen da errentan. Guztiz jantzia. 605 77 51 65

**Oñati.** Erdialdean lau logelako etxebizitza ematen da errentan. Igogailurik ez. 696 40 38 82

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Datorren ikasturtean Aretxabaletan ikasiko dut. Etxebizitza bila nabil. Xabier. 616 96 61 46

**Arrasate erdialdean.** Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan, Arrasate erdialdean. Jantzi gabe badago hobeto, etxetresnak eta altzariak baditugu-eta. 675 70 24 17

**Bergara.** Etxebizitza behar dugu errentan, igogailuarekin. Senar-emazte erretiratuak gara eta logela bat edo birekin nahikoa dugu. Hilean 450-500 euro ordain ditzakegu. 632 77 35 38

**Oñati.** Bi oñatiar langile, arduratsu eta txukunek etxebat errentan hartu gura dute Oñatin. Gehienez ere 400-450 euro ordaintzeko gertu. 685 73 06 80

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Erdigunean logela ematen da errentan. Telebistarekin eta zarrailarekin. 603 14 28 89

**Arrasate.** 30 urte inguruko hiru langile euskaldun gara eta logela bat daukagu errentan emateko lau logelako duplex batean. Prezioa 200 eurokoa da hilabetean, eta barne hartzen ditu gastu guztiak: ura, argia, berokuntza, internet, garbiketa eta abar. 679 84 49 20 (Maider) edo 677 44 82 85

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Cordoba y Oro kalean, San Andresen. Pertsona ez erretzailea eta arduratsua izatea eskatzen da. 648 00 86 55

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Grupo San Juanen. Pertsona bakarra bada, hobeto. Telefono honetara: 691 28 53 25 edo 627 24 62 76

**Arrasate.** Logela ematen da errentan partekatutako etxebizitza batean, Arrasate erdigunean. 608 49 89 93 (Iñaki)

## 2. GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bergara.** 20 metroko garaje itxia salgai, Ibargarai 39 kalean, prezio onean. 607 63 48 23

## 3. LOKALAK

### 304. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Neska koadrilla batek lokala hartuko luke errentan. 680 29 99 79 (Amaia)

## 4. LANA

### 402. ESKAERAK

**Arrasate, Bergara eta Oñati.** Gizonezko erizain laguntzailea gertu nagusiak zaintzeko. San Juan de Diosen eta Aita Mennin lan egindakoa. 639 66 57 88 edo 943 78 62 19

**Arrasate.** Arrasateko neska euskalduna umeak zaintzeko prest. 667 90 50 49

**Arrasate.** Logela hartuko nuke errentan, bertako jendearekin. Kontratuarekin. 647 28 92 34 (Fausto)

**Arrasate.** Mutila gertu etxean bertan bizi izaten nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat. Bestela, eraikuntzan ere lan egingo nuke. 678 25 95 46

**Arrasate.** Orduka lan egingo nuke garbitzen, tabernan eta abarretan. 691 28 53 25

**Bergara edo Arrasate.** Haur Hezkuntzako ikaslea, esperientziaduna, arratsaldez ume bat zaintzeko gertu. Informazio gehiagorako deitu zenbaki honetara:.645 70 23 37

**Bergara.** 46 urteko emakume bergararra etxeko lanak egiteko prest. 647 51 52 80

**Bergara.** Bergarako emakumea arratsaldetan nagusiak paseatzera ateratzeko gertu. Bost euro orduko. 628 54 02 41

**Bergara.** Emakumea gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. 631 33 83 75 (Hilda)

**Bergara.** Ume eta nagusiak zainduko nituzke egunean zehar. Baita garbiketa lanak egin ere. 631 53 76 74

**Debagoiena.** Arrasateko neska euskalduna prest etxeko lanak egiteko eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Deitu telefono honetara: Tel.:.634 81 54 93

**Debagoiena.** Arrasaten bizi den neska pertsona nagusiak zaintzeko, umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. 631 09 50 90

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak zaintzeko egunez, orduka zein gauetan. 645 58 71 61

**Debagoiena.** Erizain laguntzailea gertu nagusiak orduka zaintzeko. Esperientziaduna. 620 23 58 15

**Debagoiena.** Esperientzia handia eta erreferentzia onak dituen mutila nagusiak zaintzeko gertu. Etxeko lanak egiten eta janaria prestatzen ere ondo moldatzen naiz. Autoa daukat. Orduka ere lan egin dezaket. 662 43 08 54

**Debagoiena.** Gertu nago garbiketa lanetan jarduteko: etxe, atari, lantegi eta abarrak. Banaketa lanak ere egingo nituzke. Autoa daukat. Telefono honetara deitu: 632 77 35 38 edo 645 72 92 87

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko. Soldatzen eta tailerretan ere aritutakoa naiz. Autoa daukat. 697 98 31 30 (Victor)

**Debagoiena.** Mutila nagusiak zaintzeko gertu. Autoa daukat. 632 12 65 40

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen zein garbiketa lanetan arituko nintzateke. 602 34 04 13

**Debagoiena.** Neska arduratsu eta esperientziaduna nagusi eta umeak zaintzeko gertu. 609 18 87 32 (Paola)

**Debagoiena.** Neska arduratsua lan bila umeak edo nagusiak zaintzen zein bestelako lanetan. Esperientzia eta paperak ditut. 671 64 35 10

**Debagoiena.** Neska arduratsua, lege paperak dituena, gertu nagusiak zaindu, garbiketak egin zein sukaldean aritzeko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Autoa daukat. 697 20 00 86

**Debagoiena.** Neska arduratsua, lege paperak eta gida baimena dauzkana, gertu zaintza lanak egiteko. Etxean bertan bizi izaten, egunez eta baita ordezkapenak egiten ere. Ile-apaintzaile eta sukaldean ere aritu naiteke. 631 78 42 27

**Debagoiena.** Neska gertu etxean bertan bizi izaten nagusiak zaintzeko. Autoa daukat. 666 26 75 08

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu. Geriatria titulududuna. Autoduna. Eskarmentua lanean. Ospitalean gaixoak zaintzeko gertu. 600 00 51 60

**Debagoiena.** Zerbitzari lanetan edota nagusiak zaindu eta garbiketa lanetan arituko nintzateke. Leonarda Arandia. Deitu telefono honetara: 629 29 11 23

**Lan bila.** 27 urteko neska lan bila. Hiru urteko esperientzia zerbitzari lanetan. Umeak zaintzen, dendari, edota etxe zein atariak garbitzen lan egingo nuke baita ere. Debagoienean edo Eibarren. Mila esker. Deitu telefono honetara: 676 44 85 58

**Oñati.** Emakume euskalduna gertu arratsaldetan umeak zaintzeko. Deitu telefono honetara: 645 00 72 03

**Oñati.** Hezkuntza bereziko alorretik, lehen hezkuntzako ikasketak HUHEZIn burutzen ari naizen Oñatiko neska bat naiz. Aurtengo ikasturtean zehar arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. Haurrekin esperientziaduna. Deitu telefono honetara: 664 65 12 15

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** DBH 3. mailako matematika eskolak jasoko genituzke, astean bi egunetan, ordubetez. 688 65 73 49 edo 943 79 92 15

**Ingeniaritzako eskola partikularrak.** Ingeniaritzako 2. mailako eskola partikularrak jasoko nituzke Bergaran. Batez ere ikasgai hauetan laguntza beharko nuke: mekanika, estatistika eta matematika III. 638 86 82 53

### 502. EMAN

**Arrasate.** Umeedako yoga eskolak ematen dira. 615 72 51 70 (Ana)

**Bergara.** Ingeles eskolak ematen ditut. Maila guztiak. Ikastaro trinkoak, HEO-eko zein Cambridge-ko azterketak prestatzeko eta abar. 618 91 32 89

**Eskola partikularrak.** 23 urteko gazte bergararra eskola partikularrak emateko prest. Kazetaritzan graduatua. DBH 4. mailara arte emango nituzke klaseak, eta Batxilergora arte Euskara, Gaztelera, Frantsesa edota Ingeleseko klaseak balira. 628 52 43 72

## 6. MOTORRA

### 601. SALDU

**Motoarendako karroa.** Motoa eramateko karroa , prezio oso onean. 665 73 37 75

## 7. ANIMALIAK

### 703. EMAN

**Txakurkumeak opari.** Lau txakurkume ematen dira opari. Ama artzai txakurra eta aita ezezaguna. Ikusteko aukera. 658 75 97 55

## 9. HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Autoa konpartitu Segura-Aretxabaleta.** Aretxabaletan ikasten hasiko naiz aurtengo ikasturtean eta Seguran bizi naiz. Norbait balego joan-etorri hori egingo duena egunero, autoko gastuetan lagunduko nioke. Xabier. 616 96 61 46

---

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
